

FR. LUIS VILLASANTE

ANGELES SORAZU,
BIZIA ETA MEZUA

erein

Galerazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright jabeen baimenik gabe.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.

Azala:

Diseinua eta irudia: Antton Olariaga

© Fr. Luis Villasante

© EREIN. Tolosa Etorbidea 107 - 20009 - Donostia

ISBN: 84-7568-311-8

Legezko Gordailu: S.S. 976/90

Inprimatzailea: ITXAROPENA, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz

Behar diren baimenez

I

Jainkoaren esperientzia

Elizaren kondairan kasu guti aurkituko dira Ama Sorazurena bezain harrigarriak. Jainkoaren esperientzia bat hain liluragarri eta txundigarria eskaintzen digutenak, esan nahi dugu. Gure egunetakoa da, gainera, eta gure herriko alaba batengan gertatua. Esperientzia bat idazkitan zehatz-mehatz kontatua gelditu eta bi alderdion kontu-errendapen txintxoak dakarrena. Bataz, Jainko-alderdiaren gaindikotasuna, eta, besteaz, giza-alderdiaren argi-iluna miragarriki adierazten diguna.

Gure asmoa da euskal irakurleari esperientzia honen aurkezpen moduko bat egitea. Bestela esan: lehen hurbilketa bezalako bat eskaintzea, dibulgazio-mailatakoa, noski, baina dokumentuetan sendo oinarritua. Ur handitan sartzeko bat ere asmorik gabe, bestalde, zeren eta horretarako lan luze eta espezializatuagoak egin behar bailirateke eta guk hemen ez dugu horretarako aukerarik. Ezta ere ez gara hemen —zati batzuez landa—,

Sorazu beraren idazkien itzulpena egiten hasiko. Itzulpen hori noizbait egin beharko den gauza dela uste dugunarren.

* * *

Behin, Angeles Sorazuren kasua pixka bat hurbildik ezagutzen zuen neskata batek haxe esan zidan: "Jainkoak zergatik ez ditu maizago horrelako gauzak egiten?..."

Zer erantzun behar nion nik? Berak badakiela zer noiz egin.

Gaur topiko arrunta bilakatu da "Jainkoaren ixiltasuna" aipatzea. Itxura denez, Jainkoa gaur, supituki, mutu, itsu eta gor bihurtu zaigu, ezkutatu egin zaigu, ez da gehiago ageri. Egungo gizonaren begi-bistatik galdu egin da.

Baina gauzak ez ote dira, gero, beste aldera: geu garena, alegia, itsu eta gor bihurtu garenok?

Ez dago hemen gaizki Salmuak dioena gogoratzea: "Ohar zaitetze, herri-seme ergelok... Belarria ezarri zuenak ez al du entzuterik? Begia antolatu zuenak ez al du ikusterik?" (Ps 93,9).

Geu gara gu, ez Jainkoa, geure mende honetan batzez ere, itsu, gor eta mutu bihurtu garenok.

Gorrieria, itsu- eta mututasun hori gainditu beharrean gara. Beste hitzez esanik, Jainkoa bilatu beharrean gara. Bila dabilenak aurkitu egiten baitu (Mt 7,8).

"Zer da, ordea, Jainkoa aurkitzea?", galdetzen du Nisako San Gregoriok. Eta horra haren beraren erantzuna: "Etengabe Beronen bila ibiltzea, horra zer den Jainkoa aurkitzea". Ederki esana. Jainkoaren bila dabilenak gero eta aurkitzenago du, eta lan horrek ez du bukaerarik.

Jainko-bilatzaile aparta izan genuen Angeles Sorazu. Haren lurgaineko bizitzearen gora-behera guztia esaldi honetan sar daiteke: etengabe Jainkoaren bila ibili baitzen. Eta bila dabiltzanek topo egiten dute... Jainkoarekin.

Bada, beraz, Jainkoaren esperientzia bat, eta horren jabe izatea ez da monta ttipiko gauza, gaur batez ere.

Karl Rahner-ek esana du: “Bihar-etziko kristaua mistikoa izanen da, edota bestela ez du deus esatekorik izango”. Esperientzia zerbaiten jabe beharko duela izan, esan nahi du. Bla-bla hitzegitea edo jakite huts-soila ez dela, hemendik aurrera, askiko, alegia.

Aita Boada domingotarrak kontatu zigun berari behin gertatua. Joan zen gazte batzuekin Ripoll-era, Gogo-Jardunak haiei ematera. Ba omen zen han apaiz bat, lehenago zurgin izana. Gazte haiek, apaiz horrekin hizketa egitean, zeharo hunkituak gelditu ziren. “Gizon honek —hala zioten— Jainkoari buruz Beronen ezau-pidea duenak bezalaxe hitz egiten du...” Hori da, hain zuzen, Jainkoaren esperientziak egiten duena, eta hori da egungo gizonak nahi eta behar duena.

* * *

Jainkoaren esperientzia bada, beraz, eta horren behar gorria du gaurko kristauak. Zerbait eraginkorrik baldin bada, horixe. Esperientzia hori, bestalde, era askotakoa izan daiteke: maila arruntean gelditzen dena eta baita maila hori gainditzen duenetakoa ere —eta azken honetarikoa izan zen Sorazurengan azaldu zena—. Jainkoak guganatzeko dituen bide eta bidexkak konta ezinak dira, eta gu ez izan inor Hari mugak eta legeak ezartzeko.

Jainkoa ez da hil, bada. Birao horrek ez du ez buru eta ez hanka. Jainkoa bizi da. Eta Haren presentziaren azterrenak Angeles Sorazu gure herritar honen bizitze eta idazkietan miragarriki islatzen dira.

II

Mistika eta Karismak

Ez dut uste *Karisma* hitza Angeles Sorazuren idazkietan behin ere ageri den. *Mistika* hitza, aldiz, bai, azaltzen da, baina bakan eta ia beti esker guti ematen zaiolarik. Honetzaz, ordea, bere lekuan (Ikus VII) mintzatuko gara xehekiago.

Testamentu Berrian, alabaina, egiten da karismen aipamena (Ikus 1 Cor 12,31). Baita joan-mendeetako teologia ere aritu izan da horietaz, nahiz eta, dirudienez, beroien garrantzia eta nondik-norakoa ez duen aski sakondu.

Azken Kontzilioa izan da karismen auzia modako jarri duena eta horiei buruz irakaspen bat zehatzagoa eta egokiagoa eman diguna (Ikus “Lumen Gentium”, 12. Ikus, baita ere, “Christifideles laici”, 1989; 24).

Irakaspen honen arabera, Karismak dira Jainkoak dohainik ematen dituen grazia berezi batzuk. Grazia horiek hartzailearen beraren saindutasunaz ere izan dezakete zer-ikus, baina helburu partikular hori gaindituz,

Eliza orokorraren onari begiratzen diote, esan nahi baita: garai jakin batean Elizan nabari diren gaitzak sendatzeko, desbiderapenak zuzentzeko, fedea azkartzeko etab. emanak dira. Beraz, karisma hauen hartzaileak badu, Jainkoak emanik, mixio edo egiteko bat kristaudiaren alderakotzat.

Kontzilioak karismeia buruz eman duen irakaspenak *Mistika* bera halako begi berri batzuekin ikusteko bide eman digu. Behiala Mistika jotzen zen norberaren saindutasunerako, eta ez bestetarako, emandako grazia baltz bezala. Orain, zenbait aldiz bederen, hori ukatu gabe, Eliza orokorraren onerako ematen den grazia dela ohartu gara. Eta hau izango litzateke, hain zuzen, Angeles Sorazuren kasua ere. Hemen bada, alegia, mixio bat, egiteko bat, Jainkoak Eliza Orokorraren onerako pertsona jakin bati egotzi diona.

Hans Urs von Balthasar jaunak esan du (Ikus *Adrienne von Speyr. Vida y misión teológica*) Jainkoak badakiela aurretiaz, izurritea azaldu baino lehen ere, hartako sendagaia bidaltzen. Eta egia. Liburuska honen hondarrean ikusiko dugu zein diren, itxuren arabera, emakume honen bidez Jainkoak erremediatu nahi izan dituen gaurko ajeak, edo —gauza bera dena— eman nahi izan digun mezua.

* * *

Ama Sorazuren bizitze eta obran badela mezu bat Jainkoak berak guretzat paratua, eta Sorazuk baduela horren kontzientzia, beronek hor-hemen, zeharka bezala, sotil eta lanoki egiten dituen aitormenetatik garbi ateratzen da.

Hona hemen pasarte bat:

“Beste behin, tornuko etxartean nengoela —maiz joaten nintzen hara, tornera nintzen eta—, Jainko gure Jaunak zera agertu zidan: bertuteetan zer-nolako urritasuna, eta goi izpirituzko zer gabezia pairatzen duen arima jainkotiar arrunten parterik gehienak —bai sekular eta bai erlijiosoek—, eta nahi zuela, neurri batean bederen, premia hori nire bidez erremediatu. Horretarako, Berak eraginik, geroago ene arimaren Zuzendari izango zen batek neure barne-bizitzea idazteko aginduko zidala, hau da, Jainko berberarekin neronek izan ditudan jainkozko neure har-emanak”. (Ikus *Autobiografia* 168)¹.

Pasarte honek ez du irazkinik behar, ura bezain gardena baita.

Hurrengo beste hau, berriz, Ama Sorazuk Nazario Perez jesuitari egindako eskutitzetan dator. 1920ko Uztailaren 17an egindako eskutitzean, alegia. Bere arimako Zuzendariari buruz —Aita Mariano Vega, kaputxinoa, noski— mintzo da, eta hauxe dio:

“Berau da ni gehien tratatu nauen Zuzendaria, eta hobekienik erantzun izan diena, bai ene arimako premiei eta bai Jainkoak ene saindutasunari eta etorkizunari buruz dituen xede eta asmoei. Horregatik, ez dut duda izpirik Jainkoak bere borondatea adieraziko diola ene idazkien argitarapenari buruz —ordua hel dadinean—, zeren eta otoitz handiko gizona baita, Jainko-aintzaren eragile sutsu eta ene bokazioa arras ongi ezagutzen duena, eta badaki jakin Jainkoak ez dizkidala graziak neuretzat bakarrik ematen”².

“Jainkoak ez dizkidala graziak neuretzat bakarrik ematen”. Sorazuk bazekien bada —eta arimako Zuzendariak are gehiago— badela hemen bokazio bat, hau da, karisma bat besteen onerako emana.

* * *

Mistika hitzaz eta hitzaren edukiaz denaz bezan batean, bitxia dirudi —lehen kolpean behintzat— Angeles Sorazuri gertatzen zaiona. Hark kristau bide arruntak maitatuko ditu beti, horientzat izango dira haren hobespenak. Beste horiek, berak “pribilegiozkoak” deitzen dituen horiek, begitan izango ditu. Baina nahi ez nahi, gogoz kontra bezala, ikasi eta onartu egin beharko du, azkenik, horietxetatik, hain zuzen, daramala Jainkoak bere arima. Eta beharko du etsi, Jainkoaren nahiari amore emanez.

¹ Autobiografiaren aipamenak argitarapen berrira jotzen dute, baina ez orrialdera, testua banatzen duten orrialde-barneko zenbakietara baizik.

² “Correspondencia epistolar de la M. Angeles Sorazu con el P. Nazario Pérez”, *Scriptorium Victoriense* (1984), 181.

III

Angeles Sorazuk bereganatu duen itzala

Angeles Sorazu 1873. urtean jaio eta 1921. ean hiltzen da. Haren idazki guztiak —huskeriaren bat edo, izan ezik— bera hil ondoren argitaratzen dira. Eta hau da kontua: emakume honek, bai bere sindutasunaren famagatik eta bai bere idazkiek Mistika-alorrean iritsi duten estimazioagatik, ildoak urratu du, hutsaren parekoa ez den ildoak.

Zilegi izan bedi lekukotasun bat edo beste hemen aipatzea.

Sorazuren Autobiografia ateraberri zenean, Marcel Viller jaunak egiten du liburu horren kontu-errendatzea *Revue d'Ascétique et de Mystique* delako aldizkarian (Ikus 1931. urtea, 235. orr.). Bertan hara zer dioen:

“Espainiako mistiko handien tradizioa ugaltzera datorren emakume apal honen bizitze harrigarria ezin da zirrara gabe irakurri... Haurtzarotik berak hartutako grazien kontaketa hunkigarria, pasatutako egoera des-

berdinen deskribapen zehatza, Jainkoagandik izandako mesede goitiarrek, eta ez gutiago estiloaren kalitateek, denek batera laguntzen dute Autobiografia hau liburu paregabeko bat egiteko. Espainian hots handiko arrakasta izan du. Guztiek ezagutzea merezi luke”.

Eusebio Hernández-ek, berriz, honela idazten du (Villasanteren tesiari jarri zion hitzaurrean):

“Bai zabaleraz eta bai goitasunaz, eta ez gutiago bere originaltasun, estilo eta azalpen egiteko moduan dituen kausitzeengatik, Ama Sorazuren esperientzia eta dotrina Elizaren kondairak bere dokumentuetan ezagutzen dituen bikainetakoa da”¹.

Eta Baldomero Jiménez-ek 1974. urtean² honela zioen:

“Alde honetarik kasurik nabarmenena, Angeles Sorazu, Valladolidko frantziskotar kontzepzionistarena dugu. Idazle bezala, ezpairik gabe, mende honetan berau dugu gailen... Ezin ipini daiteke dudatan haren bizitze saindu eta mistikoaren jatortasuna —guti bezala saindu eta jatorra, alegia—, baina aitortu behar da bereizgarri oso pertsonalak ere badituela. Jadanik azterketa baliotsuak egin zaizkionarren, Ama Sorazuk merezi ditu, bai, sakontze berriak. Haren maila benetan altua da”².

Hor dugu, baita ere, Francisco Juberías-en obra gotorra: *La Divinización del hombre. Tratado Teológico de la Perfección Cristiana*³. Ikusi besterik ez dago, autoritate bezala, zenbat aldiz bertan aipatzen den Angeles Sorazuren izena.

Mihael Cukovecki iugoslabiarrak kroata hizkuntzan eman du Sorazuren berri eta bai haren obra nagusiaren

itzulpena ere: *Duhovni Zivot*, Split 1985. (*La Vida Espiritual*-en itzulpena). Etab.

* * *

Baina puntu bat dugu hemen bereziki azpimarraztekoa. Angeles Sorazuren obra guztiek iturri bat bera dute, hots: berak bizitu izan duen barne-bizia edo, hobeki esan, Jainkoarekin eta kristau fedearen munduarekin izan dituen har-emanak eta gora-beherak. Beste hitzez esanik, berak izan duen Jainkoaren esperientzia paregabea. Eskritura Sainduko pasarteak azaltzen dituenean ere, berak bizitu izan dituen goi-esperientzien oihartzuna nabari da. Hori da, modu batera edo bestera, beti kontatzen eta deskribatzen diguna. Gizakiekiko alderdia ere ageri da, nola ez?, baina besteak du, zalantza gabe, nagusitasuna. Bizitze honek izan ditu bere gazi-gozoak, bere saminak eta bozkarioak, eta badu, azkenik, Jainkoak hala nahirik, mezu bat guretzat eta gure mende honentzat.

Ama Sorazuk ildo urratu du, bada, bai bere saindutasunaren entzuteagatik eta bai haren obrek iritsi duten itzalagatik ere. Eta guzti hori gertatu da propaganda eta abarrots handi gabe, ezarian eta igarri gabe bezala. Berriki, Elizak haren saindutasun-prozesoren hasiera ospatu du (Valladoliden, 1988, Apirilak 13). Hura bizi eta hil zen komentuko elizan, hain zuzen. Eta haren hilobia ere orain elizan dago, fededunek ikusi eta bertan otoitz egiteko eran.

* * *

Eta guretzat isilik uztekoa ez dena: gure herriko alaba dugu Angeles Sorazu eta gure mende honetakoa.

Moja joan aurretik, oraindik Tolosan zela, Felipe Gorritigandik hartu zituen kanturako lezioak, eta horiek baliarazi zituen komentuan doterik gabe sartzeko; Valladoliden, Konzezioko komentuan, alegia⁴.

—Zer dela eta, ordea, Euskal Herria utz eta Gaztelara joate hori?

—Kanturako kargua hartuz gero, Gaztelan ez zen zaila doterik gabe sartzea, horrelakoen eskasia baitzen, baina Euskal Herrian kanturako gaitasuna eta trebetasuna ugariagoak izan, nonbait, eta ez zen horrelako aukerarik.

—Baina erdaraz egin zituen bere idazki guztiak.

—Eta bera bizi izan zen giroan zer besterik egin zezakeen?

Sorazuren euskal sustraiak uka ezinak dira. Ia segurutzat jo daiteke euskaraz irakurri zuela bere konbertsio-garaian —artean Tolosan zela—, San Frantziskoren Bizia, hots, Krispin Beobidek Tolosan bertan 1885ean agertutako *Asis-ko Loria* izeneko liburua⁵.

Konbertitu eta laster —1889. urtean, Leaburuko erromeri ondoko egunetan izan zen konbertsio hura— sartzen da gure Florentxi (hau zuen bataio-izena) Hirugarren Ordenan eta beste zenbait eliz elkartetan. Orduan Aita Krispin Beobide zen Tolosako Hirugarren Ordenako Zuzendaria. Sorazuk nahitaez ezagutu behar izan zituen, bai liburua eta bai beronen egilea ere. Eta pobre izanarren, liburu hori erosteko beste diru izango zuen, txapeligintzako fabrikan langile baitzen.

Autobiografian aipatzen dizkigu garai hartan irakurritako liburuak. Hauen artean dator “Aita San

Frantziskoren biografia”, liburu hori zein hizkuntzatan idatzia zegoen esaten ez badu ere. Eta hauxe gaineratzen du:

“Saindu honen biografia da gehienik erabili nuena eta onik gehiena egin zidana”⁶.

Gero, 18 urterekin —1891. urtean, alegia— Tolosa eta Euskal Herria betiko utzi eta klausurako komentuan batean sartuko da, Valladoliden.

Esan behar da garai hartan Erdal Herriko komentuetan bazirela anitz moja euskaldun, hor-hemen barreiatuak. Gutxi gora-behera Sorazuren arrazoi berberengatik beren herrietatik urrundua. Komentura dotea eramateko dirurik ez, eta horren truk zeukatena eramaten zuten: kanturako gaitasuna eta abilezia.

Jainkoak ez du bereizkeriarik. Inoren alde izatekotan, behartsuen alde ditu. Eta hala aukeratu nahi izan zigun geure herriko alaba behartsu hau bere dohainen ontzi eta gordelari egiteko.

¹ Ikus VILLASANTE (LUIS), *La sierva de Dios M. Angeles Sorazu. Estudio Místico*, 2 vols., 1950; Prólogo, VII.

² Ikus *La Espiritualidad en el siglo XIX español*, 182. orrialdean.

³ Madrid, 1972.

⁴ Calle Concepción, n. 4, Valladolid.

⁵ Liburu hau “Auspoa”k bir-argitaratu zuen 1966. urtean.

⁶ Ikus Sorazuren Autobiografia, 27.

IV

Angeles Sorazuren bizitzea, gaingiroki

Komentuan sartu zen arte (1873-1891)

Zumaian jaio zen Florentxi (hau zuen bataio-izena). Berak espreski dioenez:

“Familia pobre batetako alaba naiz, gehienbat arrantzaleez osatutako familia batetakoa, noski” (Autobiografia, 2).

Kantauri itsasoaren kostal-inguruan bizi direnek badakite zenbatetaraino itsaso haserrekor horrek moldatu ohi dituen arrantzaleen, eta guztiz ere, arrantzalekaskako emakumeen aiurria, psikologia edo izate-modua. Gure Sor Angelesengan ere ezagun direla, esango nuke, aiurri horren marka batzuk.

Sor Angelesek bazuen anaia bat fraide frantziskotar sartu zena, izenez Jose Manuel, eta gero Fr. Pedro Regalado. Zarautzen sartu zen fraidegai, eta handik, ez inork bidalita, bere oldez baizik, Lur Saindura, hots, Palestinara joan zen hango frantziskotar Kustodiako fraide izan eta Jesusen bizitzeko misterioak gertatu ziren

lekuetan zerbitzatu nahirik. Ausarta eta abentura-zalea beharko izan garai hartan horrelako bidaia egiteko. Fr. Pedro Jerusalemene hilko da 1948. urtean¹.

Florentxiren familia ez da beti toki batean egongo. Florentxik bere haurtzaro eta gaztaroan bizileku-aldaketa franko ezagutuko ditu: Zumaia, Zestoa (Karlisten gerrateagatik), berriz ere Zumaia, gero Donostia, eta, azkenik, Tolosa. Eta familiak leku horietara denetara eramango du beti berekin ezbehar franko, hots, pobrezia, eritasunak, etab. Esan gabe doa Florentxi ere patu horren partaide izan genuela.

Zer moduzko eskola eta heziketa hartu ote zituen? Zumaian haur ttipi zelarik, mojetara ibili zen, Karitateko Karmeldarretara (geroago Domingo Agirre, Kresala eta Garoaren egilea, kaperau egondako mojetara).

Donostian bizi zirenean —*Puyuelo* kalean, orain Fermín Calbetónen izena daraman kalean— eskola publikora ibili zen, baina, dirudienez, pasa zituen eritasunengatik, oporrik aski eginez.

Hamaika urterekin, berriz, Tolosara aldatzen da bere guraso eta senideekin. Behin Tolosara joanez gero, ez dakigu gehiago eskolarik agurtu ote zuen. Jakina da garai hartan familia pobreetako seme-alabak lehenbait-lehen hasten zirela lanean, ogia irabazten, alegia. Gure Florentxi ere, 13 urte zituela, Donostiako etxe batean neskame egon zen; eta ematen zioten janaren urriagatik eta etxetik kanpo egotearen minagatik, urtebete pasa eta, Tolosara itzuli zen berriro.

Tolosan Sorazuren familia Santa Maria kalean bizi zen, Elosegui txapelgintzako fabrikaren aurrean eta parrokitik hurbil. Fabrika horretako langile sartzen da, bada, Florentxi, eta langintza horretan iraungo du moja

joan arte. Eta Florentxi moja joan ondoren, “Emperador” kalean, 37-4, biziko dira Sorazuararak.

Horra, berriz, Florentxik azpimarraz egiten digun oharra: haurtzarotik somatu zuela berak kristau fedearren, Jainkoaren eta Elizaren eragina, eta bai pribilegiozko grazien akuilua ere. (Ikus *Autobiografia*, 4).

Hori gorabehera, hamabost urtetatik hamaseitara bitartean ezagutzen du Florentxik munduko jolas eta huskerietarako grina. Hamasei urterekin —Leaburuko erromeriatik etxeratzean amak leun baina seriozki erri-ta egin zionean— zentzatu, eta egundoko biraketa egingo du bere bizitzean. (Ikus *Autob.*, 9 eta hurrengo zenbakietan).

Bi urte egingo ditu oraindik Tolosan, baina hemendik aurrera guztiz bestelakotua dago, erabat Jainkoari eta otoitzari emana. Bizimodu berri hau ez da beti gozoa izango, halere. Izango ditu barne-lehorraldiak eta bai kanpoaldeko atsekabeak ere, adibidez ahizpa zaharren heriotzean pasa zituenak.

Hain zuzen, garai honetan noizbehinkako agertaldia egiten du jadanik kontenplazioa deritzon otoitz-motak (Ikus *Autob.* 35). Eta hortik sortuko zaio —otoitz-mota horri laguntzeagatik, noski— bakartade edo basamortura joateko burutazioa. Garai honetan Florentxiren laguna izan zen Encarnación Vidal andreak kontatzen du —Florentxiri buruz egin zuen idazkitxo batean— honako hau esaten zuela inoiz: “Ni pozik biziko nintzateke Uzturre mendiko haitzulo batean...”

Behin, bere bekatuen aitortza egiten ari zela, aitortleak —D. Martin Barriola— igartzen dio basamortura joateko duen gogoa, eta esaten dio:

—Zuk amesten duzun basamortu hori klausurakomentu batean aurkituko duzu.

Eta Florentxiren erantzuna:

—Ene gurasoak pbreak dira, ordea, eta ezin eman diezadakete doterik.

Beste apaiz batek —D. Francisco Tellechea— esango dio kanturako lezio batzuk hartuz, dote gabe ere ametitua izango dela, komentuan kargu horri dagozkion eginbideak betetzekotan. Eta hala egingo du.

Tolosako neskatxa ezagun bat Caspe-n moja sartzera zihoan, Orkaiztegi erretore jaunak bidaian laguntzen ziolarik. Florentxi ere elkartzen zaie. Berak ere nahi du komentu hori hurbildik ezagutu. Eta ez hori bakarririk. Caspe-ko organistaren aurrean bere kantu-etsamina egin eta moja sartzeko ametitua gelditzen da.

Florentxi berriz ere Tolosara itzultzen da, baina epe labur baten buruan Caspe-n sartzeko asmoz.

Jainkoaren asmoak bestelakoak izan, ordea. Caspera joan behar zuen egunean gaixo handi batek hartzen du, eta handik guti Florentxiren ahizpa zaharrena hil egiten da (gorago esan dugun bezala). Horiek hola, etxekoei laguntzeko etab., komentura joatea urte-erdi atzeratzen du.

Eta bitartean ustegabeko berria. Valladolidtik —Konzezioko komentutik— eskutitz bat hartzen du, han sar dadila eskatuz.

Nondik eta nola jakin zuten haiek Florentxiren berri? Erdi Arokoa dirudien istorioa da. Caspe-ko mojak oso pbreak ziren. Eta bazuten gizon bat Jesus haurraren imajina besotan zuela, herriz-herri haientzat limosna-eske joaten zena. Gizon hori Valladolideraino joan eta Jesus haurraren imajina Konzezioko komentuan utzi zuen. Mojek Jesus haurrari egin zioten eskaria, hain

zuzen, hauxe izan zen: “cantora” izango zen neskatxa bat, arren, ekar ziezaiera, eta asmo horren alde limosnatxoa eman zuten.

Binbitartean galdetzen diote gizon horri ea ezagutzen ote duen neskatxaren bat moja izateko bokazioa duena eta “cantora” ofizioa hartuko lukeena. Eta hark baietz erantzun, eta Florentxiren izen-abizenak eta bizitokia esan ere bai, Caspe-n ikusia baitzuen.

Orduan Valladolidko mojek, denbora galdu gabe, Florentxiri idazten diote beren komentura, arren, etor dadin eskatuz. Florentxik nahiko du Caspekoei emandako hitza bete, baina azkenean amaren esanera jarriko da. Amak zioen alaba hura osasun ahulekoa zela, Caspe-ko mojak, berriz, latz-zorrotzak, eta hobe zuela Valladolidko aukera onartzea. Eta alabak hala egin zuen.

Gero Valladolidko mojek esaten zuten Jesus haurrak ekarri ziela Sor Angeles².

Abadesa izendatua izan zen arte (1891-1904)

Trenez egin zuen Florentxik Tolosatik Valladoliderako txangoa, bere aitorlea —Francisco Tellechea— bide-lagun zuela (1891-VIII-25). Handik hilabetera jantziko du habitua eta izen berria hartuko: Sor María de los Angeles, eta, laburturik, Sor Angeles. Esan behar da, ordea, izen hau alde z aurretik —Tolosatik— begiz joa zuela.

Nobiziaduko urtea dator jarraian eta ondoren profesalea solemne edo nagusia, orduan ez baitzen besterik egiten.

Aurki ohartzen da Sor Angeles komentu eta komunitatearen egoeraz: mojak oso guti ziren —zazpi edo—,

zaharrak, elkarren artean guztiz ongi konpontzen ez zirenak, ekonomi aldetik lur joak zeudenak —Administrazioaile batek dirua lapurtu zielako, noski—, erlijioso-bizitzeko erregela eta arauak erdizka baizik gordetzen ez zituztenak. Luzaroan izango du Caspe-ra ez joanaren damua.

Herrimina, etxemina, Caspera joan ez zelako damua, dena sentitu zuen gure Florentxik. Barruko pozik ez, eta inguruan begiratzen baldin bazuen, hura etorkizun beltza! Hamazortzi urteko neskatxa bat bere bizi guztirako moja zahar batzuen artean. Elkarrekin ongi konpontzen ez, eta erlijioso-bizitzea, zegokien bezala, egiten ez zutenak. Ez zen ez beharleku makala!

Halere, ez zitzaion sekula burutik pasa komentua utzi eta berriz gurasoen etxera joatea, “zeren eta erlijioso-bokazioa behar bezala estimatzen bainuen” (Ikus *Autob.* 52).

Komentuko lehen bi urteak basamortu idor batean igaro omen zituen. Eta horra, supituki, berak “bigarren konbertsioa” deituko duena. 1893ko Abuztuak 15. Berak ez daki esaten nola gertatu zen hura, baina Aita San Frantziskok errita egiten dio, hartutako graziei ongi erantzuten ez dielako. Erabat lotsaturik bere gelara erretiratu eta bizitze berri bat egiten hasteko erabakia hartzen du.

Esan eta egin. Puntu hartatik hasiko da bizimodu zeharo berria egiten. Gauero lehen-lotatik esnatzen den bezain laster joango da korura edo komentuko toki bakartsuetara eta han gaueko isiltasunean otoitz egingo du ordu pare batez edo. Komunitateak gogozko otoitzari egunero eskaintzen dion ordu osoaz gainera, beste ordubete erantsiko du bere kontutik, etab. (Ikus *Autob.* 80).

Sor Angelesek esango digu oraintxe iragan zela basamortutik purgatoria —garbitokira, alegia—. Lehenkonbertsioan graziak erraztu ziola lana, dena samur eta gozo gertatu zitzaiola. Orain, berriz, dena izango da beste aldera, dena aldapatsu, dena malkar, dena naturalezari kontra eginez burutu beharreko gauza. Orain sartzen da Mistikoei *Gau Iluna* deitzen duten egoera beldurgarri horretan.

Purgazio-garai horren deskribaketa ugari utzi dizkigute Mistikoei, baina guti izango dira Sorazuk utzi diguna bezain erdiragarriak eta mila ñabardura eta xehetasunez hornituak. Guk, ordea, hemen ez dugu ez lekurik ez astirik horri buruz luzaz mintzatzeko. Bi ohar egingo ditugu soilki: 1) Ama Birjinaganako zuen jaierak lagundu ziola proba astun hori jasan eta hartatik gailen irteteko, eta 2) berak sofrikario huts-soiltzat zeukan hura, hazkunde miraritsu eta hobakuntza ederra egiteko bide gertatu zitzaiola.

Goitiko kontenplazio-argiak egin zuen hor bere lana, lan ederra. Eta ez berehalakoan, baina denboraldi baten buruan Sor Angeles ohartuko da ondorioez. Kanpoaldetik begiratzuz samin eta gozagaitz izan den kinka horretan bertuterik bikainenak finkatuko dira Sorazuren ariman; eta, izendatuki, Jainkoa saririk gabe zerbitzatzera garamatzan bertuteak —hots, karitatea—. Eta hori, besteak beste, Ama Birjinagandik ikasi zuela esango digu. (Ikus *Autob.* 122).

Nola bukatu zen gau ilun hura? Urtebete eta pixka bat gehiago iraun zuen, eta —Ama Birjinaren adiskidantza izan ezik— Sorazuk dena bakartade itzelean igaro behar izan zuen. Behin baino gehiagotan galdetzen omen zion bere buruari: “Zer esango ote lukete ene

gurasoek nola nagoen hemen baldin balekitez? Negar egingo lukete, segur” (Ikus *Autob.* 136).

* * *

1894, Irailak 25. Horra Sorazuk bere bizi guztian samurkiro eta eskerronez gainezka gogoratu eta ospatuko duen urte-muga. Egun horretan hartu baitzuen Jainko Bakar-Hirukoitzak egin zion bere buruaren emaitza. Gertakari honetaz utzi digun kontaketa eder-ederra eta hunkigarria da (Ikus *Autob.* 159). Eta areago, agian, gertakari horren ondoko egoeraren deskribapena. (Ikus *Autob.* 164 eta hurr.).

Egoera honek, ordea, hiru hilabete inguru besterik ez zuen iraun.

Eta hauxe da bitxia: egoera honi azkena emango diona Sorazu bera izango da, ez Jainkoa. Sorazuk ez zuen garai haretan arimako Zuzendaririk, guztiz bakarti bizi zen. Eta arrunta ez den egoera haretan ez zekien nola bere burua gobernatu, nola gizartean bizi, ikusten zuen erokeriak egiten hasia zela. Beldurrak hartu zuen, bada. Nahiago du, aholkaririk ez duen bitartean, graziari gogor egin, jarki, alegia.

Eta hala egiten du. Eta, jakina, hori egiten duen puntutik, jeixten hasten da. Eta Jainkoak bere esposaren abelera honek ematen dion pena agertuko du. (Ikus *Autob.* 169 eta hurr.).

Harrigarria benetan. Kreaturak bere kontutik erabakitzen du Jainkoari jarkitzea eta hark amore ematen du, bere sentimendua azalduz, halere. Geroago, Sorazuk ezagutuko dituen Zuzendarietatik batek jazoera bitxi honetatik hartu nahiko du bide, haren mistika osoa ez-baian jartzeko.

Arrantzale-alaba izan behar, alafede!, Jainkoari berari ezezkoa emateko, eta Honek nahigabea agertu bazuen ere, ez zen haatik haserretu.

Jetxi da, bada, Sor Angeles egoitza goren hartatik, eta arruntagoa den beste batean iraungo du makina bat urtez. Orain hasten den bidealdian hogeï urte emango ditu. Pasaberria den egoeran baino arruntagoan, nahiz zeharo arrunta ere ez den.

* * *

Orain hasten den garai berri honetan mugarri antzo azaltzen da Sorazuk eta haren komunitate osoak Valladolidko beste komentu batean igaro behar izan zuen denboraldia (1895-1898). Beste komentu honek Jesus Mariakoa du izena. Garai hartan hiri barruan kokaturik zen; orain, berriz, San Pedro Regalado auzoan dago, eta Sorazuren komentua bezala, Konzezioko Ordenakoa da.

Aldaketaren zioa izan zen Sorazuren komentu zaharra lur jotzeko arriskuan zela, eta orduan Valladolidko Artzapezpiku Cascajares jaunak agindu zuen moja guztiak Jesus Mariakora pasa zitezela, harik eta etxea eraberritu arte. Sorazuk, bere komentutik alde egiterakoan, behin eta berriz munkatuko ditu berak Jainkoarekin izandako har-emanen testigu diren zoru eta horma zahar haiek... (Ikus *Autob.* 183 eta hurr.).

Halako mingoxtasun batekin gogoratuko du gero Sor Angelesekin Jesus Mariako egonaldia. Ez, noski, hemengo mojek gaizki tratatu zutelako; aitzitik, hauek egin ahalak egin zituzten etorkinei harrerarik onena egiteko. Baina bi komunitateok, Ordena berekoak izanagatik, ez zeuden, dirudienez, egoera eta jite berean. Gorago esana dugu Sorazuren komentuan gauzak ez zebiltzala arras

ongi; Ordenako legeak eta arauak, alegia, ez zirela behar bezala begirutzen; Jesus Mariako komentuan, aldiz, bai. Eta hori berez ona izanarren, Sorazurentzat oztopo gertatu zen.

299 Nola uler daitekeen hau? Hara. Sorazuk bazekien grazia guztiz aparta eta puntakoak hartuak zituela, eta berari Jainkoak eskatzen zion erantzuna ere ez zela bestei eskatzen ziena bezalakoa. Bere komentu zaharrean, zegoen disziplina ezagatik edo, bere bidetik ibiltze hori errazago zitzaion; Jesus Mariakoan, berriz, ez. Batez ere penitentzi, barau eta gaueko otoitz-aldietarako izaten zituen trabak.

Baina ez zen dena sofrikario izan, halere. Grazia handiak ere hartu zituen han: Gizakundeko misterioari buruz, Jainkoak Izadiaren bidez egiten digun bere buruaren agerpenari buruz, etab. Han lehen aldiz topo egingo du herri-hizkuntzan idatzitako Ebanjelioekin, etab.

* * *

Konzezioko komentuan berritze-lanak burutu zirenean, hara itzultzen da Sor Angeles bere ahizpekin.

Sorazuk Jainkoari egiten zizkion eskarrietatik bat zera zen: komenturako bokazioak ugari zitezela. Izan ere, hain guti ziren bitartean, ez zen erraz Erregela ongi gordetzea. Eta grazia hori ere lortuko du. Gutika-gutika bokazioak ugaritu ziren, eta Abadesa izan baino lehen ere, horiek erlijioso-bizitzerako eskolatzen eta hezitzen arduratuko da. Hiltzen denerako, 30 baino gehiago izango dira Konzezioko mojak, eta Sor Angeles izan zen gehientsuen moldatzaile eta ispilu.

Baina bazen halere puntu bat, zeinetan Sor Angelesek ez zuen Jainkoaren esana egiten: bere burua arimako Zuzendari baten gidaritzapean jartzea. Sorazuk ere nahi zuen hori, baina nola agertuko zizkion eliz gizon bati hartuak zituen mesede gorengoak? Inondik inora posible ez zela begitandu ohi zitzaion. Eta hala jarraituko du; Zuzendari gabe, alegia.

Baina heldu da, noizbait, ordua, zeinetan ez dion Jainkoak gehiago barkatuko. 1903ko azken egunetan zen. Haserre agertzen zaio Jauna eta halako mehatxu edo “ultimatum” moduko bat zuzentzen dio: behin betiko utziko duela bazterrerat, baldin arimako Zuzendari bat hartzen ez badu. Ez zen makala izan Sor Angelesek, Jainkoa beragatik haserre ikustean, jasan zuen lorra. Eta oraingoan, bai, jarriko du bere burua Zuzendari baten pean. (Ikus *Autob.* 382).

Orain hasten da, bada, Sorazuren bizian arimako Zuzendarien aroa. Baina horietaz eta horiek egin zuten lanaz artikulua berezi batean mintzatuko gara (Ikus V).

Hil zen arte (1904-1921)

Esan behar da komentuko mojek aspalditxotik zutela begiz joa Sor Angeles Abadesa izateko. Gehiago oraindik: kapituluetan behin eta berriz izan zen hautatua, baina auktoritateak —Apezpikuak— ez zuen hautaketa birresten Sor Angelesek ez zuelako oraindik Eliz legediak eskatzen zuen adina.

Binbitartean Komunitatea bi taldetan banatua zebilen: Abadesaren taldea batetik, eta oposizioarena bestetik. Guztion batasuna egiteko, Sorazu hautatzea beste biderik ez zen ikusten.

Hain zuzen, 1903. urtean helduko da Sor Angeles 30 urtetako adinera. Eta 1904eko Otsailean egindako kapituluaren hautatua izan zen denen botuekin. 12 ziren botu-emaileak eta Sorazuk 11 izan zituen —berarena falta, noski—. Oraingoan, bai, iritsiko da Apezpiku jaunaren birrespena.

Hil arte iraungo du Ama Sorazuk karguan, hiru urtetatik hiru urtetara egin ohi ziren kapituluetan beti bir-hautatua izan, eta Apezpikutegiak mojen nahi hori ontzat eman zuelako.

Orain, bai, hasiko da aro berri bat komentu-etxe harentzat: batasunaren eta erlijioso-bizitze gartsu baten aroa. Eta mirari hori egingo du Abadesa berriak —besteak beste— amatasunaren bidez. Denboraldi honetan komunitatearen eta moja bakoitzaren alde egin zuen guztia xeheki kontatzeko, ordea, ez dugu hemen lekurik.

Baina ez dezagula pentsa kargua hartzeagatik Jainkoarekiko gauzetan motelagoa bihurtu zenik. Gogoan hartzekoak dira honoko lerro hauek:

“Neure erlijioso-bizitze osoan maitatu izan dut aparteko modu batean bakardadea, erretiroa, izakietatik ihesi ibiltzea —hemengo biziaz zer ikus duen guztitik, alegia—, eta, hain zuzen, Abadesa izatetik neure burua libratu nahirik ibili banintzen, arrazoi bat hauxe izan zen, hots, karguaz ondasun hori galduko ote nuen beldurra. Baina kargua eman zidan Jainko berak lagun egin zidan bere graziaz, halako eran, non, neure eginbideei kasu egiteagatik neure burugainera kaltea erakar ez nezan” (Ikus *Autob.* 389).

Esanik dago honekin Jainkoaganako bere ardurak ez duela kargu berriaz galerarik jasango. Eta halaber

etxearenganako eta alabenganako hartuko duen ardura eta lehia ere amultsuak izango direla.

Eta berak askotan Jainkoari egindako eskea ere, hots, bokazioak ugaritzekoa, bete-betea iritsiko du. Mojaigai-ilara aski luzea etorriko da atejoka Konzezioko komentura eta Ama Sorazu izango da beroien eskola-tzaile eta hezitzaile. Bere etxea materialki zaharberritua eta izpiritualki azkartua utziko du.

Valladolidko komentuari entzutea Ordena bereko beste komentuetara ere helduko da, adibidez Logroño-ko “Madre de Dios”-kora, Avilakora, etab.

Gainerakoan, atsegin-atsekabeak franko izango ditu Sorazuk bere bizian zehar. Berez ere gaixotia zen. Aita Mariano bere Zuzendariari hara zer esaten dion eskutiz batean: “Jainkoa badela oroit naizen puntutik, ezin dut osasunik izan”³. Egiten zituen penitentzi, hildura eta barauekin asko mazkaldu zen. Badirudi azken urteetan kontu gehiago zuela.

* * *

Jasan nahiko lukeen heriotze-motaz ere badira aurrean haren idazkietan, hots, berak aurretiaz emandako albisteak: Jesusen Pasioa emango zaiola ondare, hura izango duela bere zortea, alegia. Eta bai halaxe gertatu ere.

Mojek behin, beren jostaketa-garaian, zotz egin zuten —txartelak beren artean banatuz— ea bakoitzari zein bertute edo zori tokatzen zitzaion. Eta Abadesaren paperak honela zioen: “Mirraren mendira joango naiz” (Cant 4,6)⁴. Eta Abadesa, erori zitzaion zortea jakitean, haurtxoa bere jostailuaz bezala, pozaren pozez saltoka

hasi omen zen. Eta bai, Pasioaren partaidetza izango du bere ondare. Salmuarena ezan zezakeen: “Lur gizenean gertatu zaizkit zuin-hariak” (Ps 15,6).

Beti ere osasun guti eta min askorekin bizi izan zela alde batera utzirik, azken egunetan izigarri gaizkitu zen. Hemorragiak, oinaze bortitzak...

Jaun midikuak minbizia zela epaitu zuen.

Baina Mistikoen heriotzea ez ote da, gero, amodiozkoa, hots, amodio pasiboak kausatua? Bai, noski, hala dio argi eta garbi Doniane Gurutzekoak⁵.

Batak, ordea, ez du bestea kentzen. Esan nahi baita: bata eta bestea denbora berean elkarren ondoan gerta daitezke, eta hori Doniane berak baieztatzen du. Gertatzen dena, midikuak bere eskuaren irispidean duena bakarrik baieztatzeko dezaakeela, bidezko denez.

Ama Sorazuren kasuan amodiozko heriotzearen ezaugarriak ez dira falta. Horra hark bere azkeneko orduetan esandako zenbait hitz:

“Ene Jainko, ene Jainko, zergatik abandonatu nauzu? Baina hau material aldetik soilki, zeren eta izpirituzkotik zuk ez bainauzu sekulan abandonatzen”.

Eta oraino:

“Amatasun jainkozkoa, lagun iezadazu. Emaidazue adore sagarrekin, —eta beste batzutan— loreekin, zeren eta ahitzen ari banaiz, amodioz hiltzen ari bainaz”.

Bistan da Testamentu Zaharreko zein liburu duen gogoan hitz hauek esatean (Ikus Cant 2, 5)⁶.

Hil-bezperako gauean galdetu omen zuen: “Zein Saindu dugu bihar?” Eta laguntzaile zuenak erantzun: “San Agustin”

Eta orduan otoitz egin omen zion *euskaraz* San Agustini.

Bai. San Agustinen egunean hil zen (Abuztuak 28), 1921. urtean, goizeko 6etan, 48 urte zituela.

¹ Ikus ARCE (AGUSTIN). "Aventuras de un misionero de Tierra Santa", *Boletín de Amigos del País* (1967), 213-223.

² Sorazuk bere Autobiografian ez du aipatzen Caspe-ko mojen eskalearena. Autobiografia horren lehen argitarapena prestatu zuenak —Aita Nazariok— orripeko ohar batean dakar. (Ikus edizio hori, 37. orrialdean).

³ 11-VIII-1920 ko eskutitza. Ikus VILLASANTE *La sierva de Dios M. Angeles Sorazu*, vol. II, Apéndice Documental n. 262, p. 225.

⁴ Ikus Aita Marianori esgindako eskutitza, 1920-X-24. *Itinerario Místico de la M. Angeles Sorazu*. Correspondencia epistolar con el P. Mariano de Vega, su director espiritual, editada y anotada por el P. Melchor de Pobladora, vol. III, Madrid 1958; p. 174.

⁵ Ikus *Llama* 1,30.

⁶ Hil baino bi hilabete lehenago, S. Antonio egunean, berak eskaturik, Remigio Gandasegui Artzapezpikua etorri zitzaion, eta klausuran sarturik, bedeinkapena eman zion.

V

Arimako Zuzendarien partea

Konbertitu zen puntutik somatzen zuen Sor Angelesek gauza bat, eta da: bere sentipenak, hartutako mesedeak etab. kofesore arruntari behar zizkiola adierazi; herabe zuen, ordea. Zergatik? Grazi maila apalean egoitea zor zaionari ez dagokiolako, iduriz, horrelako asmo eta helburu goitiarrek izatea. (Ikus *Autob.* 37).

Makina bat urtez iraungo du puntu honetan Jainkoaren borondatea bete gabe. Berak ere bete nahiko du, baina ezin, esandako arrazoiagatik. “Nor haugu, ume, handikeria horiekin ibiltzeko?” Arrazoiketa honek itxierazten zion ahoa.

Bazen, bada, halako tirabira bat. Alde batetik, bekataritzat dauka bere burua; kristau zintzo eta leiala izan nahi du, hori bai, baina desarrunt diren gauza horiek gabe. Berak, ordea, badaki bere barruko sentipenen berri. Badaki arima arruntek ez bezalako bultzadak sentitzen dituela, baina nola joan gauza horiekin eliz gizonengana? Ezina iruditzen zitzaion.

Enganatzaile, ero edo gezurtizat hartuko dutela ere bururatzen zaio. Sorazuk, berriz, egiaren gose-egarri guttiz aparta izango du beti. Egian nahiko du bizi eta hil; eta horrelako gauzak esaten hasten bada, ez ote da, gero, iruzurkeriaren atzaparretan eroriko? Eta gauza horiek esanez, besteak ere ez ote ditu gezurraren bidetik abiaraziko? Hobe, beraz, deus ez esan.

Gainera, Sorazuk bere kabuz ez du kristau errepi-de zabal-arrunta segitzea beste asmorik ez ametsik, hots, Elizak bere seme-alabei Kristau Dotrinan, liturgian, arrosarioan etab. irakasten duen bide hori, alegia. Bide arrunt hau maiteko du berak beti. Baina Jainkoak bes-tetik daramala ere ezingo du ukatu. Nolatan gauza na-barmen hauek agertu, ordea? Inola ere ezin zuen.

Arimako Zuzendarien laguntasuna behar-beharre-ko zuela adierazi zion behin Jainkoak, argi eta garbi, eta bai beharrizan horren arrazoia ere. Horra hartako pa-sartearen zati bat:

“Beharrizan honen arrazoia hauxe zela ulertu nuen, hots: hobespenezko grazien estimazio eta jaramon gutti egiten nuela; Jaunak grazia horiek bekatari honengan ipintzen zituela eta, beste gabe, ezdeuskeriatzat hartzen eta alferrik galtzen uzten nituela. Horregatik, bada, premia-premiazko nuela Jainkoaren ordezkari bat, gra-zia horiek aintzat hartzen eta beroiei erantzuten neri irakasteko; eta bai halaber, Hark ene arimaren alde-rakotzat dituen asmoekin bat eginik bizitzera ni ekar-tzeko”. (Ikus *Autob.*, 263).

Pasarte honen garrantzia ez dugu behar bezainbat azpimarratuko. Sorazuren jarrera eta erreakzio asko ulertzeko, giltza eskaintzen digu. Jainkoak ematen ziz-kion graziak —hobespenezko graziak— ez zituen esti-

matzen, edo —gauza bera dena— gutietsi egiten zituen. “Neuri ematen zaizkidanean, ez dute asko balioko”, hau zen, nonbait, haren pentsaera. Erreakzio hau, ordea, ez zen zuzena. Eta horregatik, Jainkoaren graziak aintzakotzat hartzen ikas zezan, arimako Zuzendarien laguntza behar zuen.

Sorazuren planta honekin zer-ikusi du, ordea, egiaren auziak. Arestian aipatu dugu egiaren gose-egarría, Sorazuk biziki sentitzen zuen gose-egarría. Hartako pasarteak ugari dira Aita Mariano zuzendariari egindako eskutitzetan.

Hona hemen bat:

“Nire duda edo sinesgogortasun hori dela eta, errita egiten dit zein den ez dakidan batek, ondorio larriak berekin dakartzan hutsa balitz bezala, eta hara zer esaten didan: “Horrela meziprezatzen duzu zuk Jainkoa bera? Jainkoaren mesedeen meziprezu hori —tratu egiteko eman zitzaizkion talentuak lurpean ehortzi zituen morroi gaiztoaren antzera— eta arimako Zuzendariaren meziprezua —fabore horiei zor zaien garrantzia ematen ikas dezazun eskaintzen zaizuna—, hori izan da eta da zure atzerapen guztien erroa”.

Errita honi era honetara erantzun ohi diot nik: “Duda dut, ordea, Jainkoa ote den horrela faboratzen nauena, eta horregatik nahiago dut Jainkoagandik hartzen ditudan edo hartu uste ditudan fabore guztiak arbuia, ezen ez irudipen baten azpian erori”. Eta zein den ez dakidan ahotsak erantzuten dit berriz ere: “Adieraz iezaiozu zeure ezbaia hori zeure arimako Aitari, eta bai Jainkoak zeure alderakotzat dituen asmoei buruz duzun sinesgogortasuna ere. Zu, eta ez Jainkoa, izan dela bide arruntetatik at zeure burua jarri duena, Jainkoak

zeuri buruz duen hobespenaren kontua etab., duda guzti horiek zabaliezazkiozu arimako Aitari, eta hori eginik, onar ezazu haren iritzia eta zaude lasai. Bestela, zeure errukarria heriotzeko orduan!”¹

Urte asko igaro zituen, bada, Sorazuk, arimako Zuzendari gabe. Baina aurreko kapituluaren esandako mehatxu edo “ultimatum” delako horren ondoren, amore ematen du. Orain, bai, eskatzen zaion urrats hori emango du. Probetxu bikainik asko ekarriko dio direkzio izpiritualak Sorazuri, baina baita katramila, nahigabe eta sofrikario berriak ere.

* * *

Bost Zuzendari izango ditu 1904etik 1921era bitartean (hil zen arte, noski). Baina berak bat, hirugarren tokian datorrena, aitortu eta deituko du aho betean bere Aita (“mi Padre verdad”=neure Aita jatorra).

1.- *Aita Andres Ocerin-Jauregui*, frantziskotarra, Kantabriako Probintziakoa eta orduan Aguilera-ko komentuan (Burgos) bizi eta noizean behin Valladolidko mojetara joaten zena. Bizkaitarra zen, Zeanuri-n 1863an jaio eta Portugaleten, istripuz, trena hartzerakoan 1943an hila.

Aita honi buruz badira paseko alusioak Autobiografian. (Ikus *Autob.*, 332, 385, 386, 415). Jainkoak berak adierazi omen zion Aita honen izena bere Zuzendari izan zedin. Jainkoak, aukeratze hau egitean, izan zuen motiboa ere badakiela uste du, hots, Caspe-ko organistaren alabari —Sorazuk han egon zen egunetan ezagutu eta orain Lerma-n moja eta Aita Ozerin-en direkziopean zenari—, laguntzeagatik.

Nolanahi den, guti iraun zuen direkzio honek –urtebete edo gutixeago– eta Aita Ozerin bera izan zen azkena eman ziona.

2.- *D. José Hospital Frago*. Os de Balaguer (Lérida) izan zen beronen jaioterria. 1846an jaio eta Valladoliden 1916an hila. Katedraleko Deana zen. 1905etik 1910era arte izango da Sorazuren arimako Aita. Honi, dirudie-nez, hustuko dio lehen aldiz Sorazuk bere barrenalde guztia eta ondorioz laguntza handia jasoko du beronen-gandik.

Baina zehazkiago hitzeginez, onura horiek aurreko bi urteetan gertatu ziren, ezen gero gorriak pasa behar-ko ditu beronekin. Sobera sinesbera eta naturaz gaindiko gauzetara isuria omen zen. Hori dela eta, Cos Artza-pezpikuak agindu zion Sorazuri Zuzendari hori utzi eta beste bat hartzeko, baina berari deus esan gabe.

Hiru urtez iraungo du Sor Angelesek egoera triste honetan: Zuzendariarekin behar zuen fidantzia galdu, eta beste inor ageri ez. Orain uste du eman zizkiola Jainkoak Caspe-ko bere lagunaren beharlekuak, bere burua haren ordeztu sofritzeko eskaini baitzuen.

Ama Sorazu ez zela berarekin lehengoa aurki so-matu zuen Dean jaunak. Zer pasatu zen jakin ez, ordea, eta Sor Angelesen aurka jartzen da. Direkzio izpiritua-lari buruz idatzi zuen eraskinean honelako ajea duten Zuzendariak egin ditzaketen kalteez mintzo da. Izenik aipatu gabe, halere².

3.- *Aita Mariano de Vega, Kaputxinoa*. Berau izan-go da Ama Sorazuren Aita jatorra, haren beharritane-i erantzuteko txit egokiro moldatua. Vega de Espinaredan (León) 1871n jaioa eta Madrilén 1946an hila. Gaztelako

Kaputxinoen Probintziala izan zen, Teologi irakaslea eta otoitz handiko gizona.

Nola etorri zen Aita Mariano Ama Sorazu ezagutzera? Probintzial eginberri zelarik, Valladolidera dihoa. Ez daki Sorazuren berririk, noski. Kaputxinoen komentu bat Valladoliden sortzeko asmoa du buruan, eta horretarako bideak urratu nahirik dabil. Txiripaz edo, norbaitek kalean ematen dio Konzezioko komentuaren berri eta hara zuzentzen du pausoa. Nahi du galdetu ea mojek bere asmo hori bultzatzeko gizonik ezagutzen ote duten. Abadesarekin hitzegin nahi duela dio. Eta, jakina, Ama Sorazu izan Abadesa hori.

Kaputxinoen komentua ez da egingo —oraingoz behintzat—, baina Aita Mariano gauza batez jabetu da, hots: Abadesa hura guztiz artega, eskrupuluez eta kezkez josia dela.

Lehen topaketa hau 1908ko azkenaldian izan zen. Aita Mariano León-en bizi zen. Mojek kuarta tenporetan aitorle desarrunta, hots, “extraordinario”, eskatu behar izaten zuten, eta egun haietan Valladolidko hirian predikuak egiten zebilen Kaputxino bat eskatzen dute aitorletzat, baina hark ez zuen joan nahi izan. Orduan Probintzialari abisatzen diote beste bat bidal dezan, eta non azaltzen zaien Aita Mariano bera. 1910eko Uztaillean gaude.

Ama Sorazuren lehen burutapena horrekin ez konfesatzekoa izan omen zen. Zergatik? Jabetu da, nonbait, fraide hura berarekin ez ote den gehiegitxo interesatzen... Baina azkenik, beste erremediorik ez, eta joan zen. Horrela izan zen direkzio honen hasiera³.

Direkzio honen xehetasunetan ez gara sartuko. Bakarrik esango dugu Ama Sorazu egoera triste eta an-

tsiz beteriko hartatik atera zuela eta jarraian hasiko direla Mistika-bideetako gorakada handiak.

Esan dugun bezala, Aita Mariano León-en bizi zen eta horregatik, neurri handi batean, direktzio hau eskutitzen bidez egin behar. Horri esker ditugu Sorazuk bere Aita jatorrari egindako eskutitzak hiru tomotan atereak; Aitak berari egin zizkionak ere gordetzen dira, baina argitara gabe daude.

Karta hutsez, ordean, nekeza da behar bezalako direktzioa egitea, eta maiz joaten zen Aita Mariano León-dik Valladolid-era, bai Ama Sorazu eta bai Konzezioko beste moja batzuek ere ardura hartzeko.

Eta hara non 1913ko Urrian Abadesak ofiziozko idazki hotz eta motz bat hartzen duen, eliz barrutiko Gobernariak sinatua (Cos Artzapezpikuaren ilobak, alegia): Konzezioko mojej debekatzen zaie Aita Marianorekin har-emanik bat ere izatea, ez hitzez, ez idazkiz. Horrela eten zen direktzio hura⁴.

Zer gertatu zen Apezpikutegetik idazki hura bidaltzeko? Dirudienez, Konzezioko mojen konfesore arrunta kexu eta bekaizti zebilen Aita Marianok han zuen arrakasta ikusirik, zeren eta Abadesaz gainera, beste moja batzuek ere berarengana jotzen baitzuten. Aitorle hori joan zen, bada, Apezpikutekira bere kexak ematera eta horren ondorioz heldu zen handik esan dugun idazki hori.

Gertatua gertatu. Bai Ama Sorazu eta bai Aita Mariano ere agindutakora makurtuko dira. Isildu egin ziren eta obeditu egin zuten, arazoa Jainkoaren eskuetan utzirik.

Ia zazpi urte luze iraun zuen Aita Marianoren al-denerazte honek, Cos Artzapezpikua hil arte, alegia

(1919-XII-17). Ondoren Pedro Segura, gero Kardenal izango denak, hartzen du eliz barrutiaren gobernua eta honek, bere kabuz edo oldez, eskutitz bat zuzentzen dio Ama Sorazuri, zerbait nahi baldin badu, eskatzea besterik ez daukala esanez. Ulertu zuen honek zer esan nahi zion, eta berriz Aita Mariano Zuzendaritzat hartu nahi lukeela esan zion, eta hark baimena eman.

Hil arte, bada —urtebete eta zerbait gehiago— bere Aita jatorraren gidaritzapean egongo da berriz ere Ama Sorazu. Aurrenengo aldian León-en bezala, bigarrenengo honetan Bilboko Basurto-n biziko da Aita Mariano, Nobizioen Maisu izanik. Uste dugu neurri honekin Jainkoak —Berak dakizkien bidez baliaturik— Ama Sorazu eta Aita Marianoren izen ona salborik utzi nahi izan zuela.

4.- *Aita Narciso Nieto, frantziskotarra*. Ricobayo-n (Zamora) 1876. urtean jaioa eta Galiziako Santiago-n 1945ean hila.

Sor Angeles, Aita Mariano gabe gelditu zenean, denboraldi batean Zuzendari gabe bizi izan zen, baina berriz ere horien beharra somatzen du. Aita Narciso, Calabazanos-ko (Palencia) klarisen kaperau zegoen, eta, dirudienez, noizean behin konfessore desarrunt (extraordinario) gisa Valladolidera etorri ohi zen. Berau hartuko du, bada, arimako Aitatzat 1916. urtean, eta urte t'erdia edo, pasako ditu beronen zuzendaritzapean.

Ez du direkzio honek arrasto handirik utzi, eta bukatu zenean, elkarrekin itundurik, biok bata besteari egindako idazkiak etab., deuseztatzea erabaki zuten. Aita Marianori Sorazuk azken urtean egindako eskutitzetan ageri da, halere, aipamen bat edo beste Zuzendari honi buruz.

5.- *Aita Alfonso A. Vega, domingotarra.* Castromocho-n (Palencia) 1869an jaio eta Salamanca-n 1945ean hila. Sorazuren Zuzendari izandako denboran Valladolid-en bizi zen, San Pabloren komentuan, Konzezioko komentutik ez urruti, eta Ama Sorazurekin har-eman estua izan zuen, bai hitzez eta bai idazkiz ere. Sorazu berak aitortzen du, Aita Mariano kaputxinoaren ondoren, berau izan zela mesede gehiena egin ziona.

1917. urteko azken aldian hasi zen Aita Alfonso Sor Angeles-en arimako Aita izaten, eta kargu honetan iraun zuen 1919ko azken egunak arte. Orduan Aita Alfonso Valladolidtik aldentzen da, Ordenako nagusiek Santiagora bidalia.

Aita hau Mistika-gaietan oso aditua omen zen. Eta berau izango da Sorazuk 1894ko Irailaren 25ean hartutako grazia handi hura parte txarrekotzat joko duena —hasieran behintzat—. Ama Sorazuk Jainkoari gogor egite eta Jainkoak amore emate hori Mistikako lege guztien aurka zegoela iruditu zitzaion. Gero, berriz, gauzak hobeki aztertutik, Sorazuren izpiritua ona zela epaitu zuen. Ama Sorazuk eta Konzezioko mojek Aita Arinterorekin izan zituzten har-emanak ere Aita Alfonso honen bitartez gauzatu bide ziren.

* * *

Sorazuren bizi-denboran Valladolidko hirian ez zegoen ez Frantziskotarren, ez Kaputxinoen komenturik bat ere. Cos Artzapezpikuak, bestalde, ez zuen errez ematen baimenik kanpotarrak bere meneko ziren mojen konfesore edo Zuzendari izan zitezen.

Dena den, asko kostata, baina noizbait bete du Sorazuk Jainkoak eskatzen ziona: direkzio izpirituala

onartzea. Eta onura handiak ekarri zizkiola ez da dudarik. Baina hor dago koxka: baita lor eta nahigabe handien iturri ere gertatu zitzaion. Hona hemen nondik edo nola sortzen zitzaizkion maizenik arrangurok:

1) Berak Jainkoagandik hartutako mesedeak Zuzendariei kontatzen zizkienean, laster igartzen zuen hauek estimu handitan zeuzkatela mesedeok. Orduan buruan jartzen zitzaion bera ez ote zebilen, gero, gezurrak eta asmakeriak kontatzen eta bere Zuzendariak engainatzen. Kezka honek asko artegatu zuen Sorazu, eta frankotan bakarrik bizi izan zeneko urte haien galdu-mina izango du, bakartade zoriontsu hura galdu izanaren damua, alegia.

2) Arimako Zuzendariak inposatu zioten idazteko agindua, eta idazte hori berori izango da antsi eta beste arrangura askoren iturburu bat.

Bai, eta bego hau garbi: Arimako Zuzendariak izan ziren Sorazu idazlanetan sartu zutenak, eta horiei obeditzeagatik egin zituen bere liburuak. (Esan behar da, halere, idazteko trebetasun edo erreztasuna ere bazuela, eta idaztearen gustua edo grina ere ez zitzaiola falta, eta besteei on egin gogoz, bere idazlantxoak eskaini ere inoiz egiten zuela, halako eran, non behin edo behin boskarren Zuzendariak errita egin behar izan zion).

Idazbeharrak Sorazuri sortzen zizkion beharlekuak era askotakoak ziren:

a) Naturaz gaindiko komunikazioak gizartean erabili ohi den hizkuntzara aldatzeak berekin dakar oinaze eta pairu berezi-berezia, guk usteko genukeen baino handiagoa; b) Gainera, lan horretan ibili beharrak otoitzerako nahiko lukeen astia kentzen zion. Eta azke-

nik c) Nekez onartzen zuen bera lan honetan sartua egotea Jainkoak onesten zuenik.

Eskrupuluaren gaitzak joa ote zen, bada, gure Sorazu? Ez dakigu zer esan. Alde batetik, hala ematen du. Askotan edo maiz samar, huts arin bategatik izigarritzko matazan sartzen zuen bere burua. (Ikus, adibidez, *Autob.* 301 eta hurrengo orriak, eta lehen edizioan datorren orripeko oharra, 164. orrialdean).

Beste leku batean Sorazu berak esaten digu:

“Neure kontzientzia izan dut beti neure egintzen salataririk zorrotzena” (Ikus *Autob.* 333).

Bere Zuzendariekin beti “pelma” izan dela lanoki aitortzen du Aita Alfonsori egindako eskutitzetan.

Behin —edo behin baino gehiagotan— esan omen zion Sorazuk Aita Marianori berak ez zuela direkzio izpiritualerako balio. Eta hark erantzun: “Hain zuzen, horretarakoxe bakarrik balio duzu zuk”.

Gainerakoan, direkzio izpiritualaren garrantzia, premia etab. garbi irakatsia utzi digu bere idazkietan⁵.

¹ Aita Marianori egindako eskutitza, 1910-XI-24; *Itinerario Místico de la M. Angeles Sorazu*; vol. I, p. 152).

² Ikus Sorazuren obra: *La Vida Espiritual coronada por la triple manifestación de Jesucristo; Apéndice sobre la dirección espiritual*, c. 2, p. 373ss (lehen edizioan).

³ Ikus *Itinerario Místico de la Madre Angeles Sorazu*, vol. I, p. V.

⁴ Ikus POBLADURA, (MELCHOR DE), *Una flor siempre viva. Sor María de los Angeles Sorazu*; Madrid, 1941; 57. orr.

⁵ Ikus batez ere *Bizitze Izpirituala* deritzon obraren azkenean datorren eraskina.

VI

Sor Angeles, idazle

Hemen, dagoeneko, problema batekin egiten dugu topo, argitzen erraza ez den problema batekin, alegia. Ia bat ere eskolarik ez zuen emakume hau, nolatan heldu zen idazle izatera, eta ez nolanahiko idazlea, guztiz originala baizik? Bere idaztankeran baditu, bai, akats eta huts batzuk; eta hutsok, bestalde, egilea nor den ziurtatzeko, ezaugarri eta bide dira. Eskola gabeko emakumea idazle, bada. Baina Sorazu ez dugu kasu bakarra, guztiz ere Mistika-alorrean. Hor dira, adibidez, Santa Teresa, Ama Agredakoa, etab.

Esan dezagun, hasteko, Sorazuk egin dituen liburu eta idazlan guztietan, bere-berea duen Jainko-esperientzia ari zaigula kontatzen eta hortik du problema honek askabidea.

Zalantza gabe, zerbait irakurria ere bazen, edo zerbait baino gehiago, baina edozein modutan ere, ez asko. Ikasiko zuen —nola ez— baita bere Zuzendariengandik ere. Hartu zuen, eta ez guti, Elizagandik, bere Ordena-

gandik, erlijioso-familiagandik, etab., baina altxor eta iturburu nagusia, aberatsena, bere baitan du, barneko bere esperientzian.

Aurreko kapitulu batean (IV.ean) ukitu genuen eskolara ibili zeneko kontua eta horretaz ez dugu ezer gehitzekorik.

Bere konbertsio-garaian —arteana Tolosan bizi zelarik—, zein liburu irakurri zituen Autobiografian esaten digu. (Ikus *Autob.* 27). Aita San Frantziskoren Bizitzea Tolosan —seguru aski, euskaraz— irakurri zuen. Gero dugu Kempisa: liburu hau ere Aita Jose Cruz Etxeberria frantziskotarrak euskaratua eta Tolosan presiski inprimatua agertu zen 1829. urtean; baliteke Sorazuk euskal itzulpen hau erabiltzea, baina ez da segurua. Aita Arbiolen *La Religiosa instruida* (XVIII. mendeko liburua), Enrique Ossó-ren *El cuarto de hora de oración según las enseñanzas de la seráfica virgen y doctora Santa Teresa de Jesús* (Barcelonan, urte haietan behin eta berriz argitaratua), eta *Reloj de la Pasión*. Horiek denak Tolosan irakurritakoak dira.

Geroago —komentuan sartu ondoko lehen urteetan, alegia— irakurri zituenen zerrenda ere eman digu. (Ikus *Autob.* 70). Aita Alonso Rodríguez-en *Ejercicio de perfección y virtudes cristianas*, *Vademecum carmelitano*, Arnoldo S.J. *De la imitación del Sagrado Corazón*, Juan Eusebio Nieremberg-en *Diferencia entre lo temporal y eterno*, Aita Granada-ren *Escala Espiritual de S. Juan Climaco*, Aita Lapuenteren *Meditazioak*, San Frantziskoren Ordenako *Kronika* (Aita Cornejok idatzia), Aita Belecioaren *Ejercicios Espirituales de S. Ignacio*, Nicolás Causino-ren *Padre Espiritual*, Bagnati-ren *El alma en soledad en un día de retiro de cada mes*. Ikusten denez,

denak edo ia denak dira Aszetika hutsezko liburuak, eta gehienak joan-mendetakoak.

Testamentu Zaharreko liburuak 1907. urtean aurkitu omen zituen (Ikus *Autob.* 71), San Pauloren epistolak, aldiz, 1908an (nahiz eta idazki hauetako pasarteak lehendanik, Brebiariotik ezagutu, baina latinez). 1896. urtean egingo du aurkiketa miraritsua, hots, *Ebanjelioak* herriko hizkuntzan idatziak (Ikus *Autob.* 205).

Hitz gutiz esanik, etxean —komentuan, alegia— ezagutzen eta guti asko erabiltzen ziren liburuak.

Aipamen berezia merezi du Testamentu Zaharreko liburuen artean *Canticum Canticorum*, hots, “Kantarik ederrena” deritzonak. Ezkontzaren irudipean Jainko eta gizonaren arteko amodiozko har-emanen historia ikusi du beti bai Sinagogak eta bai Elizak liburu honetan. Sorazuk bere idazlanetan maiz egiten du liburu honen aipua¹.

Kristau dotrinako liburua eta Ebanjelioak aparteko modu batean estimatu, erabili eta hausnartzen zituela, esan beharrik ez dago.

Baina arestian aipatu dugun lekuan (Ikus *Autob.* 72 eta hurr.), Sor Angelesek aitormen bat egiten digu, guretzat salataria eta esanguratsua dena, hots, zeintzuk liburu gustatzen zaizkion berari eta zeintzuk ez: gustatzen zaizkio Jesusen eta Ama Birjinaren misterioei buruz ari direnak; ez zaizkio gustatzen, aldiz, otoitzari buruzko traktatuak edoeta Mistikako dohain eta fenomenoez dihardutenak.

Aipamen berezia merezi du, baita ere —Sorazuk beti liburu honi aitortu dion estimuagatik—, Ama Agreda-ren *Jainkoaren hiri mistikoa* (hots, “Mística Ciudad de Dios”) izeneko obra famatuak. Obra hau

komentuan, eta erlijioso-bizitzeko lehen urteetan, eza-gutu zuen, eta geroztik atxikimendu handia erakutsiko dio. (Ikus *Autob.* 115).

Baina agian ohar bat egin behar da hemen. Agredako mojarren liburua Ama Birjinaren bizitze bat da, eta, guztiz ere, Ama Birjinak lurrian bizi izan zuen Jainkobidearen eta praktikatu izan zituen bertuteen deskribapena: eta muin hau da, hain zuzen, Sorazuk ikasi nahi eta maite duena. Baditu, ordea, liburu honek, betegarri gisa edo, pasadizo eta anekdota franko, baina horiek alde batera utzirik, zuzenean mamiari lotzen zaio bera, hots, Ama Birjinaren saindutasun-bidea nahi du ikasi, bere burua Ama Birjinaren ikasle eginik. Eta hortik eta horregatik probetxu handia atera eta beti benerezio aparta gordeko dio liburu honi².

Gazteleraren historian ohorezko aipua egiten zaion obra da hau, erdararen erabilera guztiz jasoa baitu. Pentsatzekoa da Sorazuk, obra hori hizkuntza ikasteko asmoz ez irakurriagatik, horretarako ere asko lagunduko ziola. Esanahi handia duen oharra egiten digu, halere, berak: “Liburu sainduak kuriositatez irakurri: horra nik sekula egin ez dudan gauza”³.

Esanik dago, bada, zein zen haren asmo bakarra liburuok irakurtzean: bere saindutasun-bideari erantzuten ikasi, eta horretarako liburuotan zerbait laguntza bilatu.

Baina horrek ez du esan nahi, jakina, bide batez liburu horrek hizkuntza ikasteko eta menderatzeko balioko ez zionik. Bera ere azkarra eta adimen zolikoa zela, ez da dudarik.

Bere mojakide Concepción Prendes-ek esaten digu latina ere ulertzen zuela gure Sor Angelesek⁴. Hori, ordea, “cum mica salis” beharko da hartu. Beti omen ze-

bilen Brebiarioak —eta horiek latinez zeuden— etab. iraultzen, eta beroien edukia zein zen jakiteko, nola edo hala moldatzen zen.

Emakume saindu batzuen bizitzeak ere irakurri zituen: Sta. Veronica de Juliani, Sta. Gertrudis, Senako Sta. Katalin etab., hartako liburuak hirugarren eta boskarren Zuzendariak utzirik.

Mistika-alorreko irakurgaiak ez zituen maite, nahiz eta —edo agian horrexegatik presiski— bere Jainkobidea neurri handi batean taiu horretakoa izan. Gai hauek bere baitan kiribildua egotera eramango ote zuten beldurra zuen, nonbait, eta berak hori ez nahi. Hala ere, boskarren Zuzendariaren aginduz, irakurri zituen, bai Santa Teresa eta bai Doniane Gurutzekoa ere.

* * *

Sorazuren lehen idazlana —gaur galdua—, hark bere kabuz egina, San Joan Ebanjelariaren bizitza izan omen zen, esku-erakutsi gisa berberak bere bigarren Zuzendariari eskainia. Idazkitxo hau irakurriz, ohartzen da Zuzendari hori Sor Angelesek idazteko duen trebetasunaz. Lan hau 1905. urtean edo, idatzi zuen⁵.

Gero, berriz, eta Sorazu berak bihotzean zekarren joera bati erantzunez, Zuzendari horrek berorrek aginduko dio *Amodio Eternalaren historia*, hau da, Jesusen jainkozko historia, idazteko. Hona hemen obra bat Sorazuk beti bihotzean eta gogoan ekarriko duena; behin eta berriz egin eta segituan desegin egingo duena. Azkenik, egin gabe joan zitzaigun⁶.

Baina hirugarren eta boskarren Zuzendariak izango dira Sorazuren obra handien bultzatzaileak. Horien agindu eta sostengua izan ez balitu, berak bakarrik ez

zituen lanok burutuko. Hasi, beharbada, bai, baina egin, desegin, berregin, berriz ezabatu eta hola ibiliko zen beti.

1.- *Autobiografia* —berak *Ene Historia* (“Mi Historia”) deitu zuena— da Ama Sorazuren obra handietarik bat, eta idatzi zueneko urte-mugari begiratu, lehena. Badakigu ongi nola izan zen beronen sorrera eta bai geroztiko gora-beherak ere. 38-40 urte inguru zituen Sorazuk liburu hau burutu zuenean. Eta hau izan zen okasioa: Sorazuk idazkiz bere bizi guztiko konfesio jeneral bat aski luzea egiten dio Aita Marianori. Eta hain zuzen, idazki hori irakurtzean, ohartzen da Aita Mariano Sor Angelesekin idazteko duen trebetasunaz. Orduan, eta horren ondorioz beraren bizitza idatz dezan agintzen dio. 1911. urteko Errege-egunean hasiko da Sorazu idazten eta 1913ko Maiatzaren 17an bukatuko du bere lana. Esanik dago honekin egun horretara arte heltzen zela bere bizitzaren kontaera. Aldi honetan Sorazuk Aita Marianori egiten zizkion eskutitzetan albiste asko dago idazkintza-lan honi buruz: nolako istiluekin topo egiten duen, etab.

1913ko Urrian, berriz, jadanik esana dugunez, Aita Marianoren aldeneraztea gertatzen da. Aldentze hori luzea izango da: ia zazpi urte.

Zuzendariaren jabetasunik gabe zegoenean, Sorazuk, dirudienez, moldadura berri bat eman zion bere lanari⁷. Laburtu egin zituen gauza asko, guztiz ere Autobiografiaren 5. liburuan zetozenak, hots, Ezkontza izpirituala delakoaren ondoren bizitu izan zituen goraldiak: horiek oro Autobiografiatik at geldituko dira. Lehen idazketan baziren, eta gerokoan ez. Zergatik murrizte hau? Itxuren arabera, hau da arrazoa: bere burua fabore goren-goreneko horien objektu bilakatua ikusteak

higuin ematen zion, ezin zuen hori irentsi. Beste alde-tik, bigarren liburua egin zuenetik —hots, *Bizitze Izpi-rituala*— iruditu zitzaion boskarren liburu hori Auto-biografiatik ken zitekeela, gaiok beste horretan daude-nez gero. Eta bai, sartuak daude, baina bigarren obra hau hirugarren pertsonan idatzia da, traktatu gisa, pertsona jakin bati dagozkion zertzeladak oro edo gehienak ken-durik.

Sorazuk, hil baino urtebete lehenago, bere idazla-nen gordelari edo testamentari bat bilatu nahi izan zuen, eta bai aurkitu ere: Aita Nazario Pérez, jesuita, inoiz ezagutu ez zuena, alafede. Hari bidali zizkion —Carrión de los Condes-era— bere lanak. Eta Sorazu hil ondoren, hark argitaratuko ditu.

Autobiografia 1929an argitara zen (Valladolid-en, noski). Esan behar da, ordea, zenbait mozqueta egin zi-tzaiola, hots, pasarte batzuk kendu zizkioten, dela orto-doxia iduriz hobeki zaintzeagatik, dela artean bizi edo hilberri ziren jaun edo emakume batzuen izen ona sal-borik uzteagatik. Bistan da liburua argitara aurretik zenbait aztertzaile edo zentsorek miatu zutela, eta horien aburuari jarraituz, egingo zen mozqueta hori.

Zorionean, Sorazu berak bere eskuz idatzitako au-tografoa gordetzen da, eta horri esker erraz egin daiteke konparaketa argitara zenaren eta egileak egin zuenaren artean. Gaur, egia esan, ez da pisuzko arrazoirik liburu honek mozqueta horiekin segi dezan, eta edizio berrian testua oso-osorik eta egileak egin zuen bezalaxe ematen da. Horrekin Sorazuk, galdu beharrean, irabazi egingo duela uste dugu.

Esan behar da, gainera, Autobiografiaren 5. liburua —Sorazuk birmoldaketa egitean izigarri moztua geld-i-

tu zena— 1929ko argitarapen horretatik at gelditu zela. Segur-aski, Autobiografiaren osagarria edo 2. partea egiten zuenerako utzi zuen Aita Nazariok liburu hau.

Izan ere, Autobiografia Sorazu hil baino 10 urte lehenago bukatzen da. Orduan Aita Nazariok pentsatu zuen osagarria edo bigarren partea erantsi behar zitzaiola, horretarako Sorazuren beraren pasarte, eskutitz etabarrrez baliatuz. Aita Nazario hil zenean (1952. urtean), osagarri hau egina utzi zuen, nahiz eta —dirudienez— azken ukitua eman gabe. Baina ez zen argitaratu. Eta orain, azkenik, agertu da Sorazuren obra eder hau lehen aldiz berak egin bezalaxe eta bai Aita Nazariok paratu zion osagarria ere.

1929ko edizioa aspaldidanik dago agortua eta esan behar da ez direla guti liburu hunkigarri hau irakurri eta bihotz-bihotzez estimutan dutenak. Sor Angelesen ari ma ageri da hor zen bezalakoa, tentaldi, kezka, oinazee-kin etab. eta ageri dira, baita ere, Jainkoak egiten zizkion mesede harrigarriak. Eta guretzat jakingarri dena: Ez dira hauek berari bakarrik dagozkion gauzak. Azken batean, guri dagozkigun gauzak ere badira. Beste hitzez esanik, mezu bat dago hemen, guri zuzentzen zaigun mezua, alegia.

*2.- Bizitze izpirituala, Jesukristoren hiru agerpenez koroatua*⁸.

Ikus dezagun, hasteko, hiru agerpen horiek zer diren. Sorazuk Aita Nazariori 1919ko Urriaren 28an egin zion eskutitzean esaten du San Joanen ebanjelioan datozen hiru pasarteren konplimendua direla. Hona hemen pasarteok: 1) “Ni maite nauena, maiteko du nire Aitak, eta nik ere maiteko dut eta agertuko natzaio” (Jo

14,21).- 2) “Ni maite nauenak, beteko du nire hitza; nire Aitak maiteko du, eta harengana etorriko gara eta bera-
rengan egingo dugu bizileku” (Jo 14,23).- 3) “Egun
hartan ezagutuko duzue Ni Aitarengan nagoela, eta zuek
ere Niregan eta Ni zuengan” (Jo 14,20).

Liburu hau —Sorazuren obra nagusitzat joa izan
dena—, Aita Nazariok 1924. urtean Valladoliden argi-
tara zuen. Bigarren edizioa, berriz, Aita Melchor de Po-
bladura prestatzaile zela, Madrilen 1956. urtean azaldu
zen.

Jakingarria da noiz, zergatik, nola eta noren agin-
duz idatzi zuen, eta zein den beronen edukia.

1918. urtean zen. Aita Alfontso domingotarra zuen
Ama Sorazuk bere arimako Aitatzat. Eta honek utzitako
ohar edo nota batean datoz zertzeladok. Hara, mamiz,
zer dioen: Bere Zuzendari honi egindako kontu-erren-
datze batean Sorazuk 21. Salmuaren irazkin guztiz ede-
rra zekarren, Jesusen Getsemaniko otoitzari buruz. Hori
irakurtzean, Aita Alfontso esan zion bere buruari:
“Honek hau idatzi duen bezalaxe, idatz dezake traktatu
oso bat, arima jainkotiarrek beren Jainko-egarria non ase
izan dezaten”. Eta hala hartu zuen erabakia: bizitze iz-
piritualari buruz traktatu bat idatz zezan hari agintzeko
erabakia.

1918ko Apirilaren 30ean ematen dio Aita Alfon-
tsok agindua eta urte bereko Azaroan bukatua zuen lana
Sorazuk. Zazpi hilabete soil-soilik behar izan zituen. Egia
da liburua ez dela luze-zabalez oso handia —23 kapitu-
lu gehi direkzio izpiritualari buruzko eranskina—. Egia,
baita ere, baliatu zela, bere lana errazteko, egiten zuen
egunkari edo diarioaz. Baita ere baliatuko zen, seguras-
ki, Autobiografiaren 5. liburuaz —gero berak parterik

handienez suntsitu zuenaz—. Hala eta guztiz ere, epe oso laburrean burutu zuela, ezin uka.

Zein da beronen edukia? Obra hau traktatu bat ote da bizitze izpiritualari buruz, ala berak bizitu izan duen bizitze izpiritualaren historia? Traktatu gisa idatzirik dago, noski, pertsona partikular edo jakin bat salatuko lituzketen ipi-apa konketuak kenduz —nahiz eta inoiz edo sarri, erdi ilunetan baino ez bada ere, egilearen ezaugarriak nabari diren—. Egia da beste zenbaiti gerta dakizkiokeen gauzez ere ari dela inoiz, baina parterik gehienez berak ezagutu eta igaro duen bizitze izpirituala da han kontatzen zaiguna.

Dena —bizitze osoa, alegia— nola kontatu, oraindik azken zatia pasa gabe baldin bazuen? Bai, hala da, eta berak ere aitortzen du hori, baina azkena hurbil zen eta azken hori alde aurretik ikusten duen bezalaxe marraztu digu.

Sorazuk “la historia velada” —beraren historia estalia— deitu zion inoiz liburu honi,⁹ eta hala da; berak ibilitako bidea —edo Jainkoak ibilerazi ziona—, bide osoa, alegia, kontatzen zaigu bertan, baina bide hori soildua ageri zaigu, pertsona ezaguterazten dituzten zertzeladez gabetua. Alde honetatik askoz aberatsago eta hornituagoa dator Autobiografia, nahiz eta bizitzearen zati bat bakarrik hartu. Labur: Autobiografia Sorazuren bide-erdian gelditzen zaigu; beste honek, aldiz, bide osoa hartzen du.

3.- *Angeles Sorazu Amaren Ibilbide Mistikoa* (“Itinerario Místico de la Madre Angeles Sorazu”). Ama Sorazuk bere Zuzendari Aita Mariano Kaputxinoari egindako eskutitzak. Aita Melchor Pobladorakoak paratutako edizioa. 3 tomo; Madrid 1942, 1952 eta 1958.

Hau da, noski, Sorazuren hirugarren obra handia, nahiz eta, beste biak bezala, teinkada batean idatzia ez izan. Eskutitzen bilduma bat da. Bere Aita jatorrari egindako eskutitzen bilduma.

Gorago ikusi dugunez, Aita Mariano bi alditan izan zen Ama Sorazuren arimako Aita: 1910-1913 eta 1920-1921. Bi epe horietan egindako eskutitzak ditugu, bada, hemen. Guztira 217 eskutitz; maiz-sarri, oso luzeak. Beroietan Aita jatorrari bere barrenaldea hustutzen dio, hots, arimako istiluak, antsiak, Jainkoagandik hartutako mesedeak etab. Askotan eskutitz hauetan, orduko al-bisteak ezezik, aurreko urteetakoak ere badira.

Gutunliburu honek Sorazuren Jainko-bidea aztertzeko, haren aiurri edo izate-modua ezagutzeko etab., baliorik handiena duela, esan beharrik ez dago. Zenbait izen eta pasarte, ordea, erraz ulert daitezkeen arrazoiengatik, oraingoz argitara gabe utzi ditu edizioaren prestatzaileak.

Prestatzaile hori, Aita Melchor Poblaturakoa, Kaputxinoa, izan zen. Jakingarri da nor zen bera eta nolatan zaletu zen Ama Sorazuren idazkiekin¹⁰.

Gorago esan zenez, Aita Mariano Teologi irakasle izan zen León-en, eta haren ikasleetako bat, gure Poblaturako Melchor. Honek makinaz idazten zekien, nonbait, eta irakasleak ikasleari eskatu zion Sorazuren eskutitzak makinatzeko. Uste ez bezalako mundua ezagutzeko parada gertatu zitzaion gure mekanografo gazteari makinatze-lan hura. Geroztik bere bizitzeko zati-rik hoberena emango du Aita Poblaturak Erroman bere Ordenako saildu-gaien dokumentuak apailatzen; baina Ama Sorazuren kausa begi-bistatik galdu gabe.

4.- *Eskritura Sainduko zenbait atalen azalpena* ("Exposición de varios pasajes de la Sagrada Escritura"), Salamanca 1926. *La Vida Sobrenatural* aldizkarian agertutako artikulua batzuen bilduma. Aita Arintero izan zen aldizkari honen sortzaile eta zuzendari eta bera izango zen, noski, Sorazuren lantxook —berau hil ondoren— aldizkarian atera zituen. Aipatutako aldizkarian 1924-1926ra bitartean agertu ziren.

Sorazuk komentatzen dituen atalak honako hauek dituzu: Isaias profetaren 6. kapitulua; Apokalipsiaren 1-5 kapituluak; San Joanen ebanjelioa, 1; 92. Salmua eta Kantarik Ederrena 2; 5; 6; 7; 8.

5.- *Andre Mariari buruzko idazlantxoak* ("Opúsculos Marianos"). Aita Nazario Pérez-ek Valladolid-en 1928an atereak. Liburu hau bilduma bat da; bertan biltzen dira, alegia, Ama Birjinari buruz Sorazuk egindako idazlan labur batzuk¹¹.

Idazki labur hauen artean bada bat *Ama Sortzez Garbiaren ardi ttipia* izenekoa. Alegori modura egina dago eta, neurri batean, autobiografi kutsua ere badu. Liburuxka hau Aita Alfontso Zuzendari zenean egina da. *Mezuak* ("Mensajes") deritzotenak ere Aita horren berorren aginduz eginak dira, baina ez zituen bururatu.

6.- Zerrenda hau bukatzeko aipa ditzagun, baita ere, Sorazuk Aita Nazariori bere lanak bidaltzean egin zizkion *eskutitzak*. Agertuak daude¹².

Boskarren Zuzendariari —Aita Alfonsori— egin zizkionak ere ez dira guti. Asko Autobiografiaren edizio berrian datoz (bigarren partean edo osagarrian).

Eta eskutitzez gainera, badira oraindik Ama Sorazuren idazlan ttipi batzuek ezagutzea merezi luketenak eta argitara gabe daudenak. Baina bego¹³.

Oharrak

- ¹ Ikus TRIVIÑO (MARIA VICTORIA), *El Cantar de los Cantares vivido en Sor Angeles Sorazu*; Madrid 1989.
- ² Ikus liburu honen edizio berria: SOR MARIA DE JESUS DE AGREDA, *Mística Ciudad de Dios. Vida de María*; Madrid, 1970.
- ³ Ikus *Autob.* 74.
- ⁴ Ikus *Autob.* lehen edizioa, 59. orr., orripeko nota.
- ⁵ Ikus POBLADURA, *Una flor siempreviva*, p. 110.
- ⁶ Ikus POBLADURA, *Una flor siempreviva*, p. 112.
- ⁷ Ikus POBLADURA, *Una flor...*, p. 99.
- ⁸ Lehenago Sorazuk liburu honi *Jainkoaren ekintza* —“La acción de Dios”— ipini zion izenburu, eta nago ez ote zen gerokoa baino egokiagoa, zeren azken batean horixe baita darabilen gaia: Jainkoak arimengan egiten dakizkien gauzak kontatzea. Gainerakoan, Sorazuren bi liburu nagusien artean halako desberdintasun bat nabari da: aurrekoan —Autobiografian— giza alderdia, eta bigarrenean —Bizitze Izpiritualean— Jainkoaren partea —ekintza— azaltzen dela nabarmenkiago.
- ⁹ Ikus Aita Marianori egindako eskutitzak (25-VIII-1920), vol. III, p. 133.
- ¹⁰ Oraindik hilberri da (1983. urtean, 79 urtetako adinaz, Madrilen). Ikus “Por la causa de Madre Angeles Sorazu” orria, 14. zenbakia.
- ¹¹ Ez da ahaztu behar, ordea, Sorazuk bere obra handietan maiz egiten duela Ama Birjinaren aipu. Beraz, Ama Birjinak haren Jainko-bidean izan duen lekua jakiteko, horietara jo behar da.
- ¹² Ikus *Scriptorium Victoriense* (1984), 121-181.
- ¹³ Eskutitz asko egin zituela Sorazuk badakigu, adibidez Caspe-n moja sartu zen bere lagunari, Lerma-n moja sartu zen Caspe-ko organistaren alabari, etab. Gaur zoritxarrez galdutzat eman daitezke. Beste zenbait agertu dira *Scriptorium Victoriense* delakoan eta beste batzuk argitara gabe daude. Aipamen berezi bat mereziko lukete etxekoei —Tolosa-Zumaiakoei, alegia—, Beobide Zumaiako erretoreari etab. egiten zizkienak. Badakigu hartzaileek eskutitz horiek estimu handitan zituztela. Gaur non dira? Galdu ote ziren betiko, ala nunbait gordेरik daude? Ez dakigu. Gerra aurreko *Argia* aste-rokoan (1925-X-18ko zenbakia) “Odieta”k (Juan M. Beobide apaiza) egiten du eskutitz horien aipamena. Guk bilakuntzak egin bai, baina ez dugu atarramentu onik atera.

VII

Jainko-bide arrunten zalea

Ama Sorazuren Jainko-bidean halako antinomia edo kontraesan-suerte bat nabari da, bere bizi guztian zehar berekin ekarriko duen antinomia bat, alegia. Bere aldetik edo bere oldez beti nahiko eta maiteko du Jainko-bide arruntetik ibili eta hortik Jainkoagana joan. Zein da berarentzat bide hori? Jainkoak eta Eliza Amak fededun orori Kristau Dotrina eta Liturgiaren bidez irakasten diona. Beste bideak, hots, desarruntak, ohi ez bezalakoak, pribilegiozkoak, beretzat ez ditu nahi, bel-dur die.

Ordenako Kroniketan irakurritako pasadizoak egin zion zarrasta kontatzen digu. Fraide gazte batek fabore apartak hartzen omen zituen Jainkoagandik, eta gero, azkenean, Ordena utzi eta bere burua urkatzeraino heldu zen, eta dena harrokeriagatik, harropuztu egin baitzen Aita Sainduak erakusten zion begirune eta egiten zizkion ohorezko seinaleekin. (Ikus *Autob.* 171)¹.

Lehenagotik ere, bere bizi guztitik, alegia, dakar Sorazuk joera hau. Bekataritzat dauka bere burua. Badaki, beraz, ohi ez bezalako gauza hauek berari ez dagozkiola. Baina, beste aldetik, hau da kontua: berak nahi ez nahi, horrelako graziak ematen dizkio Jainkoak, eta hori ezin du ukatu. Kosta egiten zaionarren, hori onaritzea beste biderik ez zaio gelditzen. Badaki, gainera, Jainkoak pentsu eta asmo berezi-bereziak dituela bere alderakotzat.

Nola elkarrekin lotu bi hari-mutur hauek, hots, berak nahiko lukeena eta Jainkoak beretzat nahi duena? Kontraesan edo ezin konpondu hau nabari da Sorazuren portaeretan. Lotsa eta higuin da bere barneko sentipen goitarrak eta hartzen dituen faboreak aitorle edo arimako Zuzendariei azaltzeko. Jadanik dakigunez, Jainkoaren borondateari muxin eginez egon zen urte luzetan arimako Zuzendari gabe, eta dena barneko fabore jainkotiar horiek ez agertzeagatik. Are gutiago kontatzen zizkien gauza horiek moja lagunei edo beste inori.

Jainkoak, ordea, berak nahiko ez lukeen bidea segitzen du berarekin. Beharko etsi, bada, nahiz eta berezko joera hori betiko gordeko duen. Sorazuren hobespenak erregebide zabal arruntarentzat izango dira beti, hots, “caminos trillados” direlakoentzat².

Salmuan datorren harako bertso hura uste dugu gogotik hartuko zuela beretzat Sor Angelese:

- “Jauna, nere bihotz hau ez dago harro,
- Begiak ez dauzkat behar baino gorago.
- Ez nabil gauza handien atzetik,
- ni baino gorago dauden harrigarrien atzetik”³

Zehazki hitzeginez, ordea, zein da Sorazurentzat Jainko-bide arrunt hori? Kristau Dotrinan, katezismo ttipi mezprezatu horietan azaltzen zaiguna. Ez dezagun ahaztu. Hiltzera zihoanean katixima horietako bat aldamenean zuela lur eman zekiola eskatu zuen. Liburuska horren muina behar zela norbereganatu, ondo ikasi eta praktikara eraman, hori bihotzean ondo sartua zuen. Norberak bere bizitzea kristau dotrinaren eskakizunen arabera behar duela taiutu: horri etxea Jesukristogan finkatzea deritzo berak, edo, berdin dena, etxea arroka sendo baten gainean eraikitzea⁴.

Zumaian haur ttipi zenean erne zitzaion Sorazuri Kristau Dotrinaganako zaletasuna. Florentxi Dotrinan beti aurrenengo zela esaten digu neskato ttipien ardura zeukan mojak (Encarnación Ugaldek)⁵.

Gero, Donostian bizi zeneko aldian, eskola-maistra ohartu zen, nonbait, neskato hark Kristau Dotrinako gauzak azaltzeko zuen dohainaz eta behin baino gehiagotan eskatu zion gauza horietaz besteen aurrean hitz egin zezan. (Ikus *Autob.* 131).

Bere idazkietan Sorazuk maiz egin ohi du Katiximaren aipamena. (Ikus beste pasarte askoren artean, *Autob.* 337). Gau iluneko aldi hartan, Ama Birjinaren konpainian, egingo dizu berak “Kristau onaren eta erlijiosa onaren ariketa” deitzen zuena. Zer zen hori, ordea? Kristauak eta erlijiosak bete behar dituen gauzak luze eta sakonki hausnartzea. Katiximatik eta Ordenako Erregelatik hartzen zituen hartarako gaiak (Ikus *Autob.* 105). Baita ere esango dizu katixima beti bihotz ondoan daramala bere espos maitearen oroigarria bezala (Ikus *Autob.* 132).

Hementxe dugu, zalantza gabe, Sorazuk segitu duen Jainko-bidearen hezurmuina eta giharra. Eliza Amak bere seme-alabei eskaintzen dien laburbilduma hau seriocki eta benetan aintzat hartu, ikasi eta beronen eskakizunen arabera norbere bizimodua taiutu.

Sorazuk zangoak beti lur gainean ditu. Ez da amets zoroetan ibiltzen zalea. Ameskeriak ez ditu maite. Dohain mistikoen gutiziarik ez du batere; aitzitik, gauza miraritsu eta desarrunt horietatik ihesi bezala ibiliko da. Berak badaki —Ama Birjinak irakatsirik— Jainkoa behar dela interesik gabe, beste deusen ametsik gabe, maitatu eta zerbitzatu, beste sariren antsi gabe, alegia, Berbera baita saririk aski. Eta bere mojak, batez ere gazteak, bide horretatik gidatu eta eskolatuko ditu.

Mistika dela eta ez dela, baziren garai hartan, elizgizon eta erlijiosoen artean batez ere, eztabaida zaratsuak, Aita Arinteroren eraginez sortuak. Kristau guztiak ote gauden dohain horietara deituak, dohain horiek iristean ipini behar ote den jomuga, etab. Berri-airera duten uste horien aurrean atzerakoi agertzen zaigu bera. Are gutiago nahiko du bere komentuko mojek burutapen horiekin nahas daitezen. Kristau errepide zabaletik desbideratzeko arriskua egon zitekeela hor gorderik somatzen du eta beldur da.

Sorazuk ezagutu zuen Aita Arintero —bere azken Zuzendariaren bitartez, segur aski—; hark bere komentuan inoiz Ejerzizioak ere eman zituen, baina puntu honetan Sor Angeles beti hotz eta motz eta menargaitz agertuko da. Eta mistika gaiez Arinterok egiten zituen mintzaldiak ez zitzaizkion gustatzen⁶.

Arrazoi berberagatik, dirudienez, ez zituen deitzen, kuarta tenporetako aitorle izateko, Medinako klarisetan

kaperau zeuden bi frantziskotar: Mariano Martinez eta Leonardo Cardeñoso. Bazekien, alabaina, bi fraide horiek Arinteroren eskolari atxikiak zirela eta beldur zen bere mojen buruak nahastuko ote zituzten.

Moja gazteak hezitzeko erabiltzen zituen liburuak guztiz tradizionalak ziren: Aita Alonso Rodríguez, Ama Agredakoa, etab. Eta katixima, noski. Elizak urtean zehar bere liturgian aurkezten dizkigun festa eta misterioak hartzen zituen mintzagai moiei bere mintzaldiak egiteko. Hau zen berak maite eta gomendatzen zuen bazka, hazkurria.

Esanik dago honez gero Mistika-gaiez ari diren liburuak ez zitzaizkiola gehiegi gustatzen, inoiz edo, Zuzendarien aginduz, horietako batzuk —Avilako Teresa, Doniane Gurutzekoa— irakurri bazituen ere. Mistikako grazia edo dohainei buruz ziharduten hitzaldiak entzutea ere ez zitzaion laket. Beldur zen, nonbait, gauza horietaz pentsatzen hasiz gero, bere baitan kiribilduko ote zen eta egoismoan eta badaezpadako trikimailuetan eroriko. Bazekien kristautasunaren funtsa amodioa dela, hots, Jainkoa eta lagun hurkoa maitatzea; eta horretarako behar dela norberagandik ilki eta egoismoa garaitu.

Goitik hartzen zituen dohain edo mesedeak gutietsi egiten zituen. Ez zuen horrelako gauzetan bere arreta jarri nahi. Halako mesfidantza du, engainutan eroriko ote den beldurra, alegia. Eta arrisku horretan ez erortzeagatik, beharbada urrutiegi joan ohi zen; beste puntako arriskuan erortzeraino, alegia.

Jainkoaren graziak behar dira estimatu eta aintzat hartu, eta hain zuzen, hori ikas zezan, arimako Zuzendarien laguntza-beharrean zen. (Ikus *Autob.* 263, 266). Hori gora-behera, ordea, beti izango du halako mesfi-

dantza bat, gezur eta amarrukerien pean eroriko ote den beldurra. Eta mesfidantza horrek maiz gerta ohi diren irudipenetatik begiratu zuen.

Gau iluna igaro duenetik badaki Sor Angelesekin Jainko-zale jator izateko behar dela norberagandik ilki, norbere burua ahaztu, eta amodioa norberagandik kanpo den norbaitengan jarri. Horregatik, hain zuzen, maite ditu Jesus eta Mariari buruz diharduten liburuak, eta ez ditu hainbeste maite Mistikako dohainei buruz ari direnak. Gainerakoan, Sorazuren bizia guztiz otoitzera emana izan da, baina guk dakigula, ez du otoitz-metodo jakinik erabili eta ez idatzi ere. Eta otoitz egiten ikasteko erregelak ematen dituzten liburuak ez zitzaizkion laket. (Ikus *Autob.* 72).

Debozio bereziak, bai, bazituen: gurutzbidea, errosarioa, imajinenganako eta prozesioetarako jaiera, aingeruenganako jaiera, Sagrarioan presente dagoen Jesusen aitzinean otoitz egitea, Jesus eta Mariari beren bizitzeko misterioetan laguntzea eta horretarako hildurak eta penitentziak beregain hartzea, etab.

Baina hor dago kontua: berak bere oldez kristau bide arruntak maitatuagatik eta hortik ibili nahi izanagatik, Jainkoak ohi ez bezalako bidetik sarrarazten baldin badu, beharko etsi, eta azken batean hori gertatu zitzaion. Eta beti geldituko zaio Jainkoak berari egiten dizkion dohaiengan begiak jarri nahi eza. Horietaz idazteko, ordea, beharko jarri...

Sorazuren sentiberatasun hau salatzen duten parrasteak ugari dira. Bat soilki aipatuko dugu, Aita Marianori egin zizkion eskutitzetatik hartua:

“Ez, neure Aita, ez; deusek ere ez du ene bihotza hunkitzen, Jainkoaren, ene Jainko Bakoitz eta Hirukoitz

eta Beraren Hitz gizon eginaren aintzaz landara. Hau da nire amodioaren motibo bakarra, nire asmo bakarra eta nire helbururik gorena. Sinets beza, Aita, zintzotasun osoz esaten diot berorri; nire arimak ez du bizi-seinale-rik ematen bere amodio eta bizia denaren loria eta zoriona ikusi eta horretzaz mintzatzen ez zaion bitartean, hots, Jainkoa eta Haren Seme bakar gizon egina.

Une honetan baletozkit ni ikustera mila aingeru eta bakoitzak pitxi bana ekarriko balit nire arima apaintzeko —era horretara Jainkoaren aurrean ni maitagarriago bihurtu nahiz—, zinez gustatuko litzaidake eta estimatuko nituzke pitxiok nondik heldu diren eta zertarako ematen zaizkidan jakinik.

Baina horrek guzti horrek baino gehiago poztuko ninduke eta nire arima bozkarioz gainezka bete eta adore berriak hartuko lituzke, baldin Aingeru bakar bat etorri eta Jainkoaren edo bere Hitz gizon eginaren bikaintasun azkengabeaz eta perfektasunaz albiste argiago bat ekarriko balit. Hori, hori da neri interesatzen zaidana, ni santutzen nauena, neri bizia eta zoriona ematen didana”⁷.

Ama Sorazuk bere obrak jesuita bati —Aita Nazariori— utzi bazizkion, hori badakigu zergatik izan zen: Aita hau Andre Mariaganako jaieraren zale eta zabaltzaile zelako; behin eta berriz esango digu, gainera, Ama Birjinak berak adierazi ziola obrok Aita horri uzteko. Baina hori bat ere ukatu gabe, badira zantzuak beste arrazoren bat ere izan zuela susmatzeko: kristau izpiritualitateari buruz eta Mistikaren auziari buruz orduan ziren eztabaidetan, Jesuitek sostengatzen zituzten ikuspuntuak zuzenagoak eta egiazkoagoak zirela iruditzen zitzaiolako. Beste batek argitaratuko balitu, agian bere betaurrekoen

koloreez jantziak agertuko lituzke idazkiok eta berak ez zuen hori inondik ere nahi.

Labur. Ama Sorazuk kristau bide jator-arrunta nahi du, hots, Jainkoa interesik gabe maitatzen eta bilatzen duena: “zarena zarelako”, alegia. Mistikako dohainen gutizia pizteari eta gauza horiek gehiegi aldarrikatzeari ez deritzo ongi. Besteak beste, desbiderapen eta ameskerien arriskua ikusten du hor.

* * *

1961. urtean liburuska bat atera nuen euskaraz Sorazuri buruz: *Nere izena zan Plorentxi*. Artean euskaldun bat zen Valladolidko Artzapezpiku: García Goldáraz jauna (hernaniarra). Ale bat eskaini behar niola bururatu zitzaidan. Joan nintzen eta berarekin egoteko aukera izan nuen. Beste gauzen artean, Ama Sorazu “zoriontsu” (beata) izendatzearen kontua aipatu nion. Eta gogoan dut zer erantzun zidan: —Hara, behien bidetik zerura doazenak, horiek ditut maite nik; besteak, ohi ez bezalako bidez dabiltzanak, ez hainbeste...

Ez dakit zer erantzun nion. Baina ikusi dugunetik garbi ageri da Ama Sorazu eta García Goldáraz jauna gustu berekoak zirela. Bai horixe!

Beste hitzez esanik: objektibitatea, egia maite zuen, eta ez norbere nahikerien atzetik ibiltzea. Elizak irakatsitako erregebide zabal-arruntak, ez besteak.

Eta irakaspen honek badu gaurkotasunik guretzat.

Gaur egun Ebanjelioa faltsutu eta zor ez zaizkion jantziekin aurkezte kontuan maisu eta txapeldun bihurtu gara. Jainkoa eta Ebanjelioa geure plegu eta nahikerietara ekarri nahi izaten dugu. Eta hori ez da bide ona.

Sorazuk, aldiz, Kristok eta Eliza Amak irakatsitako bi-deak, eta ez besteak, nahiko ditu ikasi, bizi eta irakatsi. Eta hain zuzen, horren beharrean gara. Geure nahikeriak bazterrerat utzi eta berri ona den bezalakoa, bere gazi-gozoarekin onartzen ikasi beharrean.

¹ XVIII. mendeko Damián Cornejo-ren *Chronica Seraphica* delakoan dator istorio hau. Sorazuk jatordu-aldian egiten zen irakurketan entzungo zuen, segur-aski.

² Ikus *Bizitze Izpirituala*, cap. V, 6, 61. orr., bigarren edizioa.

³ 130. Salmua.

⁴ Ikus *Bizitze Izpirituala*, cap. V, 6, 61 orr., 2. edizioa.

⁵ Zornotzakoa zen moja hau eta neska tipiei beti euskaraz hitz egiten omen zien. Julene Azpeitiak esan zigun berak ere maistra hau berau izan zuela.

⁶ Ikus Aita Marianori egindako eskutitza, 1920-V-1920; *Ama Sorazuren Ibilbide Mistikoa*, III, 21-22 orr. Eskutitz horietan bada hartako pasarte gehiago ere.

⁷ 1921-I-17an egindako eskutitza. Ikus *Ama Sorazuren Ibilbide Mistikoa*, III, 253-254 orr.

VIII

Andre Mariaganako jaiera

Hara lagun bati behin entzuna: elorri-arantzearena dela txertaketa egiteko mendurik onena. Eta hain zuzen, horrexegatik agertu zela Arantzazuko Ama elorri gainean. Jainkoaren bizia gizonarengan txertatzeko Andre Maria dugulako mendurik onena, alegia.

Ez dakit elorriaren kontu hori hala den, baina ondorioaz guztiz dator bat Ama Sorazu. Andre Maria da Sorazurentzat Jesus eta Jainkoa guregan txertatzeko mendurik onena. Eta hauxe izango da, segur aski, bere esperientziatik atera duen irakaspen nagusia.

Andre Maritar kutsuko Jainko-bidea duela: hau da Sorazuren bereizgarriarik ezagunena, gehienik zabaldu dena.

Ama Birjina dugula Kristo eta Jainkoaganako bide jator, zuzen eta eroso, hori irakasten digu, bada, Sorazuk. Lezio hori berari gertatu zaionetik ateria du, handik ikasia, alegia. Tolosan zegoeneko garaikoak dira lehen zantzuak. Irakurri besterik ez dago Tolosako pa-

rrokiaren sakristiko ategainean pintaturik dagoen imajinaz eta hura ikustean somatzen zuenaz dioena. (Ikus *Autob.* 55).

Baina Sorazuren bizitzean bada une jakin bat, alde honetatik begiratu, mugarri-antzo dena, hots, moja-profesa egin zuenekoa: 1892ko Urriaren 6a. Egun horretan —edo hobeki esan, handik bi egunera— Ama Birjinari egiten dio bere buruaren konsagrazioa. (Ikus *Autob.* 58). Sorazuk, alegia, Ama Birjina hartzen du bere Erregina, Nagusi, Maistra, Zuzendari eta Amatzat, eta gure Jaunari eskatzen dio birrets dezala, arren, hitzarmen hura. Sorazuk hitz ematen du alaba zintzoa izango dela eta Andre Mariari eskatzen dio Ama izan dadila. Bere erlijioso-bizitzeko geroa Ama Birjinaren eskuetan uzten du fidatuki, uste osoz.

Sorazuk esango digu, gainera, egun hartan egin zuen hitzarmen-moduko hura bere kabuz edo bere oldez egin zuela, ez zuela inork hartaratu, ez zela izan inon ikasi, ikusi edo irakurritako zerbaiten ondorio, barne-barnetik irten zitzaioa, alegia. Eta handik harat hasi zen hitzarmen hori betetzen. Moja-bizimoduko zereginetan Ama Birjina hartzen zuen eredu eta ispilu, hari eskatzen zion argia, azaltzen zizkion bere ezbai, nahigabe eta boz-karioak, dena egiten zuen berarekin har-emanetan zela.

Esango digu, azkenik, hauxe izan zela Jainkoak bere ariman eraikitako etxe izpiritualaren oinarritzko lehen harria (Ikus *Autob.* 61). Urte asko geroago, hots, 1913 edo 1914ean, ezagutuko du Sorazuk Aita Nazarioren liburua (“Vida Mariana”), zeinetan bide paretua gomendatzen baita, baina horiek geroztikako kontuak dira. Berak —eta bai beraren eraginez bere komentuko moja

askok ere—, Andre Maritar kutsuko bizikera hau lehenagotik hartua zuten¹.

Handik bi urte eskas, sartuko da Sor Angeles gau ilun bortitz haretan. Eta bere bizitzeko gertaldi honi dagokiola, esango digu² dudarik gabe goi eraginaren fruitua izan zela Ama Birjinari egin zion kontsagrazio hura, eta Jainkoak mesede hori egin ziola gau iluneko hertsuretan garaile irten zedin amoreagatik. Eta bai Autobiografian eta bai Bizitze Izpiritualean ere kontatuko digu zenbaterainokoa izan zen Ama Birjinagandik orduan jaso zuen laguntasuna. Argi, gida, konpainia, poz eta indar, dena aurkituko du Sorazuk Ama Birjinarengan.

* * *

Ama Birjinagandik hartutako irakaspenetan berak gehienik azpimarratzen duena honako hau da, alegia: Jainkoaren zerbitzuan nolako asmoekin eta zer-nolako plantaz sartu behar den, hots, interesik gabe, sari-kutiziak alde batera utzirik. “Andre Mariak irakatsi zidan—esango digu— amodio huts-garbiaren jakituria”, eta hau izan zen Jainkoaren erreinua ariman sendo ezartzeko bidea. (Ikus *Autob.* 129).

Nolatan, ordea, irakatsi zion hori Ama Birjinak? Sor Angelesek Ama Agredaren liburua (*Jainkoaren hiri mistikoa*) irakurtzen zuen, eta irakurtze hura —gainerako gauza guztiak bezala— Ama Birjinarekin elkarturik egiten zuen. Irakurgaiak alde batetik, eta goitik hartzen zituen argiak bestetik, eman zioten, bada, berak jakintza edo jakituria deitzen duen hori. “Zarena zarelako”: Kristau dotrinan datorren hau, Jainkoa, alegia, sari-kutiziarik gabe behar dugula maite eta zerbitzatu, jakintza

honek, Andre Mariari esker, erro sakonak egingo ditu orain Sorazuren bihotzean.

Estimaziozko amodioa (“Amor estimativo”) ere deitzen dio Sor Angelesekin amodio-mota honi. (Ikus *Autob.* 100-101). Eta gezurra badirudi ere, bozkariorik garbienak izaten zituen, horri esker, noizbehinka. Hortik du sorrera Ama Sorazurengan hain usu nabari den “onginahizko atxekimenduak” (“afecto de complacencia”). Zer da berau? Jainkoa zoriontsu delako poz hartzea, dituen “tasun” edo bikaintasunak dituelako atsegintzea. Eta onginahizko atxekimendu hori dela medio, bera ere Jainkoaren “tasun” horien nolabait partaide eta jabe izatera helduko da.

Jainkoaren “tasun”ekin ezezik, baita Ama Birjinaren pribilegioekin ere gauza bera egiten zuen Sorazuk: horiek direla eta, poz hartu eta poz horren bidez pribilegio horiek beretu, beretakotu. Xahuketa eta lixiba gaitza burutu zen gau ilun haretan, eta Ama Birjinaren laguntasunaz Sor Angeles zeharo bestelakotua aterako da handik. Labur esanik: epe horretan aurrerapen miragarriak egin zituen Jainko-bidean, hots, oinarri sendoak ipini zizkion etxeari.

Eta horra oraino beste sentipen bat, iturriari ura darion bezala, Sor Angeles-i usu eta berez bezala atera ohi zaiona, hots, eskerrona. Jainkoari, dituen dohainengatik eskerrak emango dizkio eta dohain horiek beroiek Jainko horri berorri opa izango dizkio. Eskerrak emango dizkio baita Ama Birjinari eman zizkion pribilegioengatik ere. Eta aparteko modu batean, eta gizadi osoaren izenean, bihurtuko dizkio eskerrak Jainkoari bere Semea gizon eginik eman zigulako, etab. (Ikus *Autob.* 389). Maiz-sarri azaltzen dira honelako sentipenak Ama Sorazuren idaz-

kietan eta Ama Birjinaren eskolatik ikasiak ditu. Giza-kiarenak baino areago, aingeruenak dirudite.

Ama Birjinaganako ekarritasunak eramango du Sor Angeles Amaren imitaziora eta Hari bere bizitzeko misterioetan lagun egitera. Urte luzetan (1895tik 1911ra gutigorabehera) Jesus eta Mariaren bizitzeko misterioen kontenplazioa izango du bere hausnargai nagusi. Eta kontenplatze honetatik sortuko zaio Jesus eta Mariari beren pobretasun eta apaltasunean imitatzeko gogo. Ez gogo bakarrik, beharra, behar gorri-meneraezina ere bai. Behar horrek eskaturik inposatuko dizkio bere buruari hainbeste laztasun eta hildura: baraua, hotz eta beroaren kontrako babes-gabezia, loari zenbait ordu ebastea, etab. Hori ez egitera ezin zuen etsi.

Behin, osasunez oso mazkal zela eta, orduko Abadesa-ordeak medikuari hots egin zion eta honek tratamendu bat agindu zuen. Hainbat okerrago. Azkenean fraide bat tartekatu zen, eta horri esker baketan utzi zuten. (Ikus *Autob.* 372).

* * *

Aita Nazarioren *Vida Mariana* liburua irakurriz etorri zen Sorazu San Luis Grignon de Montfort eta beronen Andre Mariarekiko dotrinaren berri jakitera. Horra zer esaten dion Aita Nazario horri eskutitz batean:

«Aitortzen dut, ene Aita, ikusi dudala eta era miragarritz betetzen ikusten ari naizela, Luis dohatsuak (hau da, Grignon de Montfort) dioena, hots, Ama Birjinak beti “Jainkoa” dioela, eta Jainkoak beti “Maria”»³.

Sor Angeles-ek, Abadesa izendatu zutenean, kapitulu osoaren aitzinean baldintza bat jarri zuen kargu hori onartzeko, hots, Komunitateak Ama Birjina Abadesa-

tzat har zezan. Komunitateak baietz esan zuen, noski. (Ikus *Autob.* 387-388). Sorazuk baino lehenago gauza bera egina zuen Ama Agredakoak eta handik hartu bide zuen Sorazuk burutasun hau. Baina harentzat ez zen hori hitz alferra. Karguko zeregin guztietan nahiko du Ama Birjinaren ordezkari, mandatari eta neskame izan. Eta hala erakarri zituen etxe haren gain hainbeste be-deinkapen eta zorion.

Bada Sorazuren bizian aldi bat, zeinetan bai Aingeruak eta bai Sainduak ere —salbu Ama Birjina— ezkutatzen baitira eta ez dira gehiago Jainkoaganako bitarteko gertatzen (1905. urte aldera hasten da aldi hori). Ama Birjinak, ordea, bai, segitzen du⁴.

Geroago, berriz, —Ekainak 11, 1911— ezkontza izpirituala deritzon maila horretara izango da altxatua, eta orduan ere grazia hori Ama Birjina bitarteko dela, hartuko du⁵. Handik aurrera Jainko Bakoitz eta Hirukoitzarekin izango ditu har-eman zuzen-arteak. Baina geroago —eta hau du Sorazuk ondare berezi eta bereberea—, 1916-1917 aldera, berriro azalduko zaizkigu Jesus Jainko-gizon eta Haren Ama Sor Angeles-en mistik egoitzarik gorenetan⁶.

Amaigabeko jardunean sartuko ginateke Sorazuren idazkietan Ama Birjinarekin zer-ikusi duen guztia hemen jaso behar bagenu, baina ez da beharrezko eta ez posible ere dugun toki mugatu honekin.

Gauza bere lekurtzeko, lot gakizkion puntu nagusi honi, buruzagia baita: Zein da Ama Sorazuk Ama Birjinari buruz erakusten duen iritzia? Sorazuk badaki, noski, Ama Birjina ez dela jainko bat; badaki, alegia, kreatura bat dela, Jainkoak ezerezetik sortua. Baina badaki, baita ere, Ama Birjinak baduela Jainkoaren as-

moetan leku eta zeregin bat guztiz aparta bere Seme Jesusen ondoan.

Ama Birjinaren bitartekotasun orokorra defenditzeko Espainian egin zen lehenbiziko botua Ama Sorazu eta beronen Komunitateak egin zuten 1918ko Abenduaren 15ean. Sorazuk ez du sekulan buru-hausterik izango eta ez zaio gogotik pasako ere Jesusen Arartekotasun bakarrari Andre Mariarenak itzal egin diezaiokeenik, bai baitaki Ama Birjinak beti Jesusengana zuzentzen gaituela.

Honako hau ere esango digu: Jainkoak gu Bera-rengana erakartzeko duen indar liluragarri eta xarmagarri hori, itxuren arabera, Ama Birjinari pasa egin dio-la. Esperientziaz antz eman omen dio horri. Horrek ez du esan nahi Ama Birjina Jainkoa baino xarmagarriagoa dela: hori ez. Baina esango digu berak frankotan borrokatu duela Jainkoarekin, Hari jarkiz edo buru eginez; Ama Birjinarekin, ordea, inoiz ere ez⁷.

* * *

Andre Mariaren auzi honek ere badu gaurkotasunik guretzat. Guztiok dakigu, egoki ez diren gehiegikeria batzuen aitzakiaz edo Ekumenismoaren izenean edo Kristo Ararteko Bakarraren estakuruz, baztertu edo itzaldutako nahi izan dela Ama Birjinaganako jaiara. Mariaren aintzak bere Semearenari kalte egingo balio bezala. Arrazoi horiek, ordea, ez digute ahanztu arazi behar Andre Mariak baduela Jainkoaren asmoetan leku eta zeregin bat guztiz aparta.

Aita Mariano Acebal Lujanek esan duenez,

“Sorazurentzat Andre Mariarena debozio bat baino gehiago izan zen. Haren ibilbide izpiritualeko lehen

urratsetan jomuga nagusi izan zen. Harentzat Ama Birjina da Jainkoarekin lotzen gaituen zubia; Hura dela medio kokatzen gara Berarengana daraman bidean; eta bide hori Kristo da, noski. Sorazuk ez du sekulan bereizkeriarik egiten Mariagandik eta Kristogandik hartzen dituen irakaspenen artean. Esan genezake, hortaz, irakaspen hau —Kristorena— bestearen —Andre Mariarenaren— barruan dagoela”⁸.

Alda ditzagun, bukatzeko, Sorazu beraren honoko hitz hauek:

“Ama Birjinari konsagratu nintzenetik ez dut egundo separatu Jainkoa Ama Birjinagandik eta ez Ama Birjina ere Jainkoagandik”⁹.

¹ Ikus Aita Nazariori egin zion lehen eskutitza, 1919-X-23koa; *Scriptorium Victoriense* (1984), 132.

² Ikus *Bizitze Izpirituala*, VI. kap., 82 orr. (lehen edizioa).

³ 1919ko Azaroaren 16ko eskutitza; *Scriptorium Victoriense* 31(1984), 148.-SAN LUIS MARIA GRIGNION DE MONTFORT, *Obras*, Biblioteca de Autores Cristianos 451; Madrid 1984.

⁴ Ikus *Bizitze Izpirituala*, cap. XI, p. 140, lehen edizioa.

⁵ Ikus *Bizitze Izpirituala*, cap. XV, p. 168, lehen edizioa.

⁶ Ikus *Bizitze Izpirituala*, cap. XXI, p. 295 leh. ed.

⁷ Ikus Aita Nazariori egindako eskutitza, 1919-XI-16; *Scriptorium Victoriense* (1984), 146.

⁸ Ikus *Dictionnaire de Spiritualité*, art. “Sorazu”.

⁹ Ikus *Autob.* 110.

IX

Jainko-Seme gizon eginari atxikia

Sor Angeles gau iluna jasaten ari zen aldikoa da honoko pasadizo hau. Ama Agredaren liburutik zerbait irakurri ondoren, Testamentu Zaharreko arora aldatua izan dela iruditzen zaio, hots, Patriarka eta Profeten arora. Alde batetik, Jainkoaren presentzia somatzen zuen eta hortik atsegin bizia hartu ere bai, baina beste aldetik, bakartade itzelean aurkitzen zuen bere burua, eta bere xedea, sortua izan zeneko xedea —hots, Jainkoaren beraren jabe izatera heltzea— irist ezina zela igartzen zuen, eskura ezina. Zergatik eskura ezina? Gizakundea, hots, Jainko-Seme gizon egina falta zelako, zurubirik ez zelako, alegia. Ederki bai atxeman duela Sor Angelesek Gizakundeak gizonaren azken xedea lortzeaz duen lotura! (Ikus *Autob.* 115-117).

Jesus Mariako komentuan bizi zeneko kontua dugu beste hau (Ikus *Autob.* 205). Egun batez liburu batzuk beren tokian jartzen zebilen moja liburuzainari laguntzen ari da Sor Angeles. Dagoeneko, azal arruntezko li-

buru batera dihoakio begia: —Zer liburu da hau?, galdetzen dio liburuzainari. Eta hark erantzun: —Ebanjelioak. Bai. Ebanjelioak herriko hizkuntzan (erdaraz, noski). Hura bihotzeko pilpira, berri honekin Sorazuk hartu zuena! Ordura arte ez zekien horrelako libururik bazenik ere. Beren lana bukatutakoan galdetzen dio liburuzainari: —Eraman ote nezake liburu hau gelara? —Bai, noski.

Haren poza eta harridura Ebanjelioak eskutan hartu, bere gelara eramán eta beroien irakurketan murgildu zenean! Ebanjelioen aurkiketa hau 1896. urtean gertatu zitzaion. Handik harat Ebanjelioak eta Kristau Dotrina izango ditu libururik maiteenak.

Gorago esana dugu nola Sor Angelesen bizitzean baden aldi bat luze samarra, zeinetan Jesus eta Mariaren misterioen hausnarketa izango baitu jarduera ia bakarra, 1896tik 1911ra. Andre Mari Martiko, hots, Martxoak 25a zuen festaburu ospetsuenetako bat, egun horretan Jainko-Semearen gizon egitea ospatzen baita. Hortik hasi eta Igokundeko egunera arte, Jesusen pausuak banan-banan hausnartzen zituen.

Lorezaintzan aritu zenean, eguzki-lorea zeukan bere arimaren ispilu jatortzat. Lore hau eguzkira buruz egon ohi den bezala, halaxe Sor Angeles ere beti Jesusi begira. Eta eguzkia sartzen deneko, eguzki-lorea triste eta mazkal jartzen den bezala, halaxe bera ere Jesus Igokunde egunean begi-bistatik galtzen zuenean. (Ikus *Autob.* 226).

Jesusen misterioen gogoeta honek izango ditu leku hautatu edo gailur batzuk, hala nola jaiotza, haurtzaroa, bizitze isila eta batez ere Pasioa. Baita ñabarduretan al-

daketak ezagutu ere: orain, alegia, ikusalde bat izango du maiteen, gero beste bat, etab.

Sagrarioan presente dagoen Jesus nahiko du mai-zenik otoizgai hartu, han lagun egiten dioten Aingeruekin bere burua bat eginik. Jesus Artzain Onaren goitizena ere izango du maiteenetako bat, eta nola ez, *Jesus* izena bera, noski. Pasioak, ordea, erakartzen zuen gehienik. Baina bego. Amai gabeko kontua litzateke, dena esan behar bagenu.

Guztiz gogoangarria da 1906. urtean gertatu zitzaiona. Arimako Zuzendariak (José Hospital) Jainkoaren Izate huts-soila —hots, “el Ser de Dios”— otoizgai hartzeko agintzen dio. Hura kinka larria gure Sor Angelesentzat! Ez daki ez nondik hasi eta ez zer egin. Jesusen gizatasuna, hots, humanitatea, izan du beti Jainkoagana bide eta orain bapatean Jainko hutsarekin har-emanetan hasteko agintzen zaio. Ezin, inondik ere.

Erabat elkor eta arranguratsu dabilela, horra non Jesus agertu eta berri zoragarri hau ekartzen dion: “Izua ematen dizun lurralde horretan, Jainkoaren lurraldean, Ni Neu nauzu Agintari...” Haren poza hori jakitean! Lagun edo ezagunik ez duzun lurralde arrotz batean gertatuko bazina, eta bapatean adiskide min batekin topo egin eta adiskide hori bertako jaun eta errege dela entzun, entzute horrekin hartuko zenukeen bezalako poza hartu zuela esaten digu. (Ikus *Autob.* 450).

Berdin edo areago da gogoangarri Zuzendari berbarekin gertatu zitzaion beste hau. (Ikus *Autob.* 476-477). 1907. urtean zen. Sor Angeles osasun-aldetik oso gaizki dago. Aldikada hartan Jesusen Pasioa du otoizgai. Ustez eta haren osasunerako gai hori kaltegarria dela, eta

gaitza hortik datorkiolakoan, agintzen dio Pasio-kontuok burutik ken eta murgil dadila Kristoren loriazko misterioetan eta Jainkotasun hutsaren gogoetetan.

Hori bakarrik egin balu, gaitzerdi; baina aurrerago joan zen. Esan zuen, alegia, Jainko-Semearen gizatasuna soineko zahar eta zarpail bat besterik ez zela, zeinetatik Jainkoaren Semea erantzi egin baitzen, eta berak ere gizatasun hura bistatik ken eta loriazko misterioetan behar zuela murgil egin.

Gehiegitxo zen Sor Angelesentzat. Jainko Semearen gizatasuna horrela meziprezuz erabili! Begira zer dioen:

“Baldin barnetik ezagutuko ez banitu neure Zuzendariaren pentsakera eta Jesusganako zuen amodioa, hereje bat zela usteko nuen, Salbatzailearen gizatasun pairakorra horrela meziprezuz baitzerabilen”.

Esan beharrik ote dago Santa Teresak era gure Sor Angelesek ikusmolde eta sentipen berbera ageri dutela auzi honetan? Biek aho batez esaten digute Jainko-Semearen gizatasuna dela gure Jainkoaganako bidea¹.

Orain esango dugun beste hau lehenagoko kontua da, hots, 1900. urtetakoa. (Ikus *Autob.* 246). Sor Angelesek egiten zituen noizbehinka huts edo bekatu arin batzuk, baina berari min handia ematen ziotenak. Huts horiek gehienetan etorkor izatetik gertatzen zitzaizkion, hau da, bere ahizpen iritzi edo eskariei amore ematetik, nahiz eta ahizpen eskari edo iritziok Jainkoak berari eskatzen zionakin akort ez zirela jakin. Falta horien ondorioz damu eta kezka latzak jasaten zituen gero. Jarri zen, bada, pentsatzen zer behar zuen egin falta horietan ez erortzeko. Lehenbiziko gauza, noski, falta horien iturria edo sustraia behar zen bilatu. Bilakuntzen ondo-

rioz hara zer aurkitu uste zuen: Jainkoaren beldurrik eza. Nola ordura arte Jainkoagan ez zuen amodioa baizik ikusi, Haren beldur sailduak jai zuen. Behar zuen, bada, Jainkoaren beldur saildu hori bereganatu, ikasi. Horretarako Aita Lapuenteren Meditazioen liburuia eskutan hartu eta bertan aurkitzen zituen gogoeta beldurgarriak oro paperean idazten hasi zen.

Eguna ere halakoa zen, hots, 1900eko Martxoak 24, Gizakunde festaburuaren bezpera. Eta supituki —berak ez daki nola—, Jainko Aita azaltzen zaio gizonen aldeko maite-sugarretan, Gizakundearen aurreko mementuan, amodiozko bere sentipenak Semeari harrerazten. Sor Angeles, zer egiten ari zen ohartu ere gabe, gogorapen beldurgarrien ordezt amodiozko beste hauek paperean idazten zituen. Ohartu denean, eskua eta luma lanetik altxa eta Jainkoaren nahiari errendatzen da.

Hemendik hartuko du hasiera “Abadesaren jostaketa” dei genezakeen ariketa ezagun horrek, Sorazuk egunero bospasei aldiz egingo duena. Horretarako behkeko kalostrara edo komentuko bazter gordeenetara joan eta han jarriko da Gizakundeagatik, esan nahi baita, Jainko-Semearen gizon egiteagatik, Jainko Bakoitz eta Hirukoitzari eskerrak ematen. (Ikus *Autob.* 389 eta hurr.). Eta berak aitortzen digu Jainkoak askotan agertu ziola ejerzizio honek ematen zion atsegina. Behin, ariketa horretan zebilela, Jainko Aita bidera irten eta “Neure alaba” esan omen zion, baina hain sarkorki eta maitetsuki, non bere aintzaren islada edo errainu bat ematen ziola iruditu baitzitzaion.

Eta horra eskerrona darion beste xehetasun bat fina eta xumea: astean behin edo, izaten zen meza berezi bat

Sagrarioan gordetzen ziren formak berriztatzeko. Gure Abadesak, bada, agindu zuen meza hura armonioa joaz ospa zedila². Bazekien gure Jauna presente dagoela Sagrarioan, meza sainduan bere burua eskaintzen diola gugatik Aitari etab., eta mesede horiek ez zituen guties-teko. “Jueves Eucarísticos” izeneko taldea ere Sorazuren eskariz jarri zen Tolosan, Klaretianoen elizan. Baita Zumaiian ere jartzea nahi izan zuen eta hala eskatu omen zion Parrokoari idazki bidez; baina honek erantzun zion ea zertako sartzan zen arazo horretan, hori ez zegokiola berari, etab. Orduan Ama Sorazuk berriz idatzi zion, baina oraingoan barka-eske.

Guruzbidea egunero egiten zuen Komunitateak Abadesarekin batean. Horretarako mojek beren gurutzeak zeuzkaten, bakoitzak berea. Jakitekoa da nondik eta nola zuzendu zituzten gurutze horiek. Halako batean Cos Artzapezpikuak erregalo bat egin nahi ziela esan zien eta esateko berari zer nahiko luketen. Mojek, berriz, esan zioten zurezko gurutze batzuk nahi zituztela, bakoitzaren neurritakoak, guruzbidea egiterakoan bakoitzak berea erabiltzeko. (Ikus *Autob.* bigarren parte edo Osagarria 752). Honetan ere, dirudienez Ama Agredaren jarraitzaile agertu ziren Sorazuren komentuko mojak.

* * *

Jesukristo eta Haren misterioekin bat eginik bizi-zati handi bat pasa ondoren, Sor Angeles Mistikak eza-gutzen duen egoitzarik gorenera izango da altxatua: Jainko Bakoitz eta Hirukoitzarekin zuzenki har-eman izatera, alegia. Han, ukitu eta albiste “sustantzial”en bi-

dez Jainkoari soilki dagozkion “tasun” en —hots, atributuen— partaide izatera helduko da. *Bizitze Izpirituala* deritzon liburuan utzi dizkigu egoitza honetan bizi izan zeneko esperientzien berriak.

Baina —eta hau Sorazuren berezitasun bat dela uste dugu— goreneko mailetan ere hara non azaltzen zaizkigun berriro Jesus Jainko-Seme gizon egina, eta Haren Ama, (Ikus *Bizitze Izpirituala*, kap. XXI). Gure Sorazu frantziskotar familiako alaba zelako eraman ote zuen Jainkoak bide berezi honetatik, Acebal jaunak uste duen bezala? ³ Ez dakigu, baina gauza hor dago. Ez hori bakarrik. Mundu honetako azkenaldi eta heriotzean ere Jesusen Pasioko partaide nahiko du izan eta hori ere emango zaio.

Haren heriotzea, amodiozkoa —hots, goitik isuritako amodioak kausatua— izango da, baina guztiz penatua eta oinazez betea. Eta orain aipatu dugun liburu horretan, *Bizitze Izpirituala* delakoan (Ikus kap. XXIII), zenbait Sainduren —eta bereziki Aita San Frantziskoren— kasuak dakartza adibidetzat. Dena den, oso aurretiaz eta bere idazkietako leku askotan, adierazten digu Sorazuk zer-nolako heriotze-mota izango duen. Bat aipatzeagatik, ikus 482.

Bizitze Izpirituala delako liburuaren beste toki batean (Cap V, p. 71, lehen edizioan) hara zer dioen Kristorekin mintzo dela:

“Zeuri dagokizu, gure bizia bere betera hel dadinean, gu eternitate zoriontsuan sartzea, zeure bekokian jarriak, gure zeruko Aitak erregalatu zizkizun koroen antzera. Izan ere, horixe izan nahi dugu: zeure bekokia apaintzen eta edertzen duten koroiak, eta zeuri utzi nahi

dizugu Kreazioaren azken hitza ahoskatzeko ohorea, zeuri, alegia, Hirutasun guztiz dohatsuari aintzarik goren errendatzeko ohorea”.

* * *

Ikusi dugu zenbatetaraino Kristo Jainko-Gizona izan zuen Sorazuk bere biziaren ardatza. Kristok, ordea, Eliza dakar berekin, Eliza du osagarri eta segida.

Gogoeta esplizitoaren mailan, agian, Sorazuren garaian Eliz sentipena ez zegoen gaur bezain garatua, baina arima jainkotiarretan sentipen horren zantzuak beti nabaritu izan dira. Direktzio izpiritualari buruz Sorazuk idatzi zuen Eraskinean —beronen hasiera-hasieran, gainera, hara zer dioen Sorazuk:

“Kristau arimak, errotikan bertutetsuak baldin bada, Eliza Katolikoarenganako eta berau gobernatzen duten Ministroenganako fede biziz, fidantziaz eta itzal barrengoz beteak egon ohi dira, Aita Sainduagandik hasi eta apaizik apaleneraino. Fede eta benerazio hori erakusten dute apaizekin izan ohi dituzten harremanetan, apaiz horiek erlijioso nahiz apaiz huts-soilak izan, eta bereziki beren aitorle edo Zuzendariekiko har-emanetan, horiengan Jesukristo eta Haren jainkozko auktoritatea ikusten dutelarik” (Ikus Eraskina, cap. 1, 363-364 orr. leh. ediz.).

Ama Sorazuk apaizak eta beroien bizia zein estimutan zituen ikusteko, Aita Alfonso bere Zuzendariari 1918ko gripe-aldian zuzendu zizkion eskutitzak ikusi besterik ez dago⁴.

Baina gure Sor Angeles ez zen bat ere zozoa eta begi erneak zituen gizonen mugak ikusteko: bazekien, alegia, gizonez osatua den aldetik, Elizak baduela oskol eta azal

bat frankotan atzerarazten gaituena. Baita kontrajarriak diruditen jokaerak ere ikusten zituen frankotan Jainko eta Haren ordezkarien artean. Eta hau da kontua: Jainkoak gauza bat eta Haren lekuan dagoenak beste bat esaten bazion, ez zuen hura egingo, beste hau baizik. Egiazko mistiko jatorren ezaugarria izan da hau beti.

Esan gabe doa Elizagandik Sorazuk onik eta onurarik hartu zuela. Azken finean Elizagandik hartu zuen Kristo eta kristau fedea eta bizia. Baina Elizaren ordezkariengandik gorriak ere ikusi behar izan zituen frankotan. Kasu bat edo beste aipatzeko, Jainkoaren aginduari jarraituz, proposatzen dio apaiz bati bere ari-mako Zuzendari izatea, eta hark baietz, baina gero emandako hitza jan. (Ikus *Autob.* 163).

Eta gogoratu baizik ez dago bigarren Zuzendariak pasarazi zizkionak edoeta Apezpikutegitik heldu zitzaizkion agindu zorrotzak. Harridurazko hitzak behin baino gehiagotan ateratzen zaizkio lumara, Jainkoak beraren alderako dituen bideak ulertezinak balira bezala. Ez zen gutiagorako. Jainkoak eskaturik hartzen du Hark adierazitako Aita, eta gero, zer da eta, Jainkoaren izenean dagoenak, Aita hura kentzen! Zer da hau? Honelako ateraldiak badira, bai, Sorazuren idazkietan, baina zailantza eta tentaldi batzuk gorabehera, ez da hargatik kantituko. Fedea ateratzen da beti gailen.

Abadesa-karguko ardurak behar bezala burutzeko, Eliz legedia ezagutzen ahalegindu zen. Elizaren liturgiari —Eukaristia, Orduen liturgia, Penitentziako Sakramentua etab.— oso atxikia izan zen beti. Mojei egiten zizkien hitzaldiak Liturgi-aldi eta festaburuei zegozkienak izaten ziren. Eskritura Saindua eta Kristau Doktrina estimazio handitan zituen, etab.

Eta hori guztiori guti balitz, Ama Sorazuk badu otoitz eder bat Elizari berari zuzendua. Auzi hau gehiegi ez luzatzeagatik, ez dugu honera aldatzen, baina nahi duenak aurki dezake Aita Marianori egindako eskutitzen edizioan⁵.

Bukatzeko, aipa dezagun Erromako Aita Saindua-renganako atxikimendua. Horretaz bada pasarte bat guztiz salataria. Aita Marianori egindako eskutitzetatik hartzen dugu. 1912ko Apirilean Aita Saindua hil zelako berria zabaldu zen. Gero jakin zen berri hura ez zela egia. Baina egia zelako ustetan, hara zer idazten dion Sorazuk Aita Marianori:

“Gaur negar egin dut gogotik gure Aita txit saindu Pio X.aren heriotzea dela eta. Nere Jainko maiteak zeruan izan dezala, Eliza Ama Sainduaren alabarik atxikiena eta zintzoena bezala sentitu baitut. Beraren eta fededun guztien izenean egin ditut neure Jainko maiteak iradoki dizkidan guztiak zenduaren alde eta Elizaren beraren alde, Jauna bai hartzaz eta bai haren seme-alaba garen guztietaz ere, gutaz, alegia, erruki dadin”⁶.

¹ Ikus SANTA TERESA, *Vida*, cap. XXII. *SORAZU*, *Autob.* 476-477.

² Sor Lourdes-en lekukotasuna.

³ Ikus *Dictionnaire de Spiritualité*, art. “Sorazu”.

⁴ “Duelo entre la Justicia y la Misericordia”, *Scriptorium Victoriense* (1988), 206-232. Autobiografiaren edizio berrian ere badator.

⁵ Ikus hirugarren tomoa, 127 orr.

⁶ Ikus *Ama Sorazuren Ibilbide Mistikoa*, II, 211 orr.; 11-IV-1912.

X

Sor Angelesen aiurri edo izakera

Ikus dezagun orain zer moduzkoa zen gure Sor Angeles, nolako portaera zuen bere kideekin, Jainkoarekin eta gizarteko har-emanetan. Hori jakiteko, haren idazki eta hura ezagutu zutenen testigantzetara jotzen dugularik.

Sorazuren aiurriko bereizgarri bat, berberak behin eta berriz aitortua, honako hau da, hots, *etorkorra* zela, besteek eskatzen ziotena egitera erraz makurtzen diren horietakoa. (Ikus *Autob.* 302)¹.

Bere aiurriaren bereizgarri hau jotzen du Sorazuk falta askoren iturburu nagusitzat. Izateko modu honek txarkeria handienetara lerraraziko zuela aitortzen du, baldin izan ez balu beste bereizgarri bat, hots: ezin zuela Jainkoarena erdizka izan. Osorik Harena, edo bat ere ez². Hori dela eta, otoitz egitera jartzen zenean, egindako hutsak gaitzetsi behar izaten zituen, arras konbertitu eta Jainkoaren bideari lotu, eta hori ondorio guztiekin.

Beste hau ere aitortzen digu: *hitz gutitakoa* zela, alegia. (Ikus *Autob.* 16. Ikus baita ere, Autobiografiaren *osagarria* 714).

Ez zen bere burua agertu nahiz dabiltzan horietakoa; aitzitik gordean, ezkutuan bizi nahi izan zuen beti. Ahalegin guztiak egin zituen Abadesa ez izateko; baina Komunitatea zegoen egoeratik ateratzeko, mojek ez zuten hura izendatzea beste biderik ikusten, eta hala izan zen hautatua. Diogunaren sendogarri, aipa dezagun xehetasun bat: ez baitugu Ama Sorazuren argazkirik. Eta ez dugu, ez zuelako sekula egiterik nahi izan. (Ikus Autobiografiaren *osagarria*, 760).

Tolosan bizi izan zeneko garaian, bai, aterazi zuen baten bat, eta Aita Marianori egindako kartetan bada horren aipurik³. Baina hura ere erre egin zuela dio.

Besteen izakera ezagutzeko begi erneak dituzten horietakoa ere bazen gure Sor Angeles, azaletik barnera sartzen dakiten horietakoa. Ikus, esate baterako, Aita Antonino Saldañari egin zion eskutitzean apaizen bizitze izpiritualari buruz dioena. (Ikus *Autob. osagarria* 659). Jainkoarekiko beren har-emanetan uzkur eta fidagaitz samar direla dio.

Eskrupuluz edo barne arrangurez joa ote zen gure Sor Angeles? Baietz beharko esan, kezka eta tentaldien kontaketak haren obretan hain toki handia duela ikustean. Gehienetan, edo ia beti, arrangura horiek nondik heldu dira, ordea? Kontzientziaren egoera ona ala txarra den ez jakitetik. Ez zekien —edo hala iruditzen zitzaien— ea bekatu larrian eroria ote zegoen, ea bide okerretik ote zihoan, ea irudipenak egiazat ez ote zituen hartzen, besteak engainatzen ote zituen, eta holako. Ezagutu zituen eritasun eta jasan behar izan zituen

kontrakarrekin batean, hau izango du bere sofrikarioen iturri nagusia.

Baina gauza ongi ulertzeko, jakin behar da zer dagoen guzti honen azpian: egi zale izatea, horra. Bai. Sorazuren psikologian egi zaletasuna ageri da gailen. Hunkigarria da benetan zenbatetarainoko erliebez nabarmentzen den ezaugarri hau haren idazkietan —eta aparteko modu batean Aita Mariano bere Zuzendariari egin zizkion eskutitzetan—.

Sorazuren Jainko-bidea ez zen izan egunoro fededun arruntak darabilen bezalakoa, eta berak bazekien hori ondotxo. Hainbeste mesede harrigari hartu ohi zituen! Baina, hain zuzen, horretxek sortarazten zion arrangura: “Zer dela eta, neri hau?, —galdetzen zion bere buruari—. Jainkoak zergatik ematen dizkit neuri gauza hauek? Edo ez ote da Jainkoa, etsaia baizik, gauza hauek ematen dizkidana? Edo neronek asmatzen ditudan iraxoak ote dira, gero?”

Beti, edo maiz-sarri dabil, kontu hau dela eta, azterketa egiten, egia hutsa bilatu nahirik. Hipotesirik aldrebesenak asmatuko, eta horietxek hobetsiko ditu, auzi honi irtenbide bilatu nahirik. Jainkoak galdutzat daukala, eta, hain zuzen, horrexegatik, egin duen onapurra saristatzeko, ematen dizkiola mesede hauek: horra egitxurakotzat joko duen hipotesia.

Esandakoaren lekuko, pasarte bat bakarrik aipatuko dugu, Aita Marianori egindako eskutitzetatik hartua:

“Jainkoa on-hutsa da enetzat; baina ni, Aita, galdumendia bera, sinesgogor biribila, ezin gehiagoraino, duda egiten baitut zernahitaz, baita berorrek baieztutakoaz ere. Ez dut deusik sinesten, atsekabetzen eta umiliatzen nauenez landara; gainerako guztia gezurra

dela iruditzen zait... Ikusten dut Jainkoak hobespenezko maitasunaz maite nauela, Hark ene alde dituen asmoak ez sinesteak kalte egiten didala —zeren behar nukeen bezala erantzuteko traba egiten baitit, eta ez erantzunez eskuak lotzen baitizkiot eta bere grazia eta faboreen joaira geldiarazten baitut—, eta halere ezin sinetsi”⁴.

Jainkoagandik hartzen zituen fabore handiak ere, alde batetik atsegin handiren sorburu, baina bestetik, sofrikario erdiragarrien iturri bilakatu zitzaizkion. Eta gero hor dira, idatzi-beharretik sortzen zitzaizkionak. Obedientziaz idatzi behar, eta, halere, idazte horretan bertan bekatu egiten zuela, ezin burutik ken. Eta Jainko-munduko errealitateak giza hizkuntzen plegu estu-meharretan adierazi beharra, horra beste oinaze-suerte bat, pasatzen duenak baizik ez dakiena. Pairamen-mota honetzaz mintzo da *Bizitze Izpiritualean*⁵.

Hil-bezperan hitzegin zuen Sorazuk bere garaikidea zen Sor Concepción-ekin. Eta hara zer esan zion:

“Nik neure mendean nahigabe handiak pairatu ditut, baina baita anitz gozatu ere, eta nik dudana inork ere ezin ken diezadake”⁶.

Garbi dago, bada: Sorazuk asko sofritu zuen bere bizian, eta sofrikario horien zenbait buru azaldu ditugu. Galdetzekoa litateke ea zergatik permititu zituen Jainkoak hainbeste nahigabe bere zerbitzari honengan. Erantzuna, berriz, guk eman dezakegun heinean, honako hau litzateke. Alde batetik, sofrikario horietatik asko eta askok haren idiosinkrasia berezian dute sorburua; baina, bestetik, badakigu ere berberak eskaintzen zuela bere burua beste batzuen ordeztu sofritzeko, Jainkoari egiten zitzaizkion ofensengatik biktimatzat

eskaintzen zela, alegia, eta Jainkoak eskaintza horiek inoiz edo sarri onartu egiten zituela. Beste hau ere gaineratu behar da apika: Jainkoaren begietan sofrikario horiek berdingarri zirela, arima honek hartzen zituen fabore harrigarrien berdingarri edo kontrapisu.

Eta bada xehetasun jakingarri bat guztiz kontutan hartzekoa, gauzak beren neurritik atera nahi ez baditugu. Sorazuk joera du, alegia, beheko solairuko —nola-bait esan— penak kontatzera eta goiko solairuko egoeraz tutik ez esatera (idazten ari denean ahaztu egiten zaizkiolako edo). Inoiz, bai, oroitzen da goiko ganbara horretaz ere, eta orduan esandako guztia gezurtatu nahiko du, baina gehienetan beheko kontuak azaltzen joaten zaio denbora guztia⁷.

Eskutitz batean dioen honako hau ere behar dugu kontutan hartu, hots: berak ez dakiela sofritze huts-soilaren berririk. (Ikus Autobiografiaren osagarria, 639).

Gauzak diren bezala azaldu nahi badira, behar da aitzin-gibel guzti hauen kargu hartu.

Dena den, Sorazuk seriotasun itzelaz hartu zuen bere bizia. Erabat eta zeharo Jainkoaren zerbitzura lotu zen, eta bere etorkizuna Jainkoaren eskuetan utzirik, zerbitzu hori egitea beste asmorik ez zuen izan.

* * *

Sorazuren aiurrian badira bi alderdi edo saihets, kontrajarriak diruditenak. Alde batetik, xalo izatea, haurraren pare, gibel beldurti; bestetik, berriz, ausarta, zirt-zart egiten dakiena, adoretzu eta kemen handikoa.

Anekdotak batzuk aipatuko ditugu, haren bizitzetik hartuak. Jauna hartzera zihoanean, beheko koruan zegoen Ama Birjinaren imajina bati mantutik tira egiten

zion, berarekin batera jaunartzera joan zedila erregutuz. (Ikus *Autob.* 319).

Beste adibide bat: anaia Joaquín-Luis hiltzen zaio han Tolosan (1901, Apirilak 14). Aste batzuk geroago, Igokunde-egunean, ordurako zeruan egongo dela eta, eskutitz bat idazten dio zerura eta eskutitz hori Andre Mariaren imajinari uzten dio eskuetan, bere anaiari zeruan irakur diezaiola, arren, eskatuz. Eta, hain zuzen, anaia hil zeneko urteurrena betetzean, hara non iristen duen dotea, Valladolidko andre batek emanik. Hori zen preseski eskutitz hartan bere anaiari eskatu ziona eta hark txintxo asko iritsi ziona. Ordurako Sor Angeles kanturako ez zen gehiago gauza, eta ofizio horretatik libre gelditzeko dotea behar zuen eta hori eskatzen zion anaiari zerura idatzitako eskutitz haretan. (Ikus *Autob.* 278 eta 351).

Beste behin, berriz, kezka eta tribulamenduz ase zegoelarik, zera esaten dio Jainkoari: “Maiteago duzu zuk txakurra, ni baino” (Ikus *Autob.* 544). Beste behin Jainko eta Ama Birjinarekin muturturik eta haserreantzean jartzen da. Eta arrazoia: berak egindako eskaria ez baitute entzuten. Eskaria, berriz, hauxe zen: jan gabe ere kantatzeko gai izatea. (Ikus *Autob.* 216-217).

Honelako erreakzioak ikustean, burura etortzen zaizu Kantauriko arrantzaleen kastakoa zela gure Sor Angeles, eta agian jatorri-ondaretik zerbait, edo zerbait baino gehiago gelditzen zitzaiola. Arrantzaleen emaztekiak batez ere, alde batetik ume xalo eta tolesgabeak dirudite, baina beste aldetik, ausartak eta kementsuak izan ohi dira, ia egunero beren etxeetako gizasemeen biziak galzorian ikustera ohiturik daudenez.

Ausarta azaldu zen hiri-zerga (contribución urbana) ordaintzeari ezetza eman zionean. Pasadizo hau azken urteetakoa dugu (1917). Pobreak zirela —eta hori egia zen, noski—, ez zutela dirurik eta inondik inora ez zuela ordainduko argi eta garbi esan zuen; baita Gobernuburu zen Maurari eta Maria Cristina erreginari idatzi ere. Azkenean baketan utzi zuten. (Ikus Autobiografiaren osagarria, 758-759).

Sorazuk, bigarrenez konbertitu zenean hartu zituen erabakietarik bat honako hau zen: gauerdian ohetik altxa eta ordu pare bat otoitz egiten igarotzea. Baina inoiz edo behin, loak hartzen zuelako, ez zen jaikitzen. Gero, iratzartean, zer egiten zuen? Belauniko jarri, gehiago ez zuela horrelakorik egingo hitz eman, eta Jainkoari esan aldi hartakotz barkatzeko; baina hurrengoan berriro gauza bera egiten bazuen, gehiago barkatu ez, baina bera infernura bialtzeko... Eta istorio hau errepikatzen zen huts bera —loak hartzea— gertatzen zen bakoitzean. (Ikus *Autob.* 179).

Batzutan badirudi Jainkoa txantxetan bezala ari dela berarekin. Esate baterako, korura zihoala behin gertatua aipatuko dugu. Moja batek irain egiten dio Sor Angelesi. Koruan sartu, eta Jesusek esaten dio: “—Zer egin behar dut nik elkarrekin ongi konpontzen ez diren bi emazterekin? Zeruan sartzerakoan, bestea kanpoan utzi beharko dut, zu sar zaitez. —Ez horrelakorik, Jauna, ni baino aurrekoago eta duinago da bera; baina hura aurrekoago izanarren, saiatuko naiz biok sar gaitezen”. (Ikus *Autob.* 361).

Kerubinak eta Serafinak bi aingeru-talde edo mota desberdin dira: haiek adimenaren argiaz eta besteok

maitasunaren galdaz gailentzen direnak. Ez nuke esango biotatik zeinekin duen Sor Angelesek ahaidetasun gehiago. Baina egiaren gose izatean, egiaren argia gidaritzat hartzean eta egia darakuskun fedea maite izatean aparteko modu batean distiratzten duela gure Sorazuk, hori garbi dago. Egiarekin zer ikusirik ez duen Jainko-biderik ez du hark nahi.

Arimaren ahalmenak hiru direla ikasi genuen, hots: adimena, oroimena eta nahimena. Gure mendean, berri, erlijio eta Jainkoarekiko gauzetan, adimenaren partea mendratzeko edo gutiesteko seta sartu da. Sentipena, amodioa, goretsiko dizute, adimenari irri egiten zaiolarik. Sor Angelesengan, behintzat, gauzak ez dira bat ere hala. Adimenaren argia nahi du hark beti gidari. Horregatik fedea —eta fedea izan argiaren bertutea— leku edo toki aparta du Sor Angelesen bizitze izpiritualean.

Harrigarria ere bada ikustea zein xeheki eta zehazki gogoratzen eta paperean jartzen dituen aspaldi xamarreko gertaerak, urteak eta egunak. Aitortzen du, halere, horretarako bere burua nekatu beharra izan duela.

Bakartade-zalea izan genuen beti Sor Angeles; horra beste ezaugarri bat bista-bistakoa. Nahi du bere bihotza huts-soila, inongo sorkariren atxekimendu gabe, osorik Jainkoarentzat gorde, Hura nahimen birjina batekin maitatzeko. (Ikus *Autob.* 53). Komentuan sartu berri zelarik, mojen artean edo mintzagelan kanpokoe-kin gertatzen zenean, hara zer ziotsan bere buruari:

“Hain maite nituen guraso eta anai-ahizpak laga, bat ere gustatzen ez zaidan herri arrotz honetara etorri, eta lurrean maite nuen guztia utzi ondoren, neure bi-

hotza eta maitasuna enetzat ezezagun diren sorkarietan jarri behar ote dut? Ez, inondik ere. Hemendik aurrera Jainkoa eta Jainkoa xoilik izango da ene amodioaren helburu bakarra, Jainkoa bakarrik, Jainkoa bakarrik” (Ikus *Autob.* 173).

Halere, eta gogoz kontra, onartu zuen Abadesa izateko kargua, bakartaderako zaletasuna galdu gabe. (Ikus *Autob.* 173).

Jainkoarekiko har-emanai gagozkiela, berak artezak (zuzenak) eta zeharrekoak bereizten ditu. Artezetan ez zuen sekula problemarik izan; zeharrekoetan, berriz, hots, Jainkoaren ordezkoezin izan ohi direnetan —arimako Zuzendari, Eliz agintari etab.—, hauetan bai. (Ikus *Autob. osagarria* 703).

Eta umoreari buruz, zer esan dezakegu? Distiratzten ote du Sorazuren idazki eta bizitzean? Ez gehiegi, aitortu behar. Idazki horietan aurkitzen dira, ordea, esaldi batzuk hor azpian ironi punta nabari zaiotenak: Ikus, adibidez, “lanpetuak daude, antza” (Ikus *Autob. osagarria* 665): Sainduetz ari da, eskakizunei erantzuten ez dietelako. Komentuko bere lehen urteetan egiten zituen haurkeri gisako gertaerak kontatzekoan ere badirudi irriparretxoa antz ematen zaiola. Eta ahizpen testigantzetatik dakigu errekreo-garaian hauen poza eta zoriona egiten zekiela, Eguberritan danborra jo, kantatu etab.

* * *

Sexu-gauzetan, berriz, zer? Horretan aitortu zigun ezjakina zela eta ez zuela sail horretako tentaldirik behin ere ezagutu. (Ikus *Autob. osagarria* 724). Eta hain zuzen, horrelakoa hartu nahi izan zuen Jainkoak bere fe-

kunditate-atributuaren partaide egiteko eta horri buruz mintzatzeko. Ez dakigu mistikoen artean ba ote den beste inor horrela gai horretaz mintzatu denik⁸.

* * *

Eta horra beste berezitasun bat: gure Sor Angelesek hautsa eta zikina erabat gorrotatzen zituen. Komentu osoa inguratuko zizun hain garbi ez zeuden parajetatik ez igarotzeko. Eta bere gela egunoro erratzaz pasatzen zuen, ez nolanahi edo gaingiroki, gogotik eta ardura handiz baizik.

Jainkoaren zerbitzuan izate osoa, hau da, gorputz eta arima, erabiliko zizun lotsarik gabe. Komentuko imajinen aurrean belauniko edo ahuspez egoteak, prozesioak etab. egiteak, gogoko zituen.

Abadesa zen aldetik, etxeko ekonomiaren ardura hartu behar izan zuen, eta bai eginbide hori zentzu handiz bete ere. Zenbait janari —olio, azukre eta holako— handizka erosten zituen, horrela merkeago ateratzen zirelako, eta prezioa beti zintzo ordaintzen zuen. Obrak egitera ez zen ero-eroan sartuko, behar diren eskuarte edo baliabideak izan gabe.

* * *

Aita Mariano, Sorazuren aita jatorra, León-en bizi zen teologi eskolak ematen; Sorazu, aldiz, Valladoliden. Egun batez Aita Marianok otoitzean ziharduen Sor Angelesengatik erreguka, eta honek igerri. Hara zer diotsan eskutitz batean:

“Jakin nuen —ez dakit zeinek esanik— egun hartan ene alde otoizka ari zinela”⁹.

Honelako aitormen eta gertaerak aurkitzen dira Sorazuren bizitzean, bai hark eta bai harekin bizi zire-

nek aitortuak. Esan nahi ote du horrek bazuela igermena, telepatia edo Parapsikologian aztertzen diren bezalako gaitasun batzuk? Agian bai. Eta esan behar ote da orduan haren Mistika guztiak hortik izan dezakeela espplikabidea? Ez noski. Gertatzen dena da bai bata eta bai bestea —parapsikologi fenomenook eta Jainkoak emandako grazia supernaturalak— bi-biak gerta daitezkeela pertsona berean.

* * *

Sorazuren idazkietan —eta bereziki eskutitzetan— aurkitzen dira noizbehinka esaldi gogortxoak, latz samarrak; baina jakin behar da eskutitzok lasterka idazten zituela, hitzak patxadaz neurtzeko astirik hartu gabe eta aurretiaz zirriborrapen bat egin gabe; orduan ez da milagro horrelako esan batzuk lerratzea. Esango dizu, esate baterako, “no nos inspiran confianza” etab. Pentsatuko zenuke gaizkile batzuk edo, zirela jaun haiek; eta ez. “Ez ditugu gogoko” edo “ez zaizkigu gustatzen” esan nahi du soilki. Bere boskarren zuzendariari ere batzuetan hitz gogortxoak zuzentzen dizkio. Zer pasatzen zen? Inoren errurik gabe, dirudienez, direkzio hura krisian sartu zela. Orduan amaitutzat eman eta aldatzea beste biderik ez zen gelditzen.

* * *

Gorago esan dugu “etorkorra” zela Ama Sorazu. Baina ez beti. Bazekien ezetz esaten ere. Eta dagoeneko, Jainkoari berari ezetz esan zion, 1894, Irailak 25ean hartutako batasun-grazia hartatik aske gelditzea bere kabuz erabaki zuenean. (Ikus *Autob.* 169). Eta Jainkoak ez zuen hori txartzat hartu. Hain da harrigarria eta bakarra gertaera hau Mistikako esparruan, non Mistika-

gauzetan iaioa zen Aita Alfonsok hasieran ez baitzuen onartu; ezinezkotzat jotzen zuen, azkenean amore eman bazuen ere.

Profesa egin aurreko egunetan Sor Angelesekin seinalaturik zeukan bere gela, Nobiziadutik irtetea bizi-
lekutzat izango zuen gela. Eta bi moja zaharretakoek jarri zituzten gela hartan hiruzpalau eserleku, Sor Angelesek berriketa edo denbora pasa egitera joateko asmoaren agergarritzat. Zer egin zuen berak? Bat utzi eta gainerakoak handik ken. Horrekin ulertu zuten haiek zer esan nahi zien, eta baketan utzi zuten. (Ikus *Autob.* 56).

Nabarmena, baita ere, beste hau, erlijioso-bizitzeko lehen urteetan gertatua. Sor Angeles ofizioz bigarren tornera zen. Horrek esan nahi du bazuela bere gainetik beste bat, hots, tornera nagusia. Honek bazituen, dirudienez, har-eman batzuk kanpokoekin, Sorazuk onartzen ez zituenak. Abadesak, berriz, eskrupulu horiei garrantzirik eman gabe, tornera nagusiak esaten ziona egiteko erantzun zion. Kontzientziaren kontra ezin joan, Abadesari ezin buru egin. Polita da Sorazuk asmatu zuen irtenbidea: Abadesari belauniko hitz egin beti, bai biak bakarrik zeudenean eta bai beste mojen aurrean ere. Aitortzen du asko kosta zitzaiola erabaki hau betetzea, baina bete zuen, eta bai nahi zuena lortu ere. Abadesak esango zuen berekiko: “Honelakoekin ez dago ezer egiterik...” (Ikus *Autob.* 81).

* * *

Eta bukatzeko, azken urteetako pasadizo bat. Sorazuk bazekien bera ez zegoela luzaroko. Bere idazkiak, hil baino lehen, norbaiti utzi behar zizkion. Nori, ordea? Aita Alfonso —boskarren Zuzendariak— esaten zion *Bizitze Izpirituala* delakoa Santiagoko Frantziskotarrei

bialtzeko; berak, ordea, ezetz. Aita Arinterro domingo-tarra ere eskaini zen, dirudienez, liburu hori bere erre-bistan ateratzeko. Baina hari ere ez eman. Berak zioen Aita Nazario Pérez jesuitak behar zuela liburuon gorde-lari izan, hori zela Ama Birjinak nahi zuena. Azkenean Aita Alfonsok eman zion baimena, eta hala joan ziren idazkiok Carrión-era, Aita Nazario bizi zen lekura. Eta hori Sorazuk Aita Nazario ezagutzen ez zuelarik...

Horrekin, ordea, istiluak ez ziren behingoan amaitu. Aita Mariano kaputxinoa sartzen da bigarren aldiz Sorazuren Zuzendari bezala. Ordurako Sor Angelesen idazkiak Aita Nazarioaren eskuetan zeuden. Gogora dezagun *Autobiografía* behintzat Aita Marianoren aginduz egin izan zuela Sorazuk, eta apika min emango zion Kaputxinoari obra hori jesuita baten eskuetara joan izanak. Dena dela, Aita Marianok agintzen dio, bada, liburuok erreklamatzeko. Eta Sorazuk obeditu egiten du, baina gogoz kontra eta bere desakordioa agertuz. Gero badakigu zer gertatu zen: Aita Nazario obra haiek gordetzeko, bere ustez, eskubidea ezezik, baita eginbidea ere bazuela erantzun zuen, eta hala gelditu zen beroien zaindari eta bai argitaratzaile ere. (Ikus *Autob. osagarria* 713 eta hurr.).

Ikusiak ikusi, hauxe beharko esan: *Etorkorra* zen Sorazu, baina ez hainbeste. Bazekien ezetz esaten ere.

¹ Ikus, baita ere, *Ama Sorazuren Ibilbide Mistikoa*, II, 25; 20-VI-1911.

² Ikus aipatutako leku berbera.

³ *Ama Sorazuren Ibilbide Mistikoa*, II, 77; 1911-IX-19.

⁴ *Ama Sorazuren Ibilbide Mistikoa*, I, 203; 1911-I-13.

⁵ Ikus cap. XVII, 198-199 orr. leh. ed.

⁶ Sor Concepción Prendes-en lekukotasuna.

⁷ Ikus *Ama Sorazuren Ibilbide Mistikoa*, I, 287-288; 1911-V-1.

⁸ Ikus Bizitze Izpirituala, c. XIX, p. 232ss., leh. ed.

⁹ 1911ko Martxo-Maiatzetako kontu errendatzea; *Ama Sorazuren Ibilbide mistikoa*, I, 323 orr.

XI

Sinesmena, Itxaropena, Maitasuna

Hiru zer hauek ematen zaizkio goitik gizonari grazia saildutailea hartzen duenean. Eta zer dira berauek? Naturaz gaindiko ahalmen batzuek Jainko-*seme* gisako bizitzea egin ahal dezan ematen zaizkionak. Baina, jakina, bataioan hartutako hazi hau behar da hazkundera eramane eta horretarako gizonak ere behar du berea ipini, bere aldetik lan egin, alegia.

Hiru bertute hauek teologalak deitzen dira. Zergatik? Hiru arrazoi eman daitezke: 1) Jainkoa bera dute-lako xede, jomuga eta helburu. 2) Beroien bidez gizona naturaz gaindiko bere helbururako egokitua gelditzen delako, esan nahi baita, betiereko bizia merezitzeko gai egiten delako. 3) Gainera, hiru bertute hauek, eta berauek bakarrik, ematen digutelako oraindanik bertatik zeruan egingo dugun bezalako bizia egiteko gaitasuna.

Betiereko biziaren hasiera bat dira, bada, bertute hauek. Jainkoarekin batzen gaituzte eta gure arimaren bizia Jainkoarenera moldatzen dute.

Sorazuri gagozkiola, hiru bertute horiek harengan toki aparta dutela ikusteko, ez dago burua asko nekatu beharrik. Baztergabea da eremua, ordea, eta nahi-eta-ez zenbait burutara mugatu behar gure esatekoa.

Fedea (Sinesmena)

Antiokiako San Inaziok dioenez (ad Ephesios), fedea da hasiera, oinarria, zimendua. Kristau bizitzearen etxe osoa zimendu honen gainean eraikia dago. Gu ez gara hemen hasiko fedeari buruz teorizatzen; Sorazurengan aurkitzen duguna esango dugu xoilki, eta hori ere motz eta murriz, eta lekukoen testigantzak aipatuz. Sorazuk fedeari buruz duen ikasketa guztia Eliza Amaren galtzarrean ikasia du, Kristau Dotrinako liburuxkan, Liturgian, kristau bizitzeari buruzko liburu arruntetan eta komentu-bizitzeko har-emanetan.

Eta hasteko, egiaztapen hau egin beharra dago: izigarritzko erliebez azaltzen zaigula fedea Sorazurengan. Eta beste egiaztapen hau oraino: Sorazuren sinesteak ezagutzeaz du zer-ikusi, hots, adimenduaz. Adimenduaren alderdi hau lerro lodiz azpimarratua ageri da, hau da, adimenaren alderdi honek aparteko distiraz distiratzten du Sorazurengan.

Sorazuk fermuki sinesten du bere buruaren agertzea egin digun Jainkoarengan, eta, Jainko honi zor dion itzalagatik, sinesten ditu, baita ere, Jainkoak Kristo eta Eliza dela medio, agertu dizkigun egiak oro.

Sorazuri gagozkiola, hiru lekuko aipatuko ditugu fedearen alderdi hau ikusteko. Bata da Sor Concepción; bestea Sor Consolación, eta hirugarrena Sor Purísima.

Sor Concepción-en lekukotasuna *Scriptorium Victoriense* aldizkarian argitaratua dago¹. Sor Concepción hau asturiarra zen, Sor Consolación, berriz, bilbotarra, eta Sor Purísima, Salamanca aldekoa (Fuentes de Béjar).

Sor Purísima-k, bada, bere testigantzaaren hasiera-hasieran hauxe dio:

“Jainkoaren mirabeak sinesten zituen barnetik fedeko egia guztiak, oro har eta bakoizka, eta era berean fede hori aitortzen zuen kanpotik izpirituko gar handi batekin, mojei hitz egiten zienean, halako moduz non miraz egoten baikinena, eta berdin gertatzen zen berak tratatzen zituen pertsona guztiekin”.

Eta jarraitzen du oraino lekuko honek beronek:

“Jainkoaren mirabeak arimako bozkariarik handienaz, eskerrak ematen zizkion Jainkoari herri katoliko batean jaio izanaren mesede neurrigabekoagatik eta errukitu egiten zen biziki gure erlijio sainduaren misterioak ezagutzen ez dituzten fedegabe errukarriez. Jainko gure Jaunari eskari sutsuak egiten zizkion bere Ebanjelioaren argia mundu osoan zabal zezan, eta otoitz berberak egiteko eskatzen zien erlijiosei, hots, gizon guztiak Jainkoa ezagutzera hel daitezela”².

Sor M. Consolación Ipiña bilbotarrak, berriz, honelatsu dio:

“Haren fedea hain zen aparta eta ohi ez bezalakoa, non bidaztiarena baino areago zerutarrarena zirudien Jainko gure Jaunari buruz hitz egiten zigunean, eta hori itzal eta maitasunik handienaz egiten zuen”.

Sor Concepción astuariarrak, berriz:

“Hitz ematen dut Jainkoaren mirabe Ama Angeles Sorazuk, bazuela bere arima ederrean eta izpiritu handian fede bizi eta gartsuenaren bertutea, beti ari zen fede,

esperantza eta karitatezko egintzak egiten, eta bazuela gure fede sainduko misterio guztientzat maitasun txit handia, bada haren izpiritua beti zebilen Eliza Ama Sainduak ospatzen dituen misterioekin bat egina eta hartako festak txit gartsuki ospatzen zituen, beroietarako prestamen bereziak eginez edo bere alaba batzuei gauza bera egitera gonbidatuz”².

Eta ez goaz mojen lekukotasunetatik testu gehiago aldatzera. Lekukotasun horietan Sorazuren platikak, hots, moiei egiten zizkien mintzaldi edo erakusaldiak aipatzen dira. Eta zinez, hau da Sorazuren bizitzean gauza aski miraritsua, nola, alegia, eskolagabea izanik, egin zezakeen horrelako mintzaldirik. Liturgia edo eliz urteko aroak eta festak gogoratuz edo horietarik parada hartuz, fedeko egiei buruz etab. hitz egiten zien goratasunez eta aldi berean entzuleen adimenduek uler zezaketen eran. Entzuleak —mojak, alegia— harri eta zur eginik egoten omen ziren beren Abadesaren mintzaldiok entzuten.

Mintzaldi horiek ez ziren motxak, luzeak baizik (bi ordutara ere heltzen omen ziren inoiz). Tamalez, Sorazuren garaian ez zen magnetofonik —eta ez apunteak hartzerik ere, zeren ilunetan egiten baitzituen mintzaldiok—. Ez zaigu, bada, fitsik gelditu. Halere, Aita Marianori egindako eskutitzetan egiten du inoiz mintzaldi baten gai-azalpentxo³.

Itxaropena

Bertute honen bidez, Jainkoaren ontasun, leialtasun eta ahalguztia dela medio, sinesten duguna eskuratzera helduko garela itxaroten dugu. Beste hitzez esanik,

zerura helduko garela itxaroten dugu. Itxaropenak fidantzia du berekin, hots, Jainkoarengan fido izatea.

Jainkoak bere agintzariak egin dizkigu eta, hain zuzen, agintzari horiek dira itxaropenaren oinarria; tartean, ordea, baldintza batzuk ere badira —bekatua utzi, graziazko egoeran bizi, Jainkoaren agindua gorde etab.—, baina guzti hori ere Jainkoaren graziaz eta geure ahaleginaz bete ahal izango dugula uste dugu.

Sorazuk itxaropen hau bazuela, ez dago bat ere dudarik. Hori frogatzeko, mila lekukotasun atera daitezke haren idazkietarik, baina ez da beharrezko.

Gainera dezagun, halere, itxaropenaren aurkako tentaldia izan zuela Sorazuk bere tentaldi berezia, bereberea. Etsaiak ere bazekien, nonbait, hementxe zuela hark bere alderdi argala eta hortik erasotzen zion: grazia saindutzaila galduta zuela, okerreko bidetik zihoala, alferrik zebilela Jainkoa zerbitzatzen, zeren eta infernura begiz joa baitzegoen eta gauza horrek ez baitzuen konponbiderik, etab.

Gau iluneko aldian, etsaiak ipintzen zizkion burutazioen ondorioz, badirudi berak ere bere kondenamea erabakitzen jotzen zuela. Eta haxe da harrigarria: hori gorabehera, prest zegoen baita infernua ere Jainkoa zerbitzatzen segitzeko (Ikus *Autob.* 93).

Beharbada, tentaldi honetarako Sorazurengan nabari den joerak bazuen oinarri haren aiurri, izakera edo heziera; ez dakigu. Garai hartako Euskal Herrian erlijio-heziera nahikoa latz eta zorrotza izan ohi zen. Dena den, Sorazuren tentaldi berezia haxe izan zen: itxaropenaren aurkako tentaldia.

Baina kontradikzio-itxura duen gertaera batekin egiten dugu hemen topo: iduriz eskrupuluek joa zegoen

emakume hura, guztiz aproposa eta aparta gertatu zen tribulamenduz eta eskrupuluz joak zeudenen arta hartzeko. Ordu luzeak pasatzen zituen eskrupuluz jotakoak entzuten eta kontsolatzen. Gaisorik zeudenak zaintzen eta hiltzera zihoazenei kasu egiten, berriz, aparta zen. Bazekien horiei esperantza eta fidantzia iradokitzen.

Mojek esaten zuten haren aurretik hil nahi zutela, hil-garaian hura beren aldamenean edukitzeko. Eta zinez, ez ziren guti izan Konzezioko komentuan Ama Sorazu Abadesa zela, hil zirenak.

Maitasuna edo Karitatea

Testamentu Zaharreko lege-jakitun batek galdetu zion behin Jesusi ea zein zen legeko aginduetan nagusia, eta Jesusek erantzun:

“Maitatuko duzu zeure Jainko Jauna zeure bihotz guztiaz eta zeure arima guztiaz eta zeure gogo guztiaz. Hau da agindu guztietan handiena eta lehenena”.

Eta galdetu ez zitzaion beste hau gaineratu zuen:

“Bigarrena, berriz, honen antzekoa da: Maite izan-go duzu zeure lagun hurkoa zeure burua bezalaxe. Bi agindu hauetan datza lege osoaren eta profeten funtsa eta gora-behera guztia” (Mt 22, 37-40).

Jainkoa maitatzea eta lagun hurkoa maitatzea, biak sartzen dira, bada, bertute teologal honen esparruan. Goitik isuri zaizkigun ahalmen edo bertuteetan berau da gorena, bikainena. Saindutasunaren muin guztia bertute honetan datza, bada.

Eta zer da maitatzea? Maite dugunaren ona bilatzea edo opa izatea. Maite duenak gauza guztien gainetik

nahi du eta amets du bere maitearen ona eta ongi izatea; zoriontsu dela jakite hutsarekin, berak ere zorionekotzat du bere burua.

Gure jardunak ez luke amairik izango, Sorazuren bizian bertute honen praktikari buruz azaltzen den guztia konta behar bagenu. Bi beso edo adar baititu karitateak —Jainkoa eta lagun hurkoa—, bi sailetan banatuko dugu esatekoa, biak ere laburzki azalduz.

1) *Jainkoa maitatzeari buruz*

Hemen Jainkoa esatean, hor sartzen dira, noski, bai Jesukristo, bai Ama Birjina, bai Eliza eta bai zeru-herriko sorkari guztiak ere. Besterik ezean, gailur batzuk ukituko ditugu bakarrik. Baina esan dezagun dagoeneko zein den gailur guztiak lotzen dituen lokarria, hots: Jainkoaren lehentasuna.

a) *Jainkoaren lehentasuna*. Ama Sorazuren bizi eta dotrinan zerbait ageri bada argi eta garbi, hauxe da, hots: Jainkoa dela lehen, hura behar dugula gauza guztien gainetik maitatu, adoratu, zerbitzatu, eta hori ez sariagatik, Hura “dena delako” baizik. Gaur lagun hurkoa maitatzearen aitzakiaz, maiz-sarri baztertuxea edo ahanztzia edo gutietsia ageri den puntu hau, Sorazuren bizian eta erakutsietan marra lodiz azpimarraturik dago.

Errealitate honen agerpideak Sorazuren bizian nonnahi azaltzen dira. Batzuk ikusiak ditugu jadanik eta ez goaz berriz errepikatzera. Baina badira maitasun honen gailur batzuk eta horien aipamen laburra bederen egin gabe ezin egon gaitezke.

b) Eta bata da berak izen berezi batekin izendatzen zuena, hots, plazentziazko maitazarrea (“afecto de complacencia”). (Ikus *Autob.* 526-528, 546, 640, 727). Zer da hori? Jainkoa zoriontsu, onez betea, aberatsa eta

ahalguztiduna delako poz hartzea, laket izatea. “Ni Jainkoa banintz, Jainko izateari utziko nioke, zerori Jainko izan zaitezen”. Honelako perpausak jaulkitzen zitzaizkion hitzetik hortzera Sorazuri. Guri txorakeriak edo hitz-joko faun-alferrak irudituko zaizkigu agian, baina Sorazuri barren-barrendik, iturriari ura bezala, ateratzen zitzaizkion.

c) Eta hona hemen beste agerpide bat guztiz nabarmena: Jainko-Semearen Gizakundea —gizon egitea— gizadi osoaren izenean eskertzeko anitz urtez egin zuen ejerjizioa. (Ikus *Autob.* 203, 247, 401, 565). Andre Mari Martiko egunez ospatzen zuen, eta handikiro ospatu ere, Jainkoak gizonoi egin zigun mesede ikaragarri hau. (Ikus *Autob.* 569-570).

Berdin gozatzen eta laketzen zen Sor Angeles Ama Birjinari Jainkoak emandako pribilegioengatik, etab. Zinez, honelako sentimenduak noiznahi azaltzen dira, naturaltasun osoz adieraziak, Sorazuren idazkietan. Bilduma ederra bil daiteke hartako pasarteak bilduz. Esan behar da maitasun-mota hau ez dela lur honetakoa, zeru-herrikoa baizik; Jainkoak berak lur honetara ekarria eta gure lurrean landatua.

2) *Lagun hurkoa maitatzeari buruz*

Baina karitateak ez du Jainkoa bakarrik xede edo helmuga; Jainkoarekin batean lagun hurkoa ere besarkatzen du. Nola daiteke hori? Izan ere, kristau fedeak aitortzen du karitatea bertute bakarra dela, nahiz bi zer horietara —Jainkoa eta gizona— iristen den. Batasun honen arrazoia hauxe da: kristauak lagun hurkoa ere Jainkoagatik maitatzen baitu. Beste hitzez esanik, lagun hurkoa Jainkoagatik maite dugunean, Jainkoa bera maitatzen ari gara.

Zer moduzkoa azaltzen zaigu Sor Angelesen bizia alde honetatik? Esan behar da honetan ere sentikortasun aparta ageri duela. Zenbait puntu aipatuko ditugu soilki.

Bera Abadesa izan aurretik, gauza jakina da nolakoa zen Komunitatearen egoera: bi taldetan banatuak zebiltzan mojak. (Ikus *Autob.* 304, 334). Sorazu, berriz, ez zen ezein taldetako; aitzitik, bai talde batekoekin eta bai bestekoekin ere ongi konpontzen zen, baina batzutan istilu larriak sortzen zitzaizkion. Adibidez, urliak hitz egiten zion sandiaren aurka: orduan Sorazuk ezin zuen isilik entzun horrelako marmarrik eta gutiago esamesetan parte hartu, eta inoiz horretan erortzen baldin bazen edo hutsik egiten bazuen, ez zen otoitz egiteko gauza izaten, harik eta egindako hutsa konpondu arte. (Ikus *Autob.* 303). Barka-eske joango zen berehala.

Mojak laster ohartu ziren hark ez zuela saldukeriarik egiten, ez zuela inoren aurkako marmarrik entzun nahi, etab. Tornera nagusiaren irainak isilik pairatu zituen. Ofizio horretan iraun zuen bitartean ahaleginak egin zituen tornura hurbiltzen ziren eskekoei laguntzen, jateko zerbait emanez etab., nahiz eta frankotan berari zegokionetik eman behar.

Abadesa izendatua izan zenetik, berriz, karitatea bere alabekin praktikatzeko aukerak ugaritu eta eremua ere zabaldu egin zitzaion. Esan dugu jadanik eskrupuluez edo tribulamenduz jotako mojak kontsolatzen ematen zuen astia, edota gaisorik zeudenak zaintzen, etab. Biktima bezala ere eskaintzen zuen bere burua besteen ordeztatzeko. Kanpokoei ere, zorigaitzen bat suertatzen zitzaientean —adibidez, etxea erre edo— laguntzen saiatzen zen.

Sorazuk izan zituen bere Komunitatean etsai edo kontrako zeuzkanak; guti, baina baziren (Sor Toribia, Sor Mercedes...). Gerra bizia egin zioten, gainera. Zuzendari izpirituala nola hari kenduko: hori omen zen haien apeta, eta horretarako beren esamesekin eta autuekin gora joko zuten, hots, aitorle ziren apaizengana, etab. Bera, berriz, jakinean zegoen eta isilik jasaten zuen dena. Moja horietako batek behin "Lastozko Saindua" deitu omen zion⁴.

Eta zein izan zen ondorioa, Sorazuk eman zien ordain-pagua? Beraiek izan zirela faboratuenak, pribilegiatuenak. Hala aitortzen dute besteek, hots, berari beti atxikiak izan zirenak. (Ikus *Autob. osagarria* 774).

¹ *Scriptorium Victoriense* 34 (1987), 187-209.

² Lekukotasun hau argitara gabe dago.

³ *Ama Sorazuren Ibilbide mistikoa*, III, 180; 9-XI-1920.

⁴ Ikus Sor Lourdes-en lekukotasuna (argitara gabea).

XII

Ama Sorazuren mezua

Honez gero bukatu beharrean gara. Liburuskaren luze-laburrak ez baitu gehiago ametitzen. Eta, aldeztu da, ezen Sorazuren mistika-zurubiko mailarik gorenak ez ditugu aipatu ere. Baina ur handitan sartzeko ez gaude. Esan ditugunak Sorazuri buruz lehen hurbilketa bezala irakurleari baliatuko ahal zaizkio!

Gure ustez, Elizaren kondairan kasu guti daude Sorazurena bezain ospetsu eta dirdiratsuak. Jainkoaren esperientzia hain nabarmena, ozena eta joria berekin dakartenak, esan nahi dugu.

Lan honen hasieran esan genuen Sorazuren kasuak *karisma* baten eite eta itxura guztia duela. Bestela esan, Jainkoak, gure garaiko Eliza aberastu eta argitu nahirik, erregalatu digun karismadun bat dugula Ama Sorazu. Sorazuren saindutasun pertsonalaz landa, bada hemen beste zerbaite, hots, bada mezu bat gaurko Elizaren onerako emana.

Gaur Elizan badira argitu, sendotu eta bultzatu beharrean diren gauzak. Mendeetan zehar Elizak gora-

beherak ezagutzen ditu: orain haizeak brankatik jotzen du, gero ababorretik, etab. Eta premiek eskatzen duten heinean, Jainkoak ere badaki seinaleak pizten bere fededunak bide zuzenetik abiarazteko.

Hans Urs von Balthasar-ek esan du Jainkoak badakiela, izurritea azaldu baino lehen ere, hartako antidotoak bidaltzen. Eta badirudi hala gertatu dela gure kasuan. Sor Angelesen egunetan ez ziren nabari —halako sumintasunez bederen—, geroztik gure artean azaldu diren bezalako desbiderapen eta zitu pozoitsuak. Eta hain zuzen, haren bizian hain lerro lodiz markatuak ageri diren bereizgarriak —bereizgarri nagusi batzuk behintzat— apropos-aproposak dirudite gaurko gaitzen sendatzeko.

Baina hemen ohar bat egin behar da:

Sorazu bere garaiko eta tokiko kordenadetan bizi izan zen. Hark eman zuen erantzuna garai hartakoa da, eta ezin izan zitekeen bestela. Hark bere inguruan zuen mundua eta guk duguna ez dira erabat berdinak —guztiz desberdinak ere ez, noski—. Fedea bizitzeko eta Jainkoari erantzuteko izan zuen estiloa eta era, ez dugu esango ordukoa zenik, ezen orduan ere inork gutxik erantzuten zuen hala. Orduko zertzelada eta aitzingibiletan hark horrela erantzun zuen eta guri geuretan nola erantzun genezakeen erakustera datorkigu. Garai hartakoa da, noski, bere eskasiak eta mugak ere izan zituen, baina hark emandako erantzunak badu guretzat balio trinko-iraunkorrik, kristau fedean balio trinkoa duten oinarrietan oinarritua baitago.

Adieraz ditzagun zein diren Sorazuren bizi eta obretan mugarri antzo gailen ageri diren puntuok, eta gaur zoritxarrez askotan ilunduak, eztabaidatuak edo baztertuak ikusten ditugunok:

1.- Lehenengo eta behin, *Jainkoaren lehentasuna*. Jainkoa dela lehen, alegia. Puntu hau ezin utzizkoa da, eta beste ezerk ezin ken diezaioke aurreneko tokia —humanismoak, munduari ere zor zaion maitasunak, etab.—. Sorazuren bizitzean puntu hau da, noski, beste guztiak gainditzen dituen.

2.- Eta puntu horren segida dena: *Otoitzaren lehentasuna*. Eta otoitza diogunean, ez dugu elkarrekin egiten duguna soilki esan nahi. Bestea ere, bakoizka edo bakarka egiten dena ere, behar-beharrezkoa baita, eta Sorazuren kasuan honen garrantzia garbi azpimarratua ageri da.

3.- *Jesukristo Jainko-Seme gizon eginaren Jainkotasuna*. Hona hemen beste puntu bat oinarri-oinarrizkoa, Sorazuren kristau bidean lerro lodiz markatua, eta gaur halako kristau itxura batekin agertu nahi duten zenbait mugimendutan arre eta hits xamar ageri dena. (Gogora Kristologia berriak, etab.). Kristori buruzko fede zuzena iluntzen bada, jai dugu.

4.- *Andre Mariak Jainkoaren salbamen-asmoetan duen parte eta garrantzia*.

Hona hemen beste puntu bat gaur maiz ilundua edo gutietsia ikusten duguna. Ez dezagun ahanzi Andre Mariak irakatsi ziola Sorazuri Jainkoa behar bezala zerbitzatzen.

5.- *Eukaristiak kristau fede eta bizian duen oinarri-oinarrizko lekua*. Eta Eukaristia esatean, hitz hau bere osotasunean hartu nahi dugu, eta ez meza izendatzeko bakarrik. Izan ere, mezatik kanpora ere, hor dago Jesus Sagrarioan gure kultu eta adorazioaren zain. Puntu hau ere Sorazuren bizian etxea beteko erliebez ageri zaigu eta gaur zoritxarrez erdi baztertua daukagu.

6.- *Penitentziako bertute eta sakramentuari kristau bizian dagokion tokia*, gaur toki askotan ia suntsitua eta ezabatua ikusten duguna. Horra puntu bat kristautasuna bere muinean ukitu gabe baztertu ezin dena eta Sorazuren kristau bidean bizi-bizi ageri zaiguna.

7.- *Elizari zor diogun atxikimendu eta menpetasuna*, Kristoren berri-ekarle eta Kristoren salbamenaren partitzaile den aldetik.

Etab. Zerrenda hau luza daiteke, noski, baina bego.

Bai. Badakigu. Gaur eginkizun larriak ditu Elizak. Beharko dira zubiak eraiki Eliza eta munduaren artean, baina gureari uko egin gabe, noski. Eta guzti hori go-goaraztera datorkigun mezularia horra zein den: gure egunetako eta gure herriko emakume behartsu-ezjakina, baina Jainkoak hartarako hornitu, jantzi eta altxa nahi izan diguna.

Eranskinak

Zenbait pusketa, Ama Sorazuren idazkietatik aldatuak

I

Arimaren goiko eta beheko solairuaz

(Aita Mariano arimako Zuzendariari egindako eskutitz batetik; 1911, Maiatzak 1; *Itinerario Místico de la M. Angeles Sorazu*, vol. I, p. 287)

“Zertxobait gehiago esan nahi nizuke, baina ez dakit nondik hasi, zeren eta eskutitz honen kontraeran ageri denaz hain desberdin den beste izpiritu bat da nigan —nahiz eta beronekin bat izan—, non, azaltzen baldin badut, orain arte esandako guztia gezurra dela irudituko baitzaigu; eta halaz guztiz ez da hori horrela. Aitzitik, eskutitz honetan eta beste batzuetan neure atsekabe, beldur, tristurez etab. etab. azaldu dudan guztia egia hutsa baizik ez da, nahiz eta alderantziz irudituko zaion ene arima Jainkoa baitan eta ez sorkarietan ikusten eta kontenplatzen duenari; bere goiko solairuan eta ez behekoan; honek alabaina hiri setiatua ematen du, beti gerlan; hura, berriz, bake, alegantzia eta zeru argitsua da; hain da beheko solairuaz desberdin, nola diren zerua eta lurra elkarrengandik.

Hortik heldu da arimako bi parte hauek batera azaltzen ezin dudala asmatu, eta ezin dut, gainera, kontraesan gabe eta idazten dudan lerro bakoitzean neure burua gezurtatu gabe; zeren eta beheko solairua zotinka eta negarrez eta gertatzen zaizkion mila hondamendi eta ezbehar, eta irensten dituen penak kontatzen dituen bitartean, eta begiratzen ari zaionari guztiz estutua eta larritua azaltzen zaion bitartean, goiko solairuan irri egiten baitu, erregina balitz bezala, beti pozetan, atsedenean eta Jainkoarekin bakarrik harreman izateko hazia izan balitz bezala.

—Utz ezazu gaixo hori mintza eta lasai dadin lehenik —esaten bide du, beheko solairuari buruz ari dela—, ni ongi nago eta; horren premiak erremediatu ondoren, erremediatuko dituzu eneak.

—A zer-nolako premiak dituzun zuk —erantzuten dut nik—, zu ez zara bizi lo egiteko eta atsedean hartzeko baizik, atsedean hartu, lo egin, beti pozetan, atseginetan; isilik egon zaitezke, bai, sekulakotz ere.

Zenbaitetan, igarotzen ditudan neke edo gertatzen zaidan larritasunaren kontu errendatzen ari naizenean etab. etab., badirudi irri egiten eta esaten didala:

—Zenbateraino zauden larriaren larriz abaildua, enetxo!

Eta Jainkoagan eta Jainkoarekin berak gozatzen dituen pozaldiak erakusten dizkidalarik, arimaren behe-solairuko neke, atsekabe, tristura eta mixeriak oro bistatik kentzen dizkit eta esan erazten dit:

—Barka ieazkidazu, ene Jainko, esan ditudan gezurrak, ez bainago triste eta nahigabetan, eta ez naiz esaten ari naizen bezalakoa, guztiz bestelakoa baizik”.

II

Etxeko traste zaharrak ganbaran gordetzen zituen emakumearena (Aita Mariano, arimako Zuzendariari egindako eskutitz batetik; 1911, Urtarrilak 23; *Itinerario Místico de la M. Angeles Sorazu*, vol. I, p. 210).

“Egun batez, txit larri nengoela, ustez eta idazteko agindu didazun neure biziaren kontaeran gezurra besterik ez dudala esango —harrietatik jainkoak egiteko dudan abileziagatik, fitsik balio ez duten gauzetatik misterioak ateraraziz, alegia—, iruditu zitzaidan ene arima etxe bat zela, zeinetan Jaunak gauza batzuk ezarri zituen. Etxe hartan bizi zen emakume gaisoak gauzok harri trauskiltzat zeuzkan eta gela ilun batean sartu eta anitz urtez han eduki zituen, bat ere kasurik egiten ez ziela. Gehiago oraindik: meziprezuz begiratzen zituen, traba besterik egiten ez zioten gauzak balira bezala.

Iruditu zitzaidan Jainko gure Jaunak —Hura baitzen gauzok emakumeari bidali eta haren etxean gorde zituena—, zerok etxetik atera eta kalean jartzeko agintzen ziola emakume gaiso hari. Atera zituen, bada, etxetik harriak ateratzen zituelako ustetan; baina kalean jarri zituenean, urrezko talentuak zirela ikusi zen.

Honeraz geroz, Jainko gure Jaunak esan zidan ni neu nintzela emakume gaixo hura, graziak eta dohainak harri trauskil edo haltzari zaharkitutzat neure ariman ezkutaturik eduki nituena, enbarazutarako ez bestetarako ez balira bezala; baina iritsia zela ordua harri eta traste zahar haiek bere neurrizko eta taxuzko balioan estimatuko zituenari azaltzeko, eta beraz, beldurrik bat ere ez izateko, bada ez nituen harrietatik jainkoak egiten, nik uste nuen bezalaxe.

Hala eta guztiz ere, infernuari bezainbat beldur diot idazteari, edo areago. Jainkoak bakarrik daki zenbat penatzen dudan. Jaunak ezin asma zezakeen idazteko agindua baino zigor hoberik ene bekatuen kastigutzat. Ene Aita, sartuko bazina neure bihotzean, ikusiko zenuke ikusi nolako egoera larrian aurkitzen naizen. Gezurra dirudi Jainko gure Jauna, hain on eta errukiorrak, enetzat beti izan den eta den Aita samur eta amultsuak, nola permititzen duen bere Ordezkariek —ene Zuzendariek— herstura horietan jar nazaten. Zorioneko idazkiak! Zenbateraino larritu nauten eta larritzen nauten!”

III

Jesus Mariako komentuan bizi zen garaiko arrangurak

(*Autobiografia Espiritual* 189-190)

“Atsekabezko aldi honetan berritu zitzaidan profesia eginberri nintzenean sentitu nuen kezka, hots, behar niola neure arima osoa Jainkoaren Ministro bati agertu. Pentsatzen nuen, alabaina, Jainkoaren Ministroetarik nornahik baleki jakin saindutasunerako nere bokazioa eta Jainkoagandik Jesus Mariara etorri aurreko bi urteetan hartu nituen mesede harrigarriak; eta ikusiko banindu beste edozein erlijiosa bezala bizitzen, hartutako bidean sostenga nintzakeen norbait ez nuelako, errukitu egingo litzatekeela nitaz eta lagundu egingo lidakeela berriz ere Jainko gure Jaunarengana altxa eta Haren asmoei erantzuten.

Aitorle arruntak tutik ere ez zekien nik Jainkoagandik hartutako mesedeez eta saindutasunerako nere

bokazioaz, eta horregatik esaten zidan gauza guztietan Jesus Mariako ahizpek egiten zuten bizitzea segi nezala, eta, hain zuzen, hori zen neri kalte egiten zidana; ez, noski, ahizpen bizimodua txarra zelako —ezta gutiagorik ere—, baizik eta saindutasunerako neure bokazio bereziagatik.

Nahi nizekion azaldu aitorleari neure arimaren egoera, neure kezka eta arrangurak, zalantzak, beldurrak etab., baina ezin, eta, hain zuzen, horrexegatik eskatzen nion Jaunari eman ziezadala, arren, neure egoera tristetik irteten lagunduko lidakeen Zuzendari on baten grazia.

Biziki sofritu nuen alde honetatik, bada ohiturik nengoen Jainkoarekin beti barrendik tratatzera, bakar-taderik osoenean eta sorkariengandik aldendua bizitzera; horrexegatik ezin bizi nintzen kanporatua, izugarri-zko nahigabeak igaro gabe. Bazirudien zerutik lurrera eraitsi nindutela.

Atsekabezko egoera honetan franko aldiz arrenkuratu nintzen Jainko gure Jaunak bizia kendu ez zidalako 1894eko Irailaren 25ean, kentzeko eskatu nionean, baldin bere oro jakitean ikusten bazuen berriz ere ofenditu egingo nuela, bekatu arin batekin baino izango ez bazen ere, zeren horrelako zoritxarrik gertatuko balitzait, nere nahigabea eraman ezina izango baitzen. Eta nola, zoritxarrez, beldur nintzena gertatu baitzitzaidan, ez nuen arrenkuratzeko arrazoi faltarik; errua, ordea, enea zen, eta ez Jainko gure Jaunarena.

Baina ez zen dena penatzea izan, kontsolamenaldiak ere izan bainituen; hauek, ordea, ez ziren izan Jesus Mariara joan aurretik etxe saindu honetan dastatu nituenak bezain luzeak eta jainkozkoak”.

IV

“Gure Jaunak ene ariman eraikitako jauretxe mistikoaren lehen oinarria”

(Autobiografia Espiritual 58-61)

“1892. urteko Urriaren 6an egin nuen neure profesia nagusia eta hasi nintzen neure botu eta Erregela saildua gure Jaunak eskatzen zidan perfekzioaz betetzen. Kontrakar handia sortu zitzaidan erlijiosen aldetik, baina obserbantzia amodioz isilik jasan nuen, hiltzeko gertu neure zinari saldukeria egin baino lehen. Urriaren 8an, larunbatez, Jainko-Amatasunaren aurregunean, Nobiziadutik irten nintzen gelan bizitzera joateko.

Neure haltzari xumeak apailatu eta Sortzez Garbiaren irudia mahai gainean ipini ondoren, belauniko jarri nintzen eta neure burua kontsakratu nion Andre Mariari fede biziz, gogotsu eta gartsuki, mirabe, menpeko, ikasle eta alabatzat. Ama Birjina hautatu nuen neure Erregina, Nagusi, Maistra, Zuzendari eta Ama izan zedin, karguok hartzeko umilki eskatzen niola. Eta gure Jaunari erregutu nion hitzarmen hau, arren, birrets zezala eta egin ziezadala Ama Birjinaren emaitza zeregin hauetarako.

Egite hauek egiterakoan somatu nuen zoriona zenbaterainokoa izan zen ezina zait deskribatzea. Ama Birjinaganako fidantzia osoa, alaba-gisakoa, erne zitzaidan; Andre Mariaganako su eta gar bat ase ezina, apartekoa, eta gar hori egunetik egunera gero eta handiagoa egin zen nigan.

Andre Maritar amodio ase ezinak eta Andreaz jabetzeko sentitzen nuen premia premiatsuak hartaturik, komentuan zehar ibiltzen nintzen haren bila. Erlijiosei erregutzen nien Jaunari, arren, eska eta indar egin zie-

zaioten Ama Birjinaren egiazko debozioa eta Andre Maria bera eman ziezadan. Ene lehia ikustean, nitaz irri egiten zuten erlijiosek, uste baitzuten banintzela eskatzen nuen graziaren jabe; baina nik maitasun-gose ase ezina somatzen nuen, eta zenbat eta gehiago Ama Birjina maitatu, hainbat eta handiagoa zen ene irritsa.

...

Hau izan zen ene bizitze izpiritualaren hastapena, Gure Jaunak ene ariman eraikitako jauretxe mistikoaren lehen oinarria. Ama Birjinari egindako oso-osoko neure kontsakrazioari eta Andre honen erantzun azkarrari eta onartutako konpromisuak betetzeko hark duen leialtasunari zor dizkiet bai neure zoriona, eta bai neure erlijioso-bizitzean zehar egin dizkidan grazia ugari eta apartak. Aitortzen dut, eta mundu osoaren aitzinean barreiatuko dut, eta bai gero betiraun zoriontsuan ere, dena, dena zor diodala Ama Birjina zeruko nire Zaindariari: 'harekin batean heldu zitzaizkidan ondasun guztiak'.¹

V

“Jainko gure Jaunak nola egin zidan bere buruaren emaitza”

(Autobiografia Espiritual 159-161)

“1894eko Irailaren 25ean, goizeko lauetan neure debozioak egiteko jaiki nintzen. Ohi bezala, ohea utzi bezain laster, belauniko jarri nintzen Ama Birjina eta berarengan eta berarekin batean Jainkoa gurtzeko, eta une hartan bertan *Jainko Bakoitz eta Hirukoitz*a agertu zitzaion ene arimari bere ontasun eta nagusitasun guz-

tizkoaren dirdiran, itxura guztiz ederrean. Giza edertasunaz antz pixka bat duen itxuran, alegia, baina ez da giza edertasuna, edertasun jainkozkoa baizik.

Jainko Semearen gizatasun saindua zekarren berekin, baina Jaunaren inguruan zegoen argitasun ilunak ez zidan uzten ez hargan eta ez ezein jainkozko Pertsonagan begia kokatzen, baizik eta haren Jainkotasuna eta Gizatasuna besarkatzen zituen albiste jeneral batez Jainko orori begiratzen nion. Jainko-ilunpeak Haren izatea inguratzen zuenarren, neure Jainkoa aintza, nagusitasun, edertasun eta jainkozko ontasunez dirdiratsu begietsi nuen.

Ez zitzaidan agertu lurralde mistiko batean —ohi zuenez—, nere gelan baizik, nere aldamenen bezala. Azaldu zenean, keinu arin eta maitakor batekin zera esan edo adierazi zidan, alegia: Bera dudala nik neure Aita, neure Ama, neure Espos, neure arimaren izaki barrenkorrena, etxekoena eta amultsuena.

Hain barrenkorrak direla elkarrekin lotzen gaituzten lokarriak, non, horiekin konparatuz, munduan ezagutzen diren har-emanak —adibidez senar-emazteen arteko lokarriak eta gurasoek seme-alabekiko dituztenak—, zatiketa huts baizik ez dira. Ez dela sorkarien artean ahaidegorik ez hurbiltasunik Beraren eta ene arima gaixoaren artean dena adieraz dezakeenik, edo hartaz konpara daitekeenik. Halaxe dastatu nuen, eta Jainko-batzea nabaritzean, Jainkoa guztiz neurea nuela eta ni guztiz Jainkoarena nintzela ohartzean, harri eta zur eginik gelditu nintzen.

Baina Jainkoak ez zuen aski bere ahaidegoak eman edo eskuratu zidan goi-duintasun eta zorionaz ni oho-

ratzearekin —nahiz eta hau nahikoa izan ene arima sekula betiko isiltasun eta harriduran uzteko—, baizik eta Bera bere baitan zer den azaldu ondoren —hots, Handitasunik gorena, Onik nagusiena—, eta zer den nerezat, eta neri itsatsiago dela nere arima eta nik dudan bizia baino gehiago, onberatasunez makurtu eta erori egin zen neregan, ura isurtzen den bezala, une berean nere besoetan bere burua egozten zuelako itxuran, aitak bere alabaren besotan, senarrak bere emaztearenetan eta haurrak bere amaren altzoan bere burua egozten duen gisa. Bere burua eman zion ene arimari osoki, baldintzarik gabe, Hartaz balia nendin eta nere nahierara goza nezan. Berehala Jainkoaz jabetu eta Berak hartua gelditu nintzen ondorio miragarriez.

Mesede hain harrigarriaz ikaratua bezala gelditu nintzen, eta neure harriduran oihu egin nuen:

—Ene Jainko, ene Jainko! Zergatik neure ahalme-nez baliatzen hasi nintzenean ez zenidan adierazi era honetan zeure burua neure ezerezari emateko asmoa zenuela? zeren eta ziur bainaiz neure bizi guztian leiala izango nintzaizula eta ez zintudala behin ere ofendituko.

Jainko gure Jaunak, fintasun eta ontasun miragarriez, isilarazi ninduen ene behinolako bekatuez aipamenik ez egiteko esanez, zeren eta betiko barkatuak eta ahantziak baitaude, ezabaturik daudenez gero. Ondoren, berriz, hauxe gehitu eta esan zuen:

—Hain izan da handia zeure garbikuntzaldian eman didazun aintza, hain handia neure onginahiari zeure burua errendatzeak eta zeure leialtasun eta amodio garbiak eman diona, eta horregatik nire jainkozko irizpidean merezi izan duzun grazia hain da ohigabea,

non ez bakarrik zure bekatuak barkatu eta ez baitut zuz-
gan nota edo akatsik batere ikusten, baina neure begi-
tan merezimenduz eta bertutez bete-betea ageri zara eta
justu eta sindutzat jotzen zaitut”.

VI

*Mistikako egoitzarik gorenean ere Jainko-Seme gizon
egina berriz ate-joka*

(*La Vida Espiritual coronada por la triple manifes-
tación de Jesucristo*; 21. kapituluaren hasiera)

“Arima Jainkoaren kontenplazioan inoiz baino
murgilduago, Haren barne komunikapenekin bat egin
eta mundutik zeharo aldendurik aurkitzen denean,
kontenplazio horretan eta Jainko-partaidetzan betikotu
dela uste duenean, hara non bere Maitearen ahotsa en-
tzuten duen, oles eginez diotsala:

—*Aperi mihi, soror mea, amica mea, columba mea,
immaculata mea: quia caput meum plenum est rore, et
cincinni mei guttis noctium*. Ideki dizadazu, ene arreba,
ene maitea, ene usoa, ene notagabea; ezen burua dut
ihintzez bete, eta ileak gauetako ur-xortez².

Maite hori arimak hobespenezko maitasunaz mai-
te duen Hitz gizon egin da, eta hobespen hau, bai Hi-
rutasuneko lehen eta bai hirugarren Pertsonak ere, gaiz-
ki ikusi beharrean, benedikatu eta sustatu egiten dute.
Deitzen dio, bada, denbora berean bi aldeetan —jain-
kozkoan eta gizonezkoan— kontenpla dezan, hau da,
Jainkoaren Hitza bezala —Jainkotasunaren Lorea, Aitak
betidanik, sorteraztekoan, pasarazten dizkion bikainta-

sunen jainkozko ihintzaz gozatua—; eta bere giza izatean, graziaz eta aintzaz beterik den betetasuna, izadiaren aberastasun eta bikaintasun guztiez hornitua, gauetako ur-xortek hori adierazten dutelarik.

Deitzen dio, bada, kontenplazio bikoitzera, ez haren bi izateenera bakarrik, baizik eta haien erlazioenetara ere bai. Hain zuzen, izadiarekiko harremanetan eta jainkozko barne bizitzean kontenpla zezan amoreagatik, arimak aspaldi uko egin zien Jesusen kondairako albisteei, nahiz eta lehenago, lurgaineko bizialdian segitzen zionean, berarekin harreman izateko, horietaz baliatzen zen. Era berean bistatik galdu ditu izakien jokaerak, eta ez du horien ideia lainotsu eta jeneral bat baizik, salbu eta aitzingibel partikular batzuei kasu egitea eskatzen zaionean.

Hirutasunaren barne-bizitzeari itsatsia, hots, beste mundurako, bizi da, hemengorako baino gehiago. Elkar-maitasuna eta lagun hurkoaren ardura ahantzi gabe, gizonengandik berezia eta mila lekoa urrutiratua aurkitzen da, munduaz eta denboraz zer ikusi duen guztirako lokartua, baldin eta betebeharren batek hemengo gauzetan eskua sartzeko eskatzen ez badio.

Haren bizia hain bihurtu da bakun, non ez baitezake Jesusen bizialdiko misterio edo pauso partikularretan bere begia koka —bizialdi hori Jainkoa baitan Gizakundearen albiste jeneral batean kontenplatzen eta dastatzen duelarik—. Hori dela eta, Hitz gizon egina-renganako amodioa eta lehia bizia izanarren, herabe du ohe mistikoa edo Jainkotasunaren kontenplazio-atsedena uztera, egin zaion olesari segituz. Hobeki esan, herabe du Jesusek berekin dakarren kanpo-alderdia Jainkotasunari eranstera; eta bere buruari galdetzen dio:

Jainkoaren galtzarrean lo egiteko erauntzi zuen soinekoa —Kristoren lurgaineko biziari buruzko albisteak— nola berriz jantzi, eta garbitu zituen oinak nola berriz lohitu? Haren kanpoaldeko kontenplazioak, alabaina, berriz piztuko ditu bere irudimen eta oroimenean jadanik ukatuak eta ahortziak dituen sorkarien jokaerak.

Expoliavi me tunica mea, quomodo induar illa? Lavi pedes meos, quomodo inquinabo illos? Erauntzi izan dut ene soina, jauntziren dut berriz? Garbitu izan ditut zangoak, nola lohi berriz?³

¹ Sap 7,11

² Cant 5,2; Duvoisinien itzulpena.

³ Cant 5,3; Duvoisinien itzulpena.

Ama Sorazuren bizialdiko data edo urtemuga gailenak

1873, Otsailak 22. Zumaian (Gipuzkoa) jaio. Aita, Mariano; ama, Antonia Aizpurua. Zazpi anai-arreba izan ziren. Aita, arrain-saltzailea.

1879. Familia osoa Donostiara aldatzen da.

1883. Familia Tolosara dihoa bizitzera.

1888. Bizimodu pixka bat mundutarra egiten hasten da.

1889, Ekainak 29. Konbertsioa, Leaburuko erromeritik Anjelusa pasata etxeratu eta, amak errita egiten dionean.- “Elosegui” txapel-fabrikan langile.

1891, Abuztuak 25. Valladoliden moja sartzen da. San Migel egunean —Irailak 29— habitua jantzi eta izena aldatzen du. Florencia bataio-izena utzi eta Sor M^a de los Angeles hartzen.

1892, Urriak 6: bere profesa egiten du. Handik bi egunera Ama Birjinari kotsakratzen dio bere burua, bere erlijioso bizitzean Ama eta Irakasle izan dadila eskatuz.

1893, Abuztuak 15. Bigarren konbertsioa, eta segituan Gau Ilun edo garbikuntz aldian sartzen da.

1894, Irailak 25. Jainkoak bere buruaren emaitza egiten dio. Batasun-aldi honek hiruren bat hilabete dira bakarrik. Sorazu berak ematen dio azkena. Arrazoia: egoera hartan ez baitzekien jendearekiko har-emanetan nola portatu. Aro luze bat hasten da gero Jesusen bizi-tzeko misterioen hausnartzeari eskainia.

1895. Komentuan konponketak egin behar direla eta, komunitate osoa Valladolidko beste komentu batera aldatzen da, Jesus Mariakora, alegia.

1898. Komunitatea berriz ere bere komentura itzultzen da.

1903. Arimako Zuzendari bat hartzea beti gerotik gerora luzatzen baitu, Jainkoa haserre azaltzen zaio. Orain hasiko da Sor Angeles arimako Zuzendarien ardurapean egoten.

1904. Sor Angeles, Abadesa hautatua. Hil arte iraungo du karguan, hiru urtetik hiru urtera berriz hautatzen dutelarik.

1910. Aita Mariano kaputxinoak —bere Aita jatorrak— hartzen du arima honen ardura.

1911, Ekainak 10. Hirutasun Sainduak bere buruaren emaitza egiten dio. Oraingo hau iraunkorra izango da. Hemendik aurrera Jainko Bakoitz eta Hirukoitzaren “tasunak” izango ditu hausnargai eta bazka, geroago Jainko Seme gizon egina ere eransten zaiolarik.

1913. Apezpikutegitik hartzen du ofizio bat, Aita Marianorekin komunikapen izatea galerazten zaiola.

1920. Cos Artzapezpikua hil eta, baimena ematen zaio berriz ere Aita Mariano Zuzendaritzat har dezan. Binbitartean beste bi Zuzendari izan zituen: Aita Narziso frantziskotarra eta Aita Alfonso domingotarra.

1920, Urriak 23. Mojek zozketa egiten dute, eta Sorazuri Jesusen Nekaldia gertatzen zaio ondare eta edontzi.

1921, Abuztuak 28. Eritasun mingarri baten ondoren hiltzen da.

Bibliografia pixka bat

I

Ama Sorazuren idazkien argitarapenak
(Gaztelaniazkoak)

La Vida Espiritual coronada por la triple manifestación de Jesucristo. A Jesús por María. Obra escrita por la R.M. Angeles Sorazu. Revisada y anotada por el P. Nazario Pérez, S.J.; Valladolid 1924; 398 orrialde.

La ovejita de María Inmaculada. 24 Coloquios Espirituales; Vitoria, Montepío Diocesano, 1924; 98 orrialde.

Cinco episodios del Cantar de los Cantares explicados gráfica y literariamente por la gran sierva de la Sma. Virgen M.R.M. María de los Angeles Sorazu y Aizpurua; Vergara 1925; 18 orrialde.

Exposición de varios pasajes de la Sagrada Escritura (Aparte de "La Vida Sobrenatural"), Editorial Fides, Salamanca 1926; 136 orrialde.

Opúsculos Marianos revisados y anotados por el P. Nazario Pérez, S.J., Valladolid, 1928; 272 orrialde.

Vida de la R.M. Angeles Sorazu. Primera parte o autobiografía "Mi historia" revisada y anotada por el R.P. Nazario Pérez, S.J.; Valladolid 1929; 375 orrialde.

Itinerario Místico de la Madre Angeles Sorazu. Correspondencia epistolar con el P. Mariano de Vega, su director espiritual, editada y anotada por el P. Melchor de Pobladura OFM Cap. 3 vols., Madrid, Centro de Propaganda, Cervantes 40; 1942, 1952, 1958; guztira 1018 orrialde.

La Vida Espiritual coronada por la triple manifestación de Jesucristo. Con un Apéndice sobre la Dirección Espiritual. Segunda edición preparada y anotada por el P. Melchor de Pobladura OFM Cap. Centro de Propaganda, Cervantes, 40; Madrid 1956; 361 orrialde.

Autobiografía Espiritual. Nueva edición conforme a los originales autógrafos y completada con la segunda parte o Complemento del P. Nazario Pérez. Edición preparada por Fr. Luis Villasante O.F.M.; Fundación Universitaria Española, Madrid 1990; 719 orrialde.

II

Ama Sorazuri buruz

P. Melchor de Pobladura OFM CAP. *Una flor siempreviva. Sor María de los Angeles Sorazu a la luz de su correspondencia epistolar*; Madrid, 1941.

P. Luis Villasante Cortabitarte OFM *La sierva de Dios M. Angeles Sorazu. Estudio místico de su vida*; 2 vols., Aránzazu-Bilbao 1950.

Aita Luis Villasante OFM *Nere izena zan Plorentxi*, Zarautz 1961.

Fr. Luis Villasante. *M. Angeles Sorazu. Un mensaje para tiempos difíciles*, Aránzazu 1981; 408 orrialde.

Daniel Elcid, *Angeles Sorazu. Una maravillosa experiencia de Dios*; Biblioteca de Autores Cristianos, Madrid 1986; 277 orrialde.

Maria Victoria Triviño O.S.C. *El Cantar de los Cantares vivido en Sor Angeles Sorazu*; Valladolid, C/ Concepción, 4; 1989; 104 orrialde.

AURKIBIDEA

I. Jainkoaren esperientzia	7
II. Mistika eta Karismak	11
III. Angeles Sorazuk bereganatu duen itzala	15
IV. Angeles Sorazuren bizitzea, gaingiroki	21
V. Arimako Zuzendarien partea	37
VI. Sor Angeles, idazle	49
VII. Jainko-bide arrunten zalea	63
VIII. Andre Mariaganako jaiera	73
IX. Jainko-Seme gizon eginari atxikia	81
X. Sor Angelesen aiurri edo izakera	91
XI. Sinesmena, Itxaropena, Maitasuna	105
XII. Ama Sorazuren mezua	115
Eranskinak	119

Liburu hau
Itxaropenak inprimatu du
Adobe Garamond 12,5 letra-tipoa erabiliz,
1990. urteko abenduan.